# Nafarroako Irakurketa Publikoaren Mapa

*Liburutegien Zerbitzua, 2021eko apirila*

# Aurkibidea

**Definizioa** Or.: **4**

**Xedea.** Or.: **5**

**Oinarriak (legezkoak eta teknikoak)** Or.: **6**

- **Aurrekariak.**
- **Lege esparrua.**
- **Ikuspegia.**
- **Balioak.**
- **Eskumenak eta Administrazioa.**

**Liburutegien arloko plangintzarako jarraibideak.** Or.: **10**

- **Abiapuntuko egoeraren azterketa.**

**Eskualdekako antolaketa.** Or.: **11**

- **Altsasuko liburutegi-eskualdea.**
- **Kantauriar ibarretako liburutegi-eskualdea**
- **Lizarrako liburutegi-eskualdea**
- **Iruñeko liburutegi-eskualdea**
- **Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdea**
- **Tafallako liburutegi-eskualdea**
- **Tuterako liburutegi-eskualdea**

**Liburutegi publikoen tipologia** Or.: **51**

- **Ikuspegi orokorra: irakurketa mapa eta liburutegi motak.**
- **Ikuspegi orokorra: liburutegiak eta populazioa.**

**Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka** Or.: **58**

**Funtzionamendurako oinarriak.**

**Oinarrizko zerbitzuak.**

**Moduluak.**

**Liburutegi sistema.** Or.: **60**

**Eskualdeko liburutegia.**

**Hirietako liburutegi zentralak.**

**Udal liburutegia.**

**Irakurketa-agentzia publikoa.**

**Liburutegi-zabalkunderako zerbitzua.**

**Zerbitzu eta ekipamendu moduluak.** **Or. : 69**

**Jendearentzako ordua.**

**Langileak.**

**Azalera.**

**Liburutegiaren funtsa.**

**Liburutegiaren funtsa euskarrien arabera banaturik.**

**Baliabide informatikoak.**

**Zerbitzuaren ebaluazioa.** **Or. : 76**

**Funts bibliografikoa handitzea.**

**Garbiketa.**

**Mailegu kopurua bizilagun bakoitzeko.**

**Udalarekiko hitzarmena.**

## Definizioa

Azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legeak, Nafarroako liburutegien sistema arautzen duenak[1] (hemendik aurrera Liburutegiei buruzko Foru Legea), bere 13.1. artikuluan, honela definitzen du Irakurketa Publikoaren Mapa: liburutegiko plangintzarako tresna bat da; bertan jasotzen dira Nafarroako liburutegien sistemako liburutegiak, irakurketa publikoaren premiak eta populazio guneei dagozkien zerbitzu moduluak.

Agiri honetan, Irakurketa Publikoaren Mapa osatu behar duten elementuei beste batzuk gehitzen zaizkie, hain zuzen ere liburutegi publikoen funtzionamenduaren ebaluaziorako adierazleak; horren helburua maparen errentagarritasun soziala eta kulturala ezagutzea da, eta, beste aldetik, hura hobetzeko jomuga kuantifikagarriak ezartzea.

[1] Nafarroako Aldizkari Ofiziala (NAO), 142. zk., 2002-XI-25.

## Xedea

Nafarroako Irakurketa Publikoaren Maparen xedea Nafarroako Foru Komunitatean liburutegi publikoaren zerbitzuaren plangintza estrategikoa egitea da, liburutegi publikoen sistema bat eraiki eta mantentzeko, honako ezaugarri hauekin: herritarren eskurakoa, eraginkorra, eta behar diren baliabideez hornitua, bere garapena eta modernizazioa modu orekatu eta iraunkorrean bermatu ahal izateko.

Horretarako, Liburutegien Zerbitzuko 2003-2007 memorietan bildutako ebaluazioak hartzen ditu abiapuntu gisara, alegia, liburutegien sistemarena eta liburutegi bakoitzarena, eskura dauden baliabideena eta emandako zerbitzuarena; horietan oinarrituta, liburutegien sistema eskualdean artikulatzen da, eta, ondoren, populazioaren eta eskaeraren arabera hierarkizatzen da, liburutegi publikoaren tipologiaren arabera.

Irakurketaren Mapan liburutegi zerbitzuaren oinarrizko zerbitzuak ezartzen dira, bai eta liburutegi publikoaren zerbitzuak eskatzen dituen baldintza teknikoak ere, eta, azkenik, liburutegiek emandako zerbitzua ebaluatzeko irizpideak finkatzen dira. Hortik ateratzen den diagnostikoak balio beharko du zerbitzuaren tipologia aldatzeko, beharrezkoa bada, eta behar diren baliabideez hornitzeko.

Nolanahi ere, Irakurketaren Maparen proposamenak egokitu beharko dira, Nafarroako Gobernuaren eta kasuan kasuko toki entitateen aurrekontu-ahalmenaren arabera.

## Oinarriak (legezkoak eta teknikoak)

### Aurrekariak

Nafarroako liburutegi publikoen antolaketarako eta hierarkizaziorako proiektua[2].

Liburutegi arloan erakunde publiko edo pribatuekin sinatutako lankidetza eta laguntza-hitzarmenak, haiekin batera, elkarlanean, liburua eta irakurketa sustatzeko[3].

Nafarroako Liburutegi Publikoen eredua, Azterketa eta ekiteko proposamenak[4].

### Lege esparrua.

32/2002 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako liburutegi sistema arautzen duena[5].

---

[2] Iruña, Hezkuntza eta Kultura Departamentua, 1984 Barneko agiria.

[3] Nafarroako Aldizkari Ofiziala (NAO), 127. zk., 1985-X-21.

[4] Iruña, Kultura Zuzendaritza Nagusia eta Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusia, 1999. Barneko agiria.

[5] Nafarroako Aldizkari Ofiziala (NAO), 142. zk., 2002-XI-25.

## Eginkizuna

Liburutegi publikoak bitarteko bat dira, zeinaren bidez botere publikoek aukera ematen baitiete herritar guztiei informazioa eskuratzeko, hezkuntzarako eta kulturarako eskubidea egiazki gauzatzeko, Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartearen testuinguruan[6].

Edozein herritarrek erabiltzen ahalko du liburutegi publikoaren zerbitzua, nongoa den edo non bizi den kontuan hartu gabe, eta langile espezializatuek atendituko dute, herritarren beharretarako egokiak diren zerbitzu-orduetan.

## Ikuspegia

Nafarroako liburutegi publikoek begiz joa dute kulturaren eskurapenaren demokratizazioa, prestakuntza, informazioa, ezagutza eta aisialdi sortzailea bermatzea herriz herri, kasuan kasuko udalak eta Foru Administrazioak eman behar dituzten baliabide egokiak erabiliz, bi-biena baita betebehar honen gaineko erantzukizuna.

[6] 10/2007 Legea, ekainaren 22koa, irakurketari, liburuari eta liburutegiei buruzkoa, 13.1 artikulua.

**Balioak**

Irakurketari, liburuari eta liburutegiei buruzko ekainaren 22ko 10/2007 Legean zehaztutakoan oinarrituz, honako hauek dira Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren printzipioak eta balioak:

a) Askatasun intelektuala, informazioa eskura izatea eta jabetza intelektualeko eskubideak errespetatzea.

b) Erabiltzaile guztien berdintasuna liburutegiko materialak, instalazioak eta zerbitzuak eskura izateko, inor baztertu gabe bere jatorri, etnia, erlijio, ideologia, sexu-genero edo joera, adin edo desgaitasunagatik, bere baliabide ekonomikoengatik, edo beste edozein gorabehera pertsonal edo sozialengatik.

c) Aniztasuna, zeinaren izenean liburutegira ekarri, zaindu eta jendearen eskura jarri beharko baita ahalik eta dokumentu gehien, gizartearen dibertsitatea eta hizkuntz aberastasuna islatuko dutenak.

d) Herritarrek bilatzen edo hartzen duten informazioa pribatua eta isilpekoa izateko duten eskubidea errespetatzea, haien datu pertsonalak babestuz legeetan ezartzen den moduan. Gauza bera kontsultatzen edo maileguan hartzen dituzten baliabideei buruz, baita eskuratu edo eskualdatzen dituztenei buruz ere.

**Eskumenak eta Administrazioa**

Liburutegi publikoa sustatu, mantendu eta garatu behar da, oinarrizko zerbitzu kultural eta soziala den aldetik, toki eta foru administrazioen baterako ekinbidearen bitartez. Baterako ekinbide horrek erantzunkidetasuna eta elkarrekiko finantzaketarako konpromisoa ditu oinarri.

Horri dagokionez, Liburutegien gaineko Foru Legearen Zioen Azalpenean garbi gelditzen da liburutegi publikoaren gaineko erantzukizuna tokiko administrazioena dela, berariazko legeria baten euskarria eduki behar duela eta funts publikoen bidez finantzatu behar dela.

Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenak aipatutako foru legearen 3. artikuluan ezartzen dira, eta 4. artikuluan toki entitateei dagozkienak. Azken artikulu horretan, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legera bidaltzen gaituzte, eta jartzen du eskumenak Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan erabiliko direla, koordinazioan, eraginkortasunean eta ezartzen diren eskumen esparruen errespetuan oinarrituta.

Foru eta udal administrazioek beren gain daukaten erantzukizuna deusetan ukatu gabe, entitate pribatuek ere sortu eta mantentzen ahalko dituzte liburutegiak, zeinak Nafarroako Liburutegi Sisteman txertatzen ahalko baitira, liburutegiaren titularraren eta Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren arteko hitzarmenaren bidez.

## Liburutegien arloko plangintzarako jarraibideak

### Abiapuntuko egoeraren azterketa

Irakurketaren Maparen jatorria Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemaren antolaketa eta funtzionamenduaren azterketan aurkituko dugu, 2003. eta 2007. urteen artean egin baitzen, xede horretarako egokitutako metodologia baliatuz, urtez urteko memorietan jasotzen den bezala.

Horretarako, Nafarroako Foru Komunitateko liburutegi publiko guztien jardueraren berri ematen duten adierazle aipagarrienak bildu eta aztertu dira, datu fidagarri eta kontrastatuak lortzeko eta, haietatik abiatuta, guztiaren diagnostikoa egiteko.

Gero, antolaketa eta koordinaziorako irizpideak finkatu dira, bai eta zerbitzu, hobekuntza eta ebaluazio-moduluak ere, horiek zehazten baitute Irakurketaren Mapa[7].

[7] Nafarroako Liburutegi Publikoak. 2003ko oroitidazkia. Iruña, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua, 2004, 136 orrialde, mapa, taula eta grafikoekin.
Nafarroako Liburutegi Publikoak. 2004ko oroitidazkia. Iruña, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua, 2005, 136 orrialde, mapa, taula eta grafikoekin.
Nafarroako Liburutegi Publikoak. 2005ko oroitidazkia. Iruña, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua, 2006, 175 orrialde, mapa, taula eta grafikoekin.
Nafarroako Liburutegi Publikoak. 2006ko oroitidazkia. Iruña, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua, 2008, kontsultagai www.navarra.es mapa, taula eta grafikoekin.
Nafarroako Liburutegi Publikoak. 2007ko oroitidazkia. Iruña, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua, 2008, kontsultagai www.navarra.es mapa, taula eta grafikoekin.

## Eskualdekako antolaketa


Nafarroako liburutegi publikoak eskualdeei atxikitzen zaizkie haien jarduera koordinatzeko eta baliabideak efizientzia handiagoz erabiltzeko, hori dena Liburutegiei buruzko Foru Legearen 10.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemaren kudeaketarako irizpide nagusi hauek finkatu dira: kudeaketa eskualdeka deszentralizatzea, liburutegiaren eta bere zerbitzuen kudeaketa parte-hartzailea izatea eta ebaluazioa kontuan hartzea.

Xede hori kontuan hartuta, Foru Legearen 17. artikuluak udal eta eskualdeko liburutegiak izateko aukera aipatzen du. Horregatik, Irakurketaren Mapak liburutegi-eskualdea terminoa erabiltzen du.

Beraz, Nafarroako Foru Komunitateko liburutegi-antolaketan "eskualdea" terminoa finkatuta izanik, lurraldearen ikuspegitik haren definizioa egiteko, abiapuntu hartu dira haien antolaketa geografikoa eta historikoa, lehendik dauden liburutegien kokapena eta, azkenik, Nafarroako Gobernuak lurralde antolamendurako ezarritako irizpideak.

Irakurketaren Mapak proposatzen duen liburutegien kudeaketarako sisteman zazpi eskualde bereizten dira, ekonomia eta efizientzia irizpideetan oinarrituta. Nolanahi ere, eskualde bateko garapenak hala eskatzen badu, azter daiteke komeni ote den zati bat banantzea eskualde berri bat sortzeko.



N

**Altsasuko liburutegi-eskualdea**

Eskualde honetan bi eremu desberdin bereizten ahal ditugu. Batean, Gasteizera eta Donostiara doazen autobien bazterretan kokaturik, hazten ari den hirigune gero eta handiagoa dugu; eta bestean, bakarka eta sakabanaturik dauden mendialdeko herri txikiek osatzen dutena. Eskualde honetan, Altsasun biltzen da udalez gaindiko zerbitzuen multzo handi bat, eta hor pilatuko dira, liburutegi publikoan, liburutegi-koordinazioko zerbitzuak.

Hurrengo taulan ageri da zein herri sartzen diren eskualde honetan, 2008ko zentsuaren arabera bakoitzak duen biztanle kopurua[8], gaur egun bertan dagoen liburutegi mota eta Irakurketaren Mapak proposatzen duena, eta aipatutako zentsuan herriari esleitutako kodea, informazioa bilatu eta kontrolatzeko.

[8] Nafarroako udalerri eta kontzejuen populazioa 2008/1/1ean. Iruña, Nafarroako Estatistika Institutua, 2009.



**Altsasuko liburutegi-eskualdea**

## Gaur egungo egoera eta bertan gauzatzeko proposamena

| Altsasuko liburutegi-eskualdea<br>Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Altsasu | 7.571 | AA | EL | 010 |
| Arakil | 946 | | LZA | 025 |
| Arbizu | 1.074 | | LZA | 027 |
| Arruazu | 104 | | LZA | 037 |
| Bakaiku | 338 | | LZA | 044 |
| Ergoiena | 417 | | LZA | 091 |
| Etxarri Aranatz | 2.458 | B | UL | 084 |
| Irañeta | 161 | | LZA | 127 |
| Iturmendi | 388 | | LZA | 130 |
| Lakuntza | 1.168 | C | IA | 138 |
| Olatzagutia | 1.687 | B | UL | 189 |
| Uharte Arakil | 790 | | LZA | 123 |

| Altsasuko liburutegi-eskualdea<br>Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Urdiain | 693 | C | IA | 240 |
| Ziordia | 404 | C | IA | 073 |
| **Guztira** | **18.199** | | | |

Arestian esana dago Altsasuko eskualdearen ezaugarri bat dela bi eremu desberdin izatea banaketa demografikoari dagokionez. Haietako lehenbizikoan nolabaiteko kontzentrazioa dugu, eta Sakanako industrian oinarritutako ekonomia da nagusi, Arabarekin nahiz Gipuzkoarekin harremanetan. Bigarrenean, mendialdean bakarka eta sakabanaturik hedatzen diren herri txikiak ditugu. Horien erdiak ez dira 500 biztanlera iristen.

| Altsasuko liburutegi-eskualdea<br>Biztanle kopurua eta herriak | |
|---|---|
| **Biztanleak** | **Biztanleria** |
| > 1.500 | 3 |
| 1.500-1.000 | 2 |
| 1.000/-500 | 3 |
| < 500 | 6 |
| **Guztira** | **14** |

Gaur egun martxan dauden sei liburutegiek biztanleriaren ehuneko 76,8 zerbitzatzen dute; 8 herri gelditzen dira liburutegi zerbitzu egonkorrik gabe, haien biztanle kopurua, batez beste, 527 da.

| Altsasuko liburutegi-eskualdea<br>Herriak eta liburutegi egonkorrak | | | |
|---|---|---|---|
| | **Liburutegiarekin** | **Liburutegirik gabe** | **Guztira** |
| **Herriak** | 6 | 8 | 14 |
| **Biztanleria** | 13.981 | 4.218 | 18.199 |
| **%** | 76,8 | 23,2 | 100,0 |

Abiapuntu gisara, eskualdeko liburutegi bat dugu, Altsasun, eta bost liburutegi egonkor, zeinetatik hiru 1.500 biztanletik beherako herrietan baitaude, Lakuntzan, Urdiainen eta Ziordian.

| **Altsasuko liburutegi-eskualdea**<br>**Liburutegi motak Egungo egoera** | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| AA | 1 |
| B | 2 |
| C | 3 |
| **Guztira** | **6** |

Irakuketaren Mapan Altsasukoa eskualdeko liburutegia izatea proposatzen da, eta udal liburutegitzat hartzea 1.500 biztanletik gora duten bi herrietakoak; horretaz gainera, Lakuntzan, Urdiainen eta Ziordian daudenak irakurketa-agentzia bezala gelditzea.


Sakabanaturik dauden zortzi herri txikietan egokiena liburutegi-zabalkunderako zerbitzuak ezartzea da, liburutegi publiko egonkorraren ordezkoak; mailegu kolektiboa, esate baterako.

| **Altsasuko liburutegi-eskualdea**<br>**Liburutegi motak Irakurketa Maparen proposamena** | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| EL | 1 |
| UL | 2 |
| IA | 3 |
| LZA | 8 |
| **Guztira** | **14** |

| Altsasuko liburutegi-eskualdea<br>Herriak eta liburutegi egonkorrak (motak) | | |
|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** |
| Altsasu | 7.571 | EL |
| Etxarri Aranatz | 2.458 | UL |
| Lakuntza | 1.168 | IA |
| Olatzagutia | 1.687 | UL |
| Urdiain | 693 | IA |
| Ziordia | 404 | IA |

## Kantauriar ibarretako liburutegi-eskualdea

Kantauriar ibarretako eskualdean, jendearen nolabaiteko kontzentrazioa dugu Bidasoaldean, bertako ekonomiaren euskarri industria eta nekazaritza izanik, eta, bestalde, sakabaneta handia Baztanen eta Bortzirietan.



**Kantauriar ibarretako liburutegi-eskualdea**

## Gaur egungo egoera eta bertan gauzatzeko proposamena

| Kantauriar ibarretako liburutegi-eskualdea<br>Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Araitz | 586 | | LZA | 020 |
| Arano | 136 | | LZA | 024 |
| Arantza | 640 | | LZA | 022 |
| Areso | 282 | | LZA | 031 |
| Basaburua | 841 | | LZA | 049 |
| **Kantauriar ibarretako liburutegi-eskualdea** | | | | |

| Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Baztan | 7.982 | A | EL | 050 |
| Bertizarana | 653 | | LZA | 054 |
| Betelu | 346 | | LZA | 055 |
| Donamaria | 429 | | LZA | 081 |
| Elgorriaga | 231 | | LZA | 087 |
| Eratsun | 165 | | LZA | 090 |
| Etxalar | 823 | | LZA | 082 |
| Ezkurra | 176 | | LZA | 102 |
| Goizueta | 800 | | LZA | 117 |
| Igantzi | 614 | | LZA | 259 |
| Imotz | 439 | | LZA | 126 |
| Ituren | 481 | | LZA | 129 |
| Beintza-Labaien | 258 | | LZA | 137 |
| Larraun | 1.027 | | LZA | 144 |
| Leitza | 2.876 | A | UL | 149 |
| Lekunberri | 1.295 | C | IA | 908 |
| Lesaka | 2.779 | A | UL | 153 |
| Oitz | 157 | | LZA | 187 |
| Saldias | 120 | | LZA | 213 |
| Doneztebe | 1.601 | C | UL | 221 |
| Sunbilla | 647 | | LZA | 226 |
| Urdazubi | 380 | | LZA | 239 |
| Urrotz | 193 | | LZA | 244 |
| Bera | 3.680 | A | UL | 250 |
| Zubieta | 314 | | LZA | 263 |
| Zugarramurdi | 225 | | LZA | 264 |
| **Guztira** | **31.176** | | | |

| Kantauriar ibarretako liburutegi-eskualdea<br>Biztanle kopurua eta herriak | |
|---|---|
| **Biztanleak** | **Biztanleria** |
| > 1.500 | 5 |
| 1.500-1.000 | 2 |
| 1.000/-500 | 8 |
| < 500 | 16 |
| **Guztira** | **31** |

Gaur egun martxan dauden sei liburutegiek biztanleriaren ehuneko 64,8 zerbitzatzen dute; 25 herri gelditzen dira liburutegi zerbitzu egonkorrik gabe, haien biztanle kopurua, batez beste, 438 da.

| Kantauriar ibarretako liburutegi-eskualdea<br>Herriak eta liburutegi egonkorrak | | | |
|---|---|---|---|
| | **Liburutegiarekin** | **Liburutegirik gabe** | **Guztira** |
| **Herriak** | 6 | 25 | 31 |
| **Biztanleria** | 20.213 | 10.963 | 31.176 |
| **%** | 64,8 | 35,2 | 100,0 |

Abiapuntu gisara, eskualdeko liburutegi bat dugu, Baztanen, eta bost liburutegi egonkor, zeinetatik bat 1.500 biztanletik beherako herri batean baitago, Lekunberrin.

| Kantauriar ibarretako liburutegi-eskualdea<br>Liburutegi motak. Egungo egoera | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| A | 4 |
| C | 2 |
| **Guztira** | **6** |

Irakuketaren Mapan Baztangoa eskualdeko liburutegia izatea proposatzen da, eta udal liburutegitzat hartzea 1.500 biztanletik gora duten lau herrietakoak; horretaz gainera, Lekunberrin dagoena irakurketa-agentzia bezala gelditzea.

Sakabanaturik dauden hogeita bost herri txikitan egokiena liburutegi-zabalkunderako zerbitzuak ezartzea da, liburutegi publiko egonkorraren ordezkoak; mailegu kolektiboa, esate baterako.

| **Kantauriar ibarretako liburutegi-eskualdea**<br>**Liburutegi motak. Irakurketa Maparen proposamena** | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| EL | 1 |
| UL | 4 |
| IA | 1 |
| LZA | 25 |
| **Guztira** | **31** |


| **Kantauriar ibarretako liburutegi-eskualdea**<br>**Herriak eta liburutegi egonkorrak (motak)** | | |
|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** |
| Baztan | 7.982 | EL |
| Leitza | 2.876 | UL |
| Lekunberri | 1.295 | IA |
| Lesaka | 2.779 | UL |
| Doneztebe | 1.601 | UL |
| Bera | 3.680 | UL |

## Lizarrako liburutegi-eskualdea

Eskualde honetan Lizarra dugu herri guztien buru eta zerbitzu-hiri, beraz, eskualdeko koordinazioak nahitaez bertako liburutegi publikoan egon behar du.

Liburutegi publiko egonkorren kopurua nahikoa da Ebro aldean, non herririk handienak biltzen baitira, bai eta ekialdeko zerrendan ere, nahiz eta bertako herriak txikiagoak izan.

Iparraldeko mendialdean eta mendebaldeko ibarretan jendegune sakabanatuak ditugu, eta zaila da bertan udal liburutegi publikoak sortzea eta martxan jartzea; beraz, inguru horietan liburutegi-zabalkunderako zerbitzuez baliatuz bermatuko da eskaintza.



**Lizarrako liburutegi-eskualdea**

## Gaur egungo egoera eta bertan gauzatzeko proposamena

| Lizarrako liburutegi-eskualdea<br>Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Abaigar | 103 | | LZA | 001 |
| Abartzuza | 584 | | LZA | 002 |
| Aberin | 351 | | LZA | 005 |
| Aguilar Kodeskoa | 108 | | LZA | 008 |
| Allin | 819 | | LZA | 011 |
| Allo | 1.075 | B | IA | 012 |
| Ameskoabarrena | 816 | | LZA | 013 |
| Antzin | 375 | | LZA | 014 |
| Andosilla | 2.899 | B | UL | 015 |
| Aranaratxe | 81 | | LZA | 021 |
| Aras | 200 | | LZA | 026 |
| Arellano | 206 | | LZA | 030 |
| Armañantzas | 66 | | LZA | 035 |
| Arroitz | 1.144 | C | IA | 036 |
| Artazu | 111 | | LZA | 039 |
| Aiegi | 1.673 | | IA | 041 |
| Azagra | 3.746 | A | UL | 042 |
| Azuelo | 48 | | LZA | 043 |
| Barbarin | 78 | | LZA | 046 |
| Bargota | 340 | | LZA | 047 |
| Cabredo | 105 | | LZA | 063 |
| Cárcar | 1.185 | | LZA | 066 |
| Zirauki | 482 | | LZA | 074 |
| Desoio | 111 | | LZA | 079 |
| Deikaztelu | 704 | | LZA | 80 |
| Busto (El) | 82 | | LZA | 061 |
| Esprontzeda | 140 | | LZA | 096 |
| Lizarra | 14.049 | AA | EL | 097 |
| Etaiu | 87 | | LZA | 099 |
| Eulate | 351 | | LZA | 100 |
| Genevilla | 97 | | LZA | 116 |
| **Lizarrako liburutegi-eskualdea** | | | | |

| Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Gesalatz | 455 | | LZA | 120 |
| Girgillao | 87 | | LZA | 121 |
| Iguzkitza | 346 | | LZA | 125 |
| Lana | 198 | | LZA | 139 |
| Lapoblación | 153 | | LZA | 141 |
| Larragoa | 117 | | LZA | 143 |
| Elizagorria | 201 | | LZA | 145 |
| Legaria | 117 | | LZA | 148 |
| Lerin | 1.877 | B | UL | 152 |
| Lezaun | 266 | | LZA | 154 |
| Lodosa | 4.878 | A | UL | 157 |
| Los Arcos | 1.294 | B | IA | 029 |
| Lukin | 142 | | LZA | 160 |
| Mañeru | 388 | C | IA | 161 |
| Marañón | 57 | | LZA | 162 |
| Mendabia | 3.840 | A | UL | 165 |
| Mendaza | 318 | | LZA | 166 |
| Metauten | 275 | | LZA | 168 |
| Mirafuentes | 48 | | LZA | 170 |
| Morentin | 142 | | LZA | 174 |
| Mues | 100 | | LZA | 175 |
| Murieta | 361 | | LZA | 177 |
| Nazar | 48 | | LZA | 182 |
| Oko | 75 | | LZA | 184 |
| Olexoa | 53 | | LZA | 190 |
| Oteitza | 969 | C | IA | 200 |
| Piedramillera | 56 | | LZA | 204 |
| Gares | 2.777 | B | UL | 206 |
| Jaitz | 114 | | LZA | 214 |
| San Adrián | 6.072 | A | UL | 215 |
| Santsol | 113 | | LZA | 219 |
| Sartaguda | 1.421 | C | IA | 223 |
| Sesma | 1.304 | C | IA | 224 |
| Sorlada | 60 | | LZA | 225 |
| **Lizarrako liburutegi-eskualdea** | | | | |

| Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Torralba del Río | 141 | | LZA | 230 |
| Torres del Río | 153 | | LZA | 231 |
| Viana | 3.759 | A | UL | 251 |
| Villamayor de Monjardín | 137 | | LZA | 255 |
| Villatuerta | 1.050 | | LZA | 257 |
| Deierri | 1.572 | | LZA | 260 |
| Zuñiga | 135 | | LZA | 265 |
| **Guztira** | **67.885** | | | |

Banaketa demografikoari dagokionez, azpimarratzekoa da Lizarrako eskualdean herrien kopurua oso handia dela, baina jende gutxi bizi dela. Izan ere, badira 1.500 biztanle baino gehiago dituzten hamaika herri (hamar gehi bat), baina ehuneko 70etan biztanleen kopurua ez da 500 lagunera iristen. Aipagarria da Deierrin gertatzen dena. Guztira 1.572 biztanle dira, 20 herritan banaturik; batez beste, 78 biztanle herri bakoitzeko.

| Lizarrako liburutegi-eskualdea<br>Biztanle kopurua eta herriak | |
|---|---|
| **Biztanleak** | **Biztanleria** |
| > 1.500 | 11 |
| 1.500-1.000 | 7 |
| 1.000-500 | 5 |
| < 500 | 49 |
| **Guztira** | **72** |

Martxan dauden 16 liburutegiek eskualdeko biztanleriaren hiru laurdenei ematen diete zerbitzua. Beraz, populazioaren ehuneko 24,1 liburutegi iraunkorrik gabe gelditzen da; hor 56 herri ditugu, eta horietan, batez beste, 293 biztanle herri bakoitzeko.

| Lizarrako liburutegi-eskualdea<br>Herriak eta liburutegi egonkorrak | | | |
|---|---|---|---|
| | **Liburutegiarekin** | **Liburutegirik gabe** | **Guztira** |
| **Herriak** | 16 | 56 | 72 |
| **Biztanleria** | 51.492 | 16.393 | 67.885 |
| **%** | 75,9 | 24,1 | 100 |

Abiapuntu gisara eskualdeko liburutegi bat dugu Lizarran, eta 1.500 biztanletik gorako zortzi herrik liburutegi iraunkor bana dute. Horietaz gainera, Allon, Arroitzen, Los Arcosen, Mañerun, Sartagudan, Sesman eta Oteitzan ere badago liburutegia; herri horiek guztiak 1.500 biztanletik beherakoak dira.

| Lizarrako liburutegi-eskualdea<br>Liburutegi motak. Egungo egoera | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| AA | 1 |
| A | 5 |
| B | 5 |
| C | 5 |
| **Guztira** | **16** |

Irakurketaren Mapak Lizarran ezartzen du eskualdeko liburutegia, eta udal liburutegi gisara uzten ditu 1.500 biztanletik gorako zortzi herrietan daudenak. Zortzi irakurketa-agentzia proposatzen ditu (horietatik zazpi lehendik badaude), eta gainerako herrientzat liburutegi-zabalkunderako sistemak ezartzen ditu.

Sistema honek abantailak ekar ditzake, badirelako nabarmen hazteko esperantza handirik gabeko herri txiki anitz, ibarretan banatuak, eta haiei zerbitzu ematea errazago izanen delako; esate baterako, horra hor Ameskoabarrena eta Ameskoagoiena, Berrotza, Kodes aldea, Allin edo Deierri.

| Lizarrako liburutegi-eskualdea<br>Liburutegi motak. Irakurketa Maparen proposamena | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| EL | 1 |
| UL | 8 |
| IA | 8 |
| LZA | 55 |
| **Guztira** | **72** |

| Lizarrako liburutegi-eskualdea<br>Herriak eta liburutegi egonkorrak (motak) | | |
|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** |
| Allo | 1.075 | IA |
| Andosilla | 2.899 | UL |
| Arroitz | 1.144 | IA |
| Aiegi | 1.673 | IA |
| Azagra | 3.746 | UL |
| Lizarra | 14.049 | EL |
| Lerin | 1.877 | UL |
| Lodosa | 4.878 | UL |
| Los Arcos | 1.294 | IA |
| Mañeru | 388 | IA |
| Mendabia | 3.840 | UL |
| Oteitza | 969 | IA |
| Gares | 2.777 | UL |
| San Adrián | 6.072 | UL |
| Sartaguda | 1.421 | IA |
| Sesma | 1.304 | IA |
| Viana | 3.759 | UL |


**Iruñeko liburutegi-eskualdea**

Hiriburuan eta bera inguratzen duten hiriguneetan biltzen dira Foru Komunitateko biztanleen erdiak. Eta egoera horrek iraunkortzeko bidea darama, hirian auzo berriak sortzen ari baitira (horra hor Buztintxuri edo Lezkairu), eta, aldi berean, XX. mendearen bukaera arte apenas jenderik bizi ez zen zenbait nekazari-herri txiki hazi baitira, bizitegi-eremu, merkataritzagune, zerbitzugune edo industrialde bihurtzeko. Bilakaera horren adibide ditugu Antsoain, Artika, Barañain, Beriain, Berriozar, Burlata, Uharte, Noain, Orkoien, Eguesibar (Altzuza, Gorraitz, Olatz), Atarrabia eta Zizur Nagusia.

Bestalde, Iruñeko hiri-sarea erabat berritu da azken urteotan, eta liburutegi berriak ireki dira San Pedron (2001ean), Yamaguchin (2002), Civicanen (2003), Txantrean (2005), Arrosadian (2005ean berritua), Sanduzelain (2006), Mendillorrin (2006) eta Iturraman (2007).

Hiriburuko liburutegi-horniduren gailurra Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka martxan jartzearekin lortuko da. Zentro horrek sistema osoa koordinatuko du, baina, horretaz gainera, liburutegi publikoaren zerbitzua ere eskainiko du, bereziki Iruñeko Mendebaldea auzoari eta Barañaini begira. Horretarako, 3.000 metro karratutik gorako azalera izanen du, eta bertan mailegurako liburutegia eta mediateka, hemeroteka, haur liburutegia, erakusketa aretoa eta ekitaldi aretoa aurkituko ditugu.

Eskualdeko liburutegien koordinazioa, eraginkortasuna kontuan hartuz, "Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka" zentroan eginen da. Bertan bilduko dira Foru Administrazioak eginkizun horretarako dituen zerbitzu guztiak.



**Iruñeko liburutegi-eskualdea**

## Gaur egungo egoera eta bertan gauzatzeko proposamena

| Iruñeko liburutegi-eskualdea<br>Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Adios | 176 | | LZA | 007 |
| Antsoain | 10.340 | A | UL | 016 |
| Anue | 374 | | LZA | 017 |
| Añorbe | 508 | C | IA | 018 |
| Aranguren | 6.820 | | | 023 |
| Mutiloagoiti (Aranguren) | | A | UL | 023 |
| Atetz | 249 | | LZA | 040 |
| Barañain | 22.193 | AA | HLZ | 901 |
| Beraskoain | 121 | | LZA | 052 |
| Beriain | 3.536 | B | UL | 905 |
| **Iruñeko liburutegi-eskualdea** | | | | |

| Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Berriobeiti | 3.615 | | | 902 |
| Artika (Berriobeiti) | | C | UL | 902 |
| Berriozar | 8.899 | A | UL | 903 |
| Bidaurreta | 135 | | LZA | 253 |
| Biurrun-Olkotz | 209 | | LZA | 056 |
| Burlata | 18.504 | AA | UL | 060 |
| Zizur | 2.838 | | | 076 |
| Zizur Txikia (Zizur) | | | UL | 076 |
| Ziritza | 112 | | LZA | 075 |
| Etxarri | 68 | | LZA | 083 |
| Eguesibar | 9.137 | | | 086 |
| Olatz (Eguesibar) | | C | UL | 086 |
| Sarriguren (Eguesibar) | | | UL | 086 |
| Eneritz | 295 | | LZA | 089 |
| Esteribar | 2.017 | | LZA | 098 |
| Etxauri | 567 | | LZA | 085 |
| Ezkabarte | 1.637 | | | 101 |
| Arre (Ezkabarte) | | | UL | 101 |
| Galar | 1.568 | | LZA | 109 |
| Goñerri | 185 | | LZA | 118 |
| Uharte | 5.505 | A | UL | 122 |
| Ibargoiti | 249 | | LZA | 124 |
| Irurtzun | 2.248 | B | UL | 904 |
| Itza | 910 | | LZA | 131 |
| Itzagaondoa | 179 | | LZA | 132 |
| Txulapain | 543 | | LZA | 136 |
| Lantz | 112 | | LZA | 140 |
| Legarda | 106 | | LZA | 147 |
| Elo | 469 | | LZA | 172 |
| Muruzabal | 295 | | LZA | 180 |
| Noain Elortzibar | 6.222 | A | UL | 088 |
| Obanos | 937 | C | IA | 183 |
| Odieta | 352 | | LZA | 186 |
| **Iruñeko liburutegi-eskualdea**<br>**Irakurketaren Mapa** | | | | |

| Herria | Biztanleria | Liburutegi mota | Proposamena | Kodea |
|---|---|---|---|---|
| Olaibar | 220 | | LZA | 188 |
| Ollaran | 276 | | LZA | 194 |
| Oltza Zendea | 1.543 | | LZA | 193 |
| Orkoien | 2.947 | | UL | 906 |
| Iruña | 197.275 | | | 201 |
| Iruña-Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka | | | EL | 201 |
| Iruña-Nafarroako Liburutegi Nagusia | | EL | | 201 |
| Iruña-Alde Zaharra | | | HLZ | 201 |
| Iruña-Txantrea | | AA | UL | 201 |
| Iruña-Civican | | C | UL | 201 |
| Iruña-Etxabakoitz | | A | UL | 201 |
| Iruña-Zabalgunea | | | UL | 201 |
| Iruña-Iturrama | | AA | UL | 201 |
| Iruña-Lezkairu | | | UL | 201 |
| Iruña-Mendillorri | | AA | UL | 201 |
| Iruña-Arrosadia | | AA | UL | 201 |
| Iruña-Sanduzelai | | AA | UL | 201 |
| Iruña-San Pedro | | AA | UL | 201 |
| Iruña-Yamaguchi | | AA | UL | 201 |
| Tebas-Muru Artederreta | 616 | | LZA | 228 |
| Tirapu | 57 | | LZA | 229 |
| Ukar | 150 | | LZA | 234 |
| Ultzama | 1.651 | | IA | 236 |
| Untziti | 221 | | LZA | 237 |
| Uterga | 199 | | LZA | 246 |
| Atarrabia | 10.462 | A | UL | 258 |
| Zabaltza | 212 | | LZA | 262 |
| Zizur Nagusia | 13.312 | AA | UL | 907 |
| **Guztira** | **341.371** | | | |

Alde batetik Iruña eta inguruko hiriguneak ditugu, demografikoki nagusi, eta, bestetik, eskualdeko landa-eremua, zeinean aipagarria baita bigarren bizitoki diren bizitegien bidezko urbanizazioa. Eskualdeko udal franko konposatuak dira, eta

gehienbat horrek eragiten du zentsuaren atomizazioa, eta hortik datoz liburutegi zerbitzua finkatzeko zailtasun gehigarri batzuk, baina, bestalde, ez dirudi zerbitzu-eskaintza hori lehentasunezkoa denik, herri horietako biztanleek harreman estua baitute hiriburuarekin, hartara maiz joaten baitira, eta asko han ari baitira lanean, eta han egiten baitituzte erosketak edo denbora pasatzen.

| **Iruñeko liburutegi-eskualdea**<br>**Biztanle kopurua eta herriak** | |
|---|---|
| **Biztanleak** | **Herriak** |
| > 1.500 | 21 |
| 1.500-1.000 | 0 |
| 1.000-500 | 6 |
| < 500 | 24 |
| **Guztira** | **51** |

16 herritan martxan dauden liburutegiek (Iruñekoak barne) zentsu ia osoari ematen diote zerbitzua, ehuneko 93,6ri zehazki. 35 herri gelditzen dira liburutegi egonkorraren zerbitzurik gabe; horietan, batez beste, 624 biztanle ditugu herri bakoitzeko.

| **Iruñeko liburutegi-eskualdea**<br>**Herriak eta liburutegi egonkorrak** | | | |
|---|---|---|---|
| | **Liburutegiarekin** | **Liburutegirik gabe** | **Guztira** |
| **Herriak** | 16 | 35 | 51 |
| **Biztanleria** | 319.513 | 21.858 | 341.371 |
| **%** | 93,6 | 6,4 | 100,0 |

Abiapuntu gisara, Iruñeko hiri-sistema dugu, hamar liburutegi hartzen dituena. Horietan, guztien buru Nafarroako Liburutegi Nagusia ageri da, gero badira AA motako zazpi, A motako bat —Etxabakoizkoa, jende gutxiago bizi den eremuan dagoelako— eta C motako bat, Iruña-Civicangoa, Nafarroako Kutxak kudeatzen duena hitzarmen bidez, hark sustatu eta mantentzen baitu.

Haiei guztiei inguruko beste 12 gehitu behar zaizkie, metropolia osatzen duten udalerrietan zerbitzua ematen dutenak, eta horrela zabalduko dugu Iruñeko liburutegien sistema.

Azkenik beste hiru liburutegi gelditzen dira Iruñetik aparteko herrietan. Mailaz apalagoak dira, zentsua ere txikiagoa delako: Irurtzun (B mota), Añorbe (C) eta Obanos (C).

| **Iruñeko liburutegi-eskualdea**<br>**Liburutegi motak. Egungo egoera** | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| AA | 10 |
| A | 7 |
| B | 2 |
| G | 5 |
| **Guztira** | **24** |

Irakurketaren Mapak Nafarroako Liburutegi Nagusia hautatu du eskualdeko eta Iruñeko liburutegi-sistemako liburutegi zentrala izateko. Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka martxan hasten denean, gune horrek hartuko du burutza, eta Liburutegi Nagusia desagertuko da.

Iruñeko liburutegi-sistemaren garapenean, beharrezkoa baldin bada, Alde Zaharreko liburutegiak bere gain har ditzake hiriko liburutegi zentralaren eginkizunak, eta orduan sistemaren koordinazioaz ere arduratuko da. Hori dena horrela da, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka eraikitzeko 2005eko irailaren 15ean sinatutako protokoloan ezarritakoaren arabera.

Nafar hiriburuaren garapenak gainditu egiten ditu udalerriaren mugak eta metropolia eratzen du, eta herritarrek bertan eskaintzen diren zerbitzuak erabiltzen dituzte, kontuan hartu gabe nongoak diren eta zein udalerrik eskaintzen dituen. Horixe gertatzen da liburutegi publikoen zerbitzuarekin ere; eta Irakurketa Maparen

proposamenean Iruñeko liburutegi-eskualdea ageri da udalez gaindiko eremua hartzen duen hiri-multzo bat bezala.

Baldintza horietan oinarriturik, Irakurketaren Mapak 11 udal liburutegi aurreikusten ditu Iruñean, eskualdeko liburutegiaz eta Iruñeko nahiz Barañaingo balizko hiri-liburutegi zentralez gainera, Liburutegiei buruzko Legearen 17.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Abiapuntu gisara, Iruñean lehendik dauden bederatziak hartzen dira, eta horiei beste bi gehitzen zaizkie, sortu beharrekoak: Zabalgunekoa, zeinarentzat egokia izan baitaiteke Musika Kontserbatorioaren eraikina, Agoitz kalean, hustu gogo baita Mendebaldean harentzat zentro berria egin eta gero; eta Lezkairukoa, Iruñeko auzo berri horretan aurreikusita dagoen garapenak eskatzen duenean. Gisa horretan, liburutegi bakoitzeko irakurlegaien kopurua maila egokira eraman daiteke, 20.000 biztanle baino gutxiago liburutegi bakoitzeko.

Horretaz gainera, 16 udal liburutegi proposatzen dira. Lau berri sortu beharko lirateke, hiri-garapenak eskatu ahala, Zizur Txikian, Sarrigurenen (Eguesibar), Arren (Ezkabarte) eta Orkoienen.

Udal liburutegi guztiak, Irurtzungoa barne (urrunena), Iruñaren eragin-eremuaren barrenean daude, eta, beraz, haren liburutegi-sisteman txertatuak.

Irakurketa-agentziei dagokienez, Añorbekoa eta Obanoskoa dauden bezala uzten dira, eta Larraintzarren (Ultzama) beste bat egitea proposatzen da.

Gainerako 24 herrietan, berriz, kontuan hartuz eskualdean garrantzi apala dutela eta hiriburuarekin harreman estua, aipatu dugun bezala, liburutegi zerbitzua hedatzeko ordezko beste konponbide batzuk proposatzen dira.

| **Iruñeko liburutegi-eskualdea**<br>**Liburutegi motak. Irakurketa Maparen proposamena** | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |

| | |
|---|---|
| EL | 1 |
| HLZ | 2 |
| UL | 27 |
| IA | 3 |
| LZA | 31 |
| **Guztira** | **64** |

| **Iruñeko liburutegi-eskualdea**<br>**Herriak eta liburutegi egonkorrak (motak)** | | |
|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** |
| Antsoain | 10.340 | UL |
| Añorbe | 508 | IA |
| Mutiloagoiti (Aranguren) | | UL |
| Barañain | 22.193 | HLZ |
| Beriain | 3.536 | UL |
| Artika (Berriobeiti) | | UL |
| Berriozar | 8.899 | UL |
| Burlata | 18.504 | UL |
| Zizur Txikia (Zizur) | | UL |
| Olatz (Eguesibar) | | UL |
| Sarriguren (Eguesibar) | | UL |
| Arre (Ezkabarte) | | UL |
| Uharte | 5.505 | UL |
| Irurtzun | 2.248 | UL |
| Noain Elortzibar | 6.222 | UL |
| Obanos | 937 | IA |
| Orkoien | 2.947 | UL |
| Iruña-Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka | | EL |
| Iruña-Alde Zaharra | | HLZ |
| Iruña-Txantrea | | UL |
| Iruña-Civican | | UL |
| Iruña-Etxabakoitz | | UL |
| Iruña-Zabalgunea | | UL |
| **Iruñeko liburutegi-eskualdea**<br>**Herriak eta liburutegi egonkorrak (motak)** | | |


| Herria | Biztanleria | Liburutegi mota |
|---|---|---|
| Iruña-Iturrama | | UL |
| Iruña-Lezkairu | | UL |
| Iruña-Mendillorri | | UL |
| Iruña-Arrosadia | | UL |
| Iruña-Sanduzelai | | UL |
| Iruña-San Pedro | | UL |
| Iruña-Yamaguchi | | UL |
| Ultzama | 1.651 | IA |
| Atarrabia | 10.462 | UL |
| Zizur Nagusia | 13.312 | UL |

## Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdea

Eskualdea Zangozaren inguruan artikulatzen da, eta bertan dago koordinaziogunea, hiriburu historikoa eta zerbitzu-hiriburua delako.

XX. mendearen erdialdean jendez husten joan zen, baina fenomeno hori nolabait orekatu da berrikiago, berrurbanizazioa gertatu baita, asteburuetan eta oporraldian etortzen den jendeari esker.

Demografikoki sakabanaketa aurkitzen dugu hemen, eta biztanle kopurua txikia da. Hori dela eta, koordinazio zentroa Zangozan ezarri da, eta, gainerakoei zerbitzua emateko, liburutegi-zabalkunderako sistemez baliatu beharra dago.



**Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdea**

## Gaur egungo egoera eta bertan gauzatzeko proposamena

| Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdea<br>Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Abaurregaina | 141 | | LZA | 003 |
| Abaurrepea | 41 | | LZA | 004 |
| Oibar | 920 | B | IA | 009 |
| Agoitz | 2.354 | B | UL | 019 |
| Artzibar | 256 | | LZA | 028 |
| Aria | 61 | | LZA | 033 |
| Aribe | 52 | | LZA | 034 |
| Auritz | 308 | | LZA | 058 |
| Burgi | 227 | | LZA | 059 |
| Kaseda | 1.059 | B | IA | 069 |
| Gazteluberri | 19 | | LZA | 071 |
| Erroibar | | | LZA | 092 |
| Aurizberri (Erroibar) | 762 | A | IA | 092 |
| Eslaba | 142 | | LZA | 094 |
| Espartza Zaraitzu | 104 | | LZA | 095 |
| Ezkaroze | 356 | | LZA | 093 |
| Ezporogi | 56 | | LZA | 103 |
| Galipentzu | 124 | | LZA | 110 |
| Galoze | 104 | | LZA | 111 |
| Garaioa | 113 | | LZA | 112 |
| Garde | 179 | | LZA | 113 |
| Garralda | 201 | | LZA | 115 |
| Gorza | 57 | | LZA | 119 |
| Izaba | 487 | | LZA | 128 |
| Itzaltzu | 50 | | LZA | 133 |
| Jaurrieta | 214 | | LZA | 134 |
| Xabier | 112 | | LZA | 135 |
| Leatxe | 54 | | LZA | 146 |
| Lerga | 65 | | LZA | 151 |
| Ledea | 329 | | LZA | 155 |
| Lizoainibar | 293 | | LZA | 156 |
| **Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdea<br>Irakurketaren Mapa** | | | | |
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Longida | 306 | | LZA | 158 |
| Irunberri | 1.386 | B | IA | 159 |
| Nabaskoze | 195 | | LZA | 181 |
| Otsagabia | 617 | | LZA | 185 |
| Orbaizeta | 222 | | LZA | 195 |
| Orbara | 46 | | LZA | 196 |
| Orontze | 50 | | LZA | 198 |
| Orotz-Betelu | 179 | | LZA | 199 |
| Petilla Aragoi | 29 | | LZA | 203 |
| Erromantzatua | 168 | | LZA | 209 |
| Erronkari | 271 | B | IA | 210 |
| Orreaga | 26 | | LZA | 211 |
| Zare | 193 | | LZA | 212 |
| Zangoza | 5.130 | AA | EL | 216 |
| Sartze | 68 | | LZA | 222 |
| Urraulgoiti | 168 | | LZA | 241 |
| Urraulbeiti | 281 | | LZA | 242 |
| Urrotz-Hiria | 390 | | LZA | 243 |
| Urzainki | 97 | | LZA | 245 |
| Uztarroze | 199 | | LZA | 247 |
| Luzaide | 431 | | LZA | 248 |
| Bidankoze | 108 | | LZA | 252 |
| Hiriberri Aezkoa | 129 | | LZA | 256 |
| Esa | 259 | | LZA | 261 |
| **Guztira** | **20.188** | | | |

Banaketa demografikoari dagokionez, azpimarratzekoa da Zangozako eskualdean jende gutxiko herri ugari dagoela. Izan ere, haietako ehuneko 87tan biztanleen kopurua ez da 500 lagunera iristen. 1.500 biztanletik gorako bi herri besterik ez dago.

| **Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdea**<br>**Biztanle kopurua eta herriak** | |
|---|---|
| **Biztanleak** | **Herriak** |

| | |
|---|---|
| > 1.500 | 2 |
| 1.500-1.000 | 2 |
| 1.000-500 | 3 |
| < 500 | 47 |
| **Guztira** | **54** |

Gaur egun martxan dauden zazpi liburutegiek biztanleriaren ia ehuneko 60 zerbitzatzen dute; 47 herri gelditzen dira zerbitzurik gabe, haien biztanle kopurua, batez beste, 177 da.

| **Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdea**<br>**Herriak eta liburutegi egonkorrak** | | | |
|---|---|---|---|
| | **Liburutegiarekin** | **Liburutegirik gabe** | **Guztira** |
| **Herriak** | 7 | 47 | 54 |
| **Biztanleria** | 11.882 | 8.306 | 20.188 |
| **%** | 58,9 | 41,1 | 100 |

Abiapuntu gisara eskualdeko liburutegi bat dugu Zangozan, eta liburutegi iraunkorrak beste sei herritan, zeinetatik batek bakarrik baititu 1.500 biztanle baino gehiago, Agoitzek.

| **Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdea**<br>**Liburutegi motak. Egungo egoera** | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| AA | 1 |
| A | 1 |
| B | 5 |
| **Guztira** | **7** |

Irakurketaren Mapak Zangozan jartzen du eskualdeko liburutegia, Agoizkoa udal liburutegi gisara uzten du, 1.500 biztanletik gorako herria baita, eta irakurketa-agentziak proposatzen ditu gaur egun liburutegi iraunkorra duten beste bost herrientzat.

Eskualde honetan jendea izugarri sakabanaturik bizi denez, liburutegi-zabalkunderako prozedurez baliatu beharra dago nahitaez. Mailegu kolektiboa da

horietako bat, baina era mankomunatuan erabili beharko da herritarren eskaera bermatu ahal izateko.


| Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdea<br>Liburutegi motak. Irakurketa Maparen proposamena | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| EL | 1 |
| UL | 1 |
| IA | 5 |
| LZA | 47 |
| **Guztira** | **54** |

| Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdea<br>Herriak eta liburutegi egonkorrak (motak) | | |
|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Proposamena** |
| Oibar | 920 | IA |
| Agoitz | 2.354 | UL |
| Kaseda | 1.059 | IA |
| Aurizberri (Erroibar) | 762 | IA |
| Irunberri | 1.386 | IA |
| Erronkari | 271 | IA |
| Zangoza | 5.130 | EL |

## Tafallako liburutegi-eskualdea

Erdialdeko Nafarroaren erdialdean, Tafalla dugu bilgune, eta bertako liburutegiak jokatzen du eskualdeko zentro koordinatzailearen papera, bere kokapen estrategikoarengatik eta dituen azpiegiturengatik.

Eskualde txikia da, azalera aldetik, eta liburutegi egonkorrak daude herri handienetan, baina Orbaibarko mendialdean urrunen dauden herri txiki batzuetan ez dago halakorik, nahiz eta asteburuetan haietan biltzen diren biztanleen kopurua gorantz doan.



**Tafallako liburutegi-eskualdea**

## Gaur egungo egoera eta bertan gauzatzeko proposamena

| Tafallako liburutegi-eskualdea<br>Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Artaxoa | 1.721 | B | UL | 038 |
| Barasoain | 602 | | LZA | 045 |
| Beire | 322 | | LZA | 051 |
| Berbintzana | 693 | | LZA | 053 |
| Caparroso | 2.685 | B | UL | 065 |
| Zarrakaztelu | 2.606 | A | UL | 067 |
| Garinoain | 480 | | LZA | 114 |
| Larraga | 2.097 | C | UL | 142 |
| Leotz | 269 | | LZA | 150 |
| Mélida | 786 | B | IA | 164 |
| Mendigorria | 1.056 | B | IA | 167 |
| Miranda-Arga | 957 | B | IA | 171 |
| Murillo el Cuende | 643 | | LZA | 178 |
| Murillo el Fruto | 744 | | LZA | 179 |
| Erriberri | 3.607 | A | UL | 191 |
| Oloritz | 176 | | LZA | 192 |
| Orisoain | 80 | | LZA | 197 |
| Pitillas | 567 | | LZA | 205 |
| Puiu | 318 | | LZA | 207 |
| San Martin Unx | 459 | | LZA | 217 |
| Santakara | 965 | | LZA | 220 |
| Tafalla | 11.296 | AA | EL | 227 |
| Uxue | 230 | | LZA | 235 |
| Untzue | 133 | | LZA | 238 |
| **Guztira** | **33.492** | | | |

Tafallako eskualdean, badira sei herri 1.500 biztanle baino gehiago dituztenak, eta gainerako 18ek, ehuneko 75ak alegia, zentsu apalagoa dute, eta haietako bederatzik, zehazki, 500 biztanle baino gutxiago.

| Tafallako liburutegi-eskualdea<br>Biztanle kopurua eta herriak |
|---|

| Biztanleak | Herriak |
|---|---|
| > 1.500 | 6 |
| 1.500-1.000 | 1 |
| 1.000-500 | 8 |
| < 500 | 9 |
| **Guztira** | **24** |

Martxan dauden bederatzi liburutegiek biztanleriaren lau bosteni ematen diote zerbitzua; beraz, ehuneko 20 zerbitzurik gabe gelditzen dira, guztira 6.681 biztanle.

| **Tafallako liburutegi-eskualdea**<br>**Herriak eta liburutegi egonkorrak** | | | |
|---|---|---|---|
| | **Liburutegiarekin** | **Liburutegirik gabe** | **Guztira** |
| **Herriak** | 9 | 15 | 24 |
| **Biztanleria** | 26.811 | 6.681 | 33.492 |
| **%** | 80,0 | 20,0 | 100 |

Abiapuntu gisara, Tafallan eskualdeko liburutegia dugu, eta 1.500 biztanletik gorakoak diren gainerako bost herrietan liburutegi egonkorrak daude, bai eta Melidan, Mendigorrian eta Miranda-Argan ere, nahiz eta hiru horietako zentsua txikiagoa izan.

| **Tafallako liburutegi-eskualdea**<br>**Liburutegi motak. Egungo egoera** | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| AA | 1 |
| A | 2 |
| B | 5 |
| C | 1 |
| **Guztira** | **9** |

Liburutegiak antolatzeko proposamenean, Tafallan uzten da eskualdeko liburutegia, udal liburutegiak ezartzen dira 1.500 biztanletik gorako herrietan, eta irakurketa-agentziak kopuru horretatik beherako hiru herritan. Gainerako 15 herrietan liburutegi-zabalkunderako zerbitzua proposatzen da.

| Tafallako liburutegi-eskualdea<br>Liburutegi motak. Irakurketa Maparen proposamena | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| EL | 1 |
| UL | 5 |
| IA | 3 |
| LZA | 15 |
| **Guztira** | **24** |

| Tafallako liburutegi-eskualdea<br>Herriak eta liburutegi egonkorrak (motak) | | |
|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** |
| Artaxoa | 1.721 | UL |
| Caparroso | 2.685 | UL |
| Zarrakaztelu | 2.606 | UL |
| Larraga | 2.097 | UL |
| Mélida | 786 | IA |
| Mendigorria | 1.056 | IA |
| Miranda-Arga | 957 | IA |
| Erriberri | 3.607 | UL |
| Tafalla | 11.296 | EL |


**Tuterako liburutegi-eskualdea**

Eskualde honetan biztanleriaren kontzentrazioa handia da. Foru Komunitateko gainerako eskualdeekin alderatuta, hemengo herrietan jende asko bizi da. Tutera da eskualdeko hiriburu historikoa, eta gaur egun ere halaxe da; zerbitzu gehienak bertan biltzen dira, eta bertara iristea erraza da, erdialdean gelditzen delako eta komunikazio-bide ugari eta onak dituelako.

Hori dela eta, herri gehienek badute beren liburutegi publikoa, zeina oso errotua baitago herrietan eta bertako kultur giroan.

Tutera Nafarroako bigarren hiria da, biztanle kopuruaren ordenaren arabera, eta funtsez ongi hornitutako liburutegia dago bertan, oso leku egokian kokatua; ordea, hiria hazten ari da, hala fisikoki nola jende aldetik, eta beharrezkoa da beste liburutegi bat irekitzea, lekua nahikoa eduki eta jendearen eskura egonen dena, gaur egungoak dituen arazoak gainditzeko. Izan ere, oraingoa balio arkitektoniko berezia duen eraikin batean kokatua dago, eta horrek bere funtzionaltasuna baldintzatzen du.

Nolanahi ere, buru den herrian eginen da eskualdeko liburutegien koordinazioa, Tuterako liburutegian, oraingo egoitzan edo egokiagoa den beste batean.



**Tuterako liburutegi-eskualdea**

## Gaur egungo egoera eta bertan gauzatzeko proposamena

| Tuterako liburutegi-eskualdea<br>Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Ablitas | 2.559 | B | UL | 006 |
| Arguedas | 2.381 | B | UL | 032 |
| Barillas | 189 | | LZA | 048 |
| Buñuel | 2.403 | B | UL | 057 |
| Cabanillas | 1.477 | C | UL | 062 |
| Cadreita | 2.037 | C | UL | 064 |
| Cascante | 3.975 | A | UL | 068 |
| Castejón | 4.115 | A | UL | 070 |
| Cintruénigo | 7.332 | A | UL | 072 |
| Corella | 7.898 | A | UL | 077 |
| Cortes | 3.370 | A | UL | 078 |

| Tuterako liburutegi-eskualdea<br>Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Faltzes | 2.601 | B | UL | 104 |
| Fitero | 2.236 | B | UL | 105 |
| Fontellas | 903 | C | IA | 106 |
| Funes | 2.361 | B | UL | 107 |
| Fustiñana | 2.594 | B | UL | 108 |
| Martzilla | 2.762 | B | UL | 163 |
| Milagro | 3.236 | B | UL | 169 |
| Monteagudo | 1.151 | B | IA | 173 |
| Murchante | 3.549 | A | UL | 176 |
| Azkoien | 5.808 | A | UL | 202 |
| Ribaforada | 3.552 | A | UL | 208 |
| Tutera / Eskualdeko liburutegia | 33.910 | AA | EL | 232 |
| Tutera / Hiri-liburutegi zentrala | | | HLZ | 232 |
| Tulebras | 137 | | LZA | 233 |
| Valtierra | 2.542 | B | UL | 249 |
| Alesbes | 2.988 | B | UL | 254 |
| **Guztira** | **108.066** | | | |

Tuterako eskualdean 26 herri sartzen dira, eta haietatik 21ek 1.500 biztanle baino gehiago dituzte, eta guztira 24 liburutegi publiko daude.

| Tuterako liburutegi-eskualdea<br>Biztanle kopurua eta herriak | |
|---|---|
| **Biztanleak** | **Herriak** |
| > 1.500 | 21 |
| 1.500-1.000 | 2 |
| 1.000-500 | 1 |
| < 500 | 2 |
| **Guztira** | **26** |

Martxan dauden 24 liburutegiek ia populazio osoari ematen diote zerbitzua. Bi herri besterik ez dago liburutegi egonkorrik gabe: Barillas (189 biztanle) eta Tulebras (137).

| Tuterako liburutegi-eskualdea<br>Herriak eta liburutegi egonkorrak | | | |
|---|---|---|---|
| | **Liburutegiarekin** | **Liburutegirik gabe** | **Guztira** |
| **Herriak** | 24 | 2 | 26 |
| **Biztanleria** | 107.740 | 326 | 108.066 |
| **%** | 99,7 | 0,3 | 100 |

Abiapuntu gisara, Tuterako AA motako liburutegia eta 23 liburutegi egonkor ditugu; azken horietan, B motakoak nagusitzen dira (12) A motakoen aldean (8).

| Tuterako liburutegi-eskualdea<br>Liburutegi motak. Egungo egoera | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| AA | 1 |
| A | 8 |
| B | 12 |
| C | 3 |
| **Guztira** | **24** |

Liburutegiak antolatzeko proposamenean, Tuteran jartzen da eskualdeko liburutegia, baina, aldi berean, hiri-liburutegi zentral bat sortzea proposatzen da, hiriko liburutegien sarea garatzen denerako. 21 udal liburutegi uzten dira. Zentsu txikiagoko bi herrirentzat irakurketa-agentziak jartzea proposatzen da, eta beste birentzat liburutegi-zabalkunderako zerbitzuak.

| Tuterako liburutegi-eskualdea<br>Liburutegi motak. Irakurketa Maparen proposamena | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| EL | 1 |
| HLZ | 1 |
| UL | 21 |
| IA | 2 |
| LZA | 2 |
| **Guztira** | **27** |

| Tuterako liburutegi-eskualdea<br>Herriak eta liburutegi egonkorrak (motak) | | |
|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Proposamena** |
| Ablitas | 2.559 | UL |
| Arguedas | 2.381 | UL |
| Buñuel | 2.403 | UL |
| Cabanillas | 1.477 | UL |
| Cadreita | 2.037 | UL |
| Cascante | 3.975 | UL |
| Castejón | 4.115 | UL |
| Cintruénigo | 7.332 | UL |
| Corella | 7.898 | UL |
| Cortes | 3.370 | UL |
| Faltzes | 2.601 | UL |
| Fitero | 2.236 | UL |
| Fontellas | 903 | IA |
| Funes | 2.361 | UL |
| Fustiñana | 2.594 | UL |
| Martzilla | 2.762 | UL |
| Milagro | 3.236 | UL |
| Monteagudo | 1.151 | IA |
| Murchante | 3.549 | UL |
| Azkoien | 5.808 | UL |
| Ribaforada | 3.552 | UL |
| Tutera / Eskualdeko liburutegia | 33.910 | EL |
| Tutera / Hiri-liburutegi zentrala | | HLZ |
| Valtierra | 2.542 | UL |
| Alesbes | 2.988 | UL |

## Liburutegi publikoen tipologia

### Ikuspegi orokorra: Irakurketa mapa eta liburutegi motak

Jarraian datorren taulan zazpi liburutegi-eskualdeentzat proposatzen diren liburutegi-motak erakusten dira. Bertan, laburbildurik ageri da Nafarroako Foru Komunitatearentzat proposatzen den liburutegi-mapa. Bost zerbitzu-mailatan oinarrituta, hor ikusiko dugu eskualde bakoitzerako eta Nafarroa osorako aurreikusten diren zerbitzuguneak.

Horren arabera, Lizarrako eskualdean (LIZ) biltzen da zerbitzuguneen kopururik handiena, 72, zeinetatik hiru laurdenak herri txikietan baitaude eta, beraz, liburutegi-zabalkunderako sistemen bidez emanen baitzaie zerbitzua. Bigarren lekuan Iruñekoa dugu (IRU), non 64 zerbitzugune kokatzen baitira, haietako franko udal eta hiri-liburutegiak. Jarraian, Zangozako eskualdea (ZAN) dator, 54 gunerekin, eta haietatik ia ehuneko 90 zentsu txikiko herrietan, zeinentzat liburutegi-zabalkunderako zerbitzua proposatzen baita. Gero Kantauriar ibarretakoa dugu (KAN), 6 liburutegi egonkor dituena 31 herrirentzat. Tuterakoa eskualdearen egoera (TUT) bestelakoa da, 24 liburutegi egonkor proposatzen baitira, 26 herri izanik. Tafallakoan (TAF) berriz, 24 zerbitzugune aurreikusten dira, haietatik 15 biztanleria txiki egonkorreko herrietan kokatuak. Azkenik, Altsasuko eskualdeko 14 herrientzat (ALT) 6 liburutegi egonkor proposatzen dira, biztanleriaren ia ehuneko 70i zerbitzu emateko.

Zazpi lurraldeetako bakoitzean eskualdeko liburutegi bat (EL) proposatzen da, kontuan hartu gabe bertan guztira dauden liburutegien kopurua, eskualde horretan zerbitzua antolatu eta modu egokian funtzionatzen duela bermatzeko.

Hiri-liburutegi zentralen kasuan (HLZ), Liburutegiei buruzko Legearen 17.2 artikuluan ezartzen denez, 20.000 biztanletik gorako herrietan hiri-liburutegi zentral bat izanen da, eta horrek koordinatuko ditu Irakurketa Publikoaren Mapan sartzen diren

gainerako zerbitzugune edo liburutegiak. Horren haritik, arrazoi demografikoetan oinarrituta, halako bat Barañainen kokatuko da, beste bat Iruñean, eta hirugarrena Tuteran. Iruñekoaren kasuan, Alde Zaharrean liburutegirik sortuko balitz, hark baldintzatuko luke HLZ, eta Barañainen eta Tuteran, berriz, sortzeke dagoen liburutegien sareak.

68 udal liburutegiek (UL) 1.500 biztanletik gorako herriei ematen diete zerbitzua. Biztanle kopuru hori finkatu da, uste izanik horrek eskaera sozial nahikoa sortuko duela, liburutegi publiko batek normal funtzionatzeko. Hori horrela, Tuterako eskualdeko ia herri guztietan izanen lukete zerbitzua, 21 udal liburutegi proposatzen baitira; eta Iruñekoan, aldiz, 27 udal liburutegi izanik, hiriburuaren eraginpeko herri guztietan izanen lukete.

25 irakurketa-agentzia proposatzen dira (IA), haietatik 8 Lizarrako eskualdean, non gehienak gaur egun martxan dauden.

Herri txiki ugari diren lekuan liburutegi zerbitzua egokitu behar izaten da, liburutegi-zabalkunderako formulak erabiliz (mailegu kolektiboa, esate baterako). Horrelako herri franko daude Lizarrako eskualdean (55), Zangozakoan (47), Kantauriar ibarretakoan (25), Altsasukoan (8) eta Iruñekoan (31).

Liburutegiei buruzko Foru Legearen 11.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, liburutegi publikoak zerbitzu bereiziak eskainiko dizkie helduei eta haurrei, eta kontuan hartuko du Nafarroako Foru Komunitateko errealitate soziolinguistikoa, "eta zerbitzuak euskaraz eta gaztelaniaz emanen ditu, Euskararen Legeak, abenduaren 15eko 18/1986 Legeak alegia, araututakoarekin bat"

| Irakurketaren Mapa<br>Liburutegien tipologia | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Mota** | **Liburutegi-eskualdeak** | | | | | | | **Guztira** |
| | **ALT** | **KAN** | **LIZ** | **IRU** | **ZAN** | **TAF** | **TUT** | |
| **EL** | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 7 |
| **HLZ** | | | | 2 | | | 1 | 3 |
| **UL** | 2 | 4 | 8 | 27 | 1 | 5 | 21 | 68 |
| **IA** | 3 | 1 | 8 | 3 | 5 | 3 | 2 | 25 |
| **LZA** | 8 | 25 | 55 | 31 | 47 | 15 | 2 | 183 |
| **Guztira** | **14** | **31** | **72** | **64** | **54** | **24** | **27** | **286** |

## Ikuspegi orokorra: liburutegiak eta populazioa

Altsasuko eskualderako 6 liburutegi eta irakurketa-agentzia egonkor proposatzen dira Irakurketaren Mapan. Horien bidez zerbitzua biztanleriaren ehuneko 77ri iritsiko zaio. Falta den jendea batez beste 527 biztanle dituzten 8 herritan banatzen da, eta horietan liburutegi-zabalkunderako baliabideak erabili beharko dira.

| Irakurketaren Mapa<br>Altsasuko eskualdea<br>Liburutegi motak eta biztanle kopurua | | | |
|---|---|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Kopurua** | **Zerbitzu hartzaileen kopurua** | **Biztanleriaren %** |
| EL | 1 | 7.571 | 41,6 |
| UL | 2 | 4.145 | 22,8 |
| IA | 3 | 2.265 | 12,4 |
| LZA | 8 | 4.218 | 23,2 |
| **Guztira** | **14** | **18.199** | **100,0** |

Kantauriar ibarretako eskualderako 6 liburutegi eta irakurketa-agentzia egonkor proposatzen dira. Horien bidez zerbitzua biztanleriaren ehuneko 65i iritsiko zaio. Falta den jendea (ehuneko 35a) batez beste 438 biztanle dituzten 25 herritan banatzen da, eta horietan liburutegi-zabalkunderako baliabideak erabili beharko dira.

| Irakurketaren Mapa<br>Kantauriar ibarretako eskualdea<br>Liburutegi motak eta biztanle kopurua | | | |
|---|---|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Kopurua** | **Zerbitzu hartzaileen kopurua** | **Biztanleriaren %** |
| EL | 1 | 7.982 | 25,6 |
| UL | 4 | 10.936 | 35,1 |
| IA | 1 | 1.295 | 4,1 |
| LZA | 25 | 10.963 | 35,2 |
| **Guztira** | **31** | **31.176** | **100,0** |

Lizarrako eskualderako 17 liburutegi eta irakurketa-agentzia egonkor proposatzen dira. Horien bidez zerbitzua biztanleriaren ehuneko 80ri iritsiko zaio. Falta den jendea (ehuneko 20a) batez beste 267 biztanle dituzten 55 herritan banatzen da, eta horietan liburutegi-zabalkunderako baliabideak erabili beharko dira.

| Irakurketaren Mapa<br>Lizarrako eskualdea<br>Liburutegi motak eta biztanle kopurua | | | |
|---|---|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Kopurua** | **Zerbitzu hartzaileen kopurua** | **Biztanleriaren %** |
| EL | 1 | 14.049 | 20,7 |
| UL | 8 | 29.848 | 44,0 |
| IA | 8 | 9.268 | 13,6 |
| LZA | 55 | 14.720 | 21,7 |
| **Guztira** | **72** | **67.885** | **100,0** |

Iruñeko eskualdean, funtsean hiriburua dugu, non zerbitzua hamaika udal liburutegiren bidez eman behar baita, eta haiek koordinatzeko hiri-liburutegi zentral bat izanen da eskualdeko liburutegiaz gainera, haren egoitza Nafarroako Liburutegia eta Zinematekan izanik; era horretan, biztanleriaren ehuneko 60ri emanen zaio liburutegi-zerbitzua. Biztanleriaren beste heren bat Iruñaren hiri-ingurunean banatzen da, eta haientzat badira 16 udal liburutegi. Ehuneko 4 gelditzen da bestela zerbitzatzeko; hor batez beste 412 biztanle dituzten 31 herri sartzen dira, eta liburutegi-zabalkunderako prozeduren bidez emanen zaie zerbitzua.

| Irakurketaren Mapa<br>Iruñeko eskualdea<br>Liburutegi motak eta biztanle kopurua | | | |
|---|---|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Kopurua** | **Zerbitzu hartzaileen kopurua** | **Biztanleriaren %** |
| EL | 1 | | |
| HLZ | 2 | 219.468 | 64,3 |
| UL | 27 | 106.022 | 31,1 |
| IA | 3 | 3.096 | 0,9 |
| LZA | 31 | 12.785 | 3,7 |
| **Guztira** | **64** | **341.371** | **100,0** |

Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdean, Irakurketaren Mapak biztanle gutxiko eremu zabalari egin behar dio aurre. 20.000 biztanle baino gutxi gehiago dira guztira, eta horien erdiak batez beste 177 biztanle dituzten 47 herritan banatzen dira. Horientzat liburutegi-zabalkunderako zerbitzuak proposatzen dira. Zangozan egonen da eskualdeko liburutegia (EL), eta bertatik zerbitzua emanen zaio biztanleriaren laurdenari; falta den laurdenerako udal liburutegi bat eta bost irakurketa-agentzia aurreikusi dira.

| Irakurketaren Mapa<br>Zangozako eta piriniotar ibarretako eskualdea<br>Liburutegi motak eta biztanle kopurua | | | |
|---|---|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Kopurua** | **Zerbitzu hartzaileen kopurua** | **Biztanleriaren %** |
| EL | 1 | 5.130 | 25,4 |
| UL | 1 | 2.354 | 11,7 |
| IA | 5 | 4.398 | 21,8 |
| LZA | 47 | 8.306 | 41,1 |
| **Guztira** | **54** | **20.188** | **100,0** |

Tafallako eskualdeari izena ematen dion herria gailentzen da; bertan, eskualdeko liburutegi batek zentsuaren herena hartuko du. Zortzi udal liburutegi eta irakurketa-agentziek biztanleriaren ehuneko 46 zerbitzatuko dute; beraz, biztanleriaren bosten bat gelditukо da, batez beste 445 biztanle dituzten 15 herritan banaturik, eta horientzat liburutegi-zabalkunderako zerbitzua izanen da.

| Irakurketaren Mapa<br>Tafallako eskualdea<br>Liburutegi motak eta biztanle kopurua | | | |
|---|---|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Kopurua** | **Zerbitzu hartzaileen kopurua** | **Biztanleriaren %** |
| EL | 1 | 11.296 | 33,7 |
| UL | 5 | 12.716 | 38,0 |
| IA | 3 | 2.799 | 8,4 |
| LZA | 15 | 6.681 | 19,9 |
| **Guztira** | **24** | **33.492** | **100,0** |

Irakurketaren Mapak Tuteran liburutegi berri bat sortzea proposatzen du, aurreikusten den hiri-liburutegi zentralaren eginkizunak bere gain hartzeko. Horrela egiten bada, hiriko bi liburutegien artean eskualdeko populazioaren heren bati emanen zaio zerbitzua. Bestalde, 21 udal liburutegik eta bi irakurketa-agentziak falta den populazioaren ia guztiari ematen diote zerbitzua; liburutegi egonkorrik ez duten bi herritan liburutegi-zabalkunderako baliabideak ezarri beharko dira.

| Irakurketaren Mapa<br>Tuterako eskualdea<br>Liburutegi motak eta biztanle kopurua | | | |
|---|---|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Kopurua** | **Zerbitzu hartzaileen kopurua** | **Biztanleriaren %** |
| EL | 1 | 33.910 | 31,4 |
| HLZ | 1 | | |
| UL | 21 | 71.776 | 66,4 |
| IA | 2 | 2.054 | 1,9 |
| LZA | 2 | 326 | 0,3 |
| **Guztira** | **27** | **108.066** | **100,0** |

Zazpi eskualdeetako datuak bilduta. jarraian datorren taula osatu da Nafarroako Irakurketaren Maparen sintesi modura. Liburutegiak eta bakoitzeko zerbitzua hartzen duten biztanleen kopuruak batu, eta datu absolutuak eta erlatiboak atera dira.

Hiri-liburutegi zentralek biztanleriaren heren batetik gorako portzentajeari ematen diote zerbitzua; udal liburutegiak 1.500 biztanletik gorako herrietan kokatzen dira, eta, guztiak batuta, biztanleriaren 38,3 hartzen dute, eta horri gehitzen badiogu eskualdeko liburutegiek hartzen dutena (ehuneko 7,4), guztira Nafarroako Foru Komunitateko zentsuaren ia erdia ateratzen zaigu.

25 irakurketa-agentzia proposatzen dira (aurrerago zehazten dira haien ezaugarriak, kapitulu honetan bertan), eta guztien artean biztanleriaren ehuneko 4ri ematen diote zerbitzua; lehendik dauden instalazioetan kokatzen dira, baina etorkizunean bideragarriak izateko baldintzak jarri behar dira: kalitatezko zerbitzua eskaini behar dute, liburutegi-zabalkundeari lotutako beste formulek eskaintzen dutena baino hobea.

Laburbilduz, Nafarroako Irakurketaren Mapak proposatzen du liburutegi egonkorrek eman behar diotela zerbitzua biztanleriaren ehuneko 90,6ri. Liburutegi egonkorren zerbitzua hartu gabe gelditzen direnak ez dira zentsuaren ehuneko 10era iristen, eta batez beste 317 biztanle dituzten 183 herritan banatzen dira, gehienbat Nafarroako Erdialdean eta Mendialdean; egoera horretan daudenentzat, egokiena liburutegi-zabalkunderako zerbitzuak eskaintzea da.

**Irakurketaren Mapa**
**Nafarroa**
**Liburutegi motak eta biztanle kopurua**

| Liburutegi mota | Guztira | Biztanleria | Biztanleriaren % |
|---|---|---|---|
| EL | 7 | 46.028 | 7,4 |
| HLZ | 3 | 253.378 | 40,9 |
| UL | 68 | 237.797 | 38,3 |
| IA | 25 | 25.175 | 4,0 |
| LZA | 183 | 57.999 | 9,4 |
| Guztira | **286** | **620.377** | **100,0** |

## Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka (NLZ)

### Funtzionamendurako oinarriak

Liburutegiei buruzko Foru Legeak bere 16. artikuluan Nafarroako Liburutegiaren betekizuna eta eginkizunak zehazten ditu, liburutegi publikoen sistemaren liburutegietan lehena eta Nafarroako ondare bibliografikoaren arduradun gorena den aldetik. Haren betekizuna Nafarroako ekoizpen bibliografikoa bildu, gorde eta zabaltzea da, idatzizko ekoizpena, ikusizkoa, soinuzkoa eta multimedia, inprimatua edo beste edozein euskarritan dagoena barne.

Nafarroako liburutegi publikoen sistemako liburutegia nagusia den aldetik, liburutegi publikoari dagozkion eginkizunak ez ezik, honako hauek ere beteko ditu:

a) Nafarroan argitaraturiko edo ekoiztutako obra guztiak bildu, gorde eta zabaltzea. Horretarako, lege gordailua jasotzen duena da.

b) Nafarroarekin zerikusia duten obra guztiak, Nafarroari buruzkoak edo nafar egileek idatziak baina lege gordailuaren bidez sartu ez direnak, eskuratu, gorde eta zabaltzea.

c) Nafarroako bibliografia egitea.

d) Nafarroako ondare bibliografikoaren kontserbazioaz arduratu eta ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa Nafarroan prestatzeko lanak koordinatzea.

e) Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren ordezkari izatea Espainiako liburutegien sisteman eta beste liburutegi sistema batzuetan.

f) Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren funtzionamendua egokiagoa izan dadin haren esku utzitako gainerakoak.

### Oinarrizko zerbitzuak

Liburutegiei buruzko Foru Legean ezarritakoari jarraituz, zerbitzu hauek eman behar ditu, lehentasun ordena honetan:

1. Nafarroako Foru Komunitateko ondare bibliografikoa eta ikus-entzunezkoa gorde, ikertu eta zabaltzeko liburutegi eta zinematekarena.

2. Lege-gordailuarena.

3. Nafarroako liburutegi publikoen sistemako lankidetzako eta erreferentziako liburutegiarena.

4. Liburutegi publikoarena.

**Moduluak**

"Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka" zentroari buruzko proiektu betearazlean Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka ekimenean sartzen diren arloak eta zerbitzuak zehazten dira.

## Liburutegi sistema

### Eskualdeko liburutegia (EL)

Irakurketaren Mapak zazpi eskualdeetako bakoitzean eskualdeko liburutegi bat sortzea proposatzen du. Halako liburutegiak eginkizun hauek izanen ditu:

- Herriko liburutegia izatea.
- Eskualdeko liburutegiak koordinatzeko zentroa izatea.

### Funtzionamendurako oinarriak

Eskualdeko liburutegiei eta liburutegi-zabalkunderako zerbitzuei aholku eta sostengu ematea, eta haiek koordinatzea.

Nafarroako liburutegi publikoen sistemarekin koordinatzea.

Liburutegien Zerbitzuarekin koordinatzea.

Eskualdeko liburutegien jarduerak koordinatzeko zereginetan, giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketan efizientzia lortzea.

Eskualdeko erabiltzaileen beharrei erantzutea.

### Oinarrizko zerbitzuak

Eskualdeko udal liburutegiei aholku eta sostengu ematea, eta haiek koordinatzea.

Eskualdeko irakurketa-agentziei aholku eta sostengu ematea, eta haiek koordinatzea.

Eskualdeko liburutegi-zabalkunderako zerbitzuak koordinatzea.

"Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka" zentroari eskatzen zaizkion zerbitzuak kudeatzea; alegia, hala banakako erabiltzaileek nola udal liburutegiek, irakurketa-agentziek eta liburutegi-zabalkunderako zerbitzuek eskatzen dituztenak.

Udal liburutegiak ordezkatzea Liburutegien Zerbitzuaren aurrean.

Dokumentuen mailegu pertsonala eta kolektiboa.

Dokumentuak eskura jartzea.

Informazio zerbitzua (lokala eta komunitarioa).

Erabiltzaileari arreta egitea.

Katalogoak.

Ikasteko eremua.

Irakurtzeko eremua.

Hemeroteka.

Haurren eremua.

Erabiltzaileen prestakuntza.

Bertako gaien eta eskualdekoen bilduma.

Irakurketaren eta informazioaren teknologia berrien sustapena.

Liburutegien arteko mailegua.

Ikus-entzunezkoak eta multimedia.

Internet.

Kopiagintza.

**Hirietako liburutegi zentralak (HLZ)**

Liburutegien hiri-sistema[9] bat koordinatzen dute, 20.000 biztanletik gorako herrietan[10], eta, aldi berean, auzoko edo barrutiko hiri-liburutegia ere badira.

Irakurketaren Mapak horrelakoak proposatzen ditu Iruñean, Barañainen eta Tuteran. Iruñaren kasuan, baliabideak eraginkortasunez erabili behar baitira, Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka zentroa Iruñeko hiri-liburutegi zentrala ere bada, nahiz eta horretarako beste bat sortzeko aukera ere badagoen, hiriburuaren garapenarengatik (liburutegi eskaerei dagokienez) beharrezkotzat jotzen bada. Barañainen eta Tuteran hiri-liburutegi zentral bana izatea aurreikusten da, betiere bi herrietan gaur egun daukaten liburutegi sarea zabaltzen bada.

---

[9] *Sistemas urbanos de bibliotecas*. Madril, Kultura Ministerioa, 2006. Hemen: www.travesia.mcu.es/documentos

[10] 32/2002 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako liburutegi sistema arautzen duena, 17.2 artikulua

**Funtzionamendurako oinarriak**

Hiriko hiri-liburutegiei, irakurketa-agentziei eta liburutegi-zabalkunderako zerbitzuei aholku eta sostengu ematea, eta haiek koordinatzea.

Nafarroako liburutegi publikoen sistemarekin koordinatzea.

Liburutegien Zerbitzuarekin koordinatzea.

Hiriko liburutegien jarduerak koordinatzeko zereginetan, giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketan efizientzia lortzea.

**Oinarrizko zerbitzuak**

Hiriko hiri-liburutegiei eta irakurketa-agentziei aholku eta sostengu ematea, eta haiek koordinatzea.

Hiriko liburutegi-zabalkunderako zerbitzuei aholku eta sostengu ematea, eta haiek koordinatzea.

Hiriko liburutegiak ordezkatzea Liburutegien Zerbitzuaren aurrean.

Dokumentuen mailegu pertsonala eta kolektiboa.

Dokumentuak eskura jartzea.

Informazio zerbitzua (lokala eta komunitarioa).

Erabiltzaileari arreta egitea.

Katalogoak.

Ikasteko eremua.

Irakurtzeko eremua.

Hemeroteka.

Haurren eremua.

Erabiltzaileen prestakuntza.

Bertako gaien bilduma.

Irakurketaren eta informazioaren teknologia berrien sustapena.

Liburutegien arteko mailegua.

Ikus-entzunezkoak eta multimedia.

Internet.

Kopiagintza.

**Udal liburutegia (UL)**

Liburutegiei buruzko Foru Legearen 17.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, "udal liburutegiak dira tokian tokiko udalerrian edo eskualdean irakurketa publikoaren mapari jarraikiz liburutegiko gutxieneko zerbitzuak ematen dituztenak".

Behar den eskaera bermatzen duen oinarri demografikoa dute, eta erabilgarri dituzten baliabideak eta ematen dituzten zerbitzuak errentagarriak dira, hala gizartearen nola kulturaren ikuspegitik.

Udal liburutegiak herritarraren eskura egotea lortu behar du, hurbileko zerbitzu kulturala izateko, eta kalitatezko zerbitzua ematea, haren esku utzitako eginkizunetarako egokiak diren baliabideak edukitzeko; bi alderdi horien arteko oreka izan behar du.

Eskualdeko liburutegiak udalekoari sostengua ematen dio eta koordinatzen du.

Nafarroaren kasuan, jotzen da udal liburutegi baten funtzionamendu iraunkor eta eraginkorra bermaturik dagoela herri batek gutxienez 1.500 biztanle izan baldin baditu[11].

Udal liburutegiaren zerbitzua sakabanaturik dauden hainbat herriren multzo batentzat ere ezar daiteke, baldin eta guztien artean gutxienez 1.500 biztanlera iristen badira; horretarako, mankomunitate moduko kudeaketa sistemaren bat erabili, eta liburutegi zerbitzu egonkorra, kalitatezkoa eta bideragarria bermatu beharko da.

[11] Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legean, apirilaren 2koan, finkatzen du 5.000 biztanle behar direla gutxienez liburutegi publiko bat jartzeko. Gutxieneko kopuru hori ez da berdina autonomia erkidego guztietan, baina 1.000 biztanletik 5.000rako tartean dago.

**Funtzionamendurako oinarriak**

Jendeari zerbitzua ematean erabiltzen diren giza baliabideak eta baliabide materialak efizientziaz kudeatzea.

Zerbitzua eskualdeko gainerako udal liburutegiekin koordinatuko da eskualdeko liburutegiaren bitartez.

"Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka" zentroaren funtsak eskuratzeko aukera izanen da eskualdeko liburutegiaren bitartez.

Zerbitzua toki entitateekin koordinatuko da kultura sustatzeko.

**Oinarrizko zerbitzuak**

Dokumentuen mailegu pertsonala eta kolektiboa.

Dokumentuak eskura jartzea.

Informazio zerbitzua (lokala eta komunitarioa).

Erabiltzaileari arreta egitea.

Katalogoak.

Ikasteko eremua.

Irakurtzeko eremua.

Hemeroteka.

Haurren eremua.

Erabiltzaileen prestakuntza.

Bertako gaien bilduma.

Irakurketaren eta informazioaren teknologia berrien sustapena.

Liburutegien arteko mailegua.

Ikus-entzunezkoak eta multimedia.

Internet.

Kopiagintza.

Eskualdeko liburutegi zentralean eta Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka zentroan udal liburutegiko erabiltzaileentzat eskuragarri dauden baliabideak kudeatzea.

**Aukerako zerbitzuak**

Turismoko informazioa ematea. Interes berezia duten herrietan dauden liburutegientzako esperientzia pilotu bat da, bertan turismo bulegorik ez badago. Nafarroako turismo eskaintza erakusten duten argitalpenak, erabiltzaile eta bisitariei zuzendutako informazioa dakartenak, ikusgai jartzen dira. Liburutegiko langileek informazioa ematen dute, eta erakustokiko argitalpenak eguneratzeaz arduratzen dira.

Udal liburutegi guztien egoera ez da berdina, erabiltzaile kopurua aldatzen baita toki batetik bestera; ondorioz, jendearen eskaera ere aldatzen da. Hori dela eta, aurreikusten den jardunaren intentsitatearen arabera, lau zerbitzu edo hornidura-maila zehaztu dira:

1.500 biztanletik 3.000ra bitarte dituzten herrietako udal liburutegiak.
3.000 biztanletik 5.000ra bitarte dituzten herrietako udal liburutegiak.
5.000 biztanletik 15.000ra bitarte dituzten herrietako udal liburutegiak.
15.000 biztanletik gorako udal liburutegiak.

**Irakurketa-agentzia publikoa**

Liburutegi egonkorra den aldetik, bertan funts orokorra dago, kultura, hezkuntza, josteta eta gizarte maileta ko informazio zerbitzuak (baita kontsulta eta mailegukoak ere) eskaintzen dira, eta herritar guztien eskura dago, adina, arraza, sexua, erlijioa, nazionalitatea edo gizarte maila kontuan hartu gabe[12].

Koordinazioa eta sostengua jasotzen ditu eskualdeko liburutegiaren eskutik eta, haren bitartez, Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka zentrotik.

[12] 32/2002 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako liburutegi sistema arautzen duena, 11.1 artikulua

**Funtzionamendurako oinarriak**

Jendeari zerbitzua ematean erabiltzen diren giza baliabideak eta baliabide materialak efizientziaz kudeatzea.

Zerbitzua eskualdeko gainerako udal liburutegi eta irakurketa-agentziekin koordinatuko da eskualdeko liburutegiaren bitartez.

"Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka" zentroaren funtsak eskuratzeko aukera izanen da eskualdeko liburutegiaren bitartez.

**Oinarrizko zerbitzuak**

Dokumentuen mailegu pertsonala eta kolektiboa.

Dokumentuak eskura jartzea.

Informazio zerbitzua (lokala eta komunitarioa).

Erabiltzaileari arreta egitea.

Katalogoak.

Ikasteko eremua.

Irakurtzeko eremua.

Hemeroteka.

Haurren eremua.

Erabiltzaileen prestakuntza.

Bertako gaien bilduma.

Irakurketaren eta informazioaren teknologia berrien sustapena.

Liburutegien arteko mailegua.

Ikus-entzunezkoak eta multimedia.

Internet.

Hiri-liburutegi zentralean eta Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka zentroan irakurketa-agentziako erabiltzaileentzat eskuragarri dauden baliabideak kudeatzea.

Turismoko informazioa ematea.

**Liburutegi-zabalkunderako zerbitzua (LZA)**

Baliabide hau 1.000 biztanletik behera eta liburutegi iraunkorrik ez duten herriei esleitzen zaie. Liburutegiei buruzko Foru Legean honela definitzen dira liburutegi-zabalkunderako zerbitzuak.

1. Liburutegi egonkorrik ez dagoen tokietan edo zailtasunak dituzten pertsona edo taldeentzat irakurketa publikoaren zerbitzua eskaintzen dutenak dira.

2. Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak mota askotakoak izan daitezke, premien, erabiltzaileen ezaugarrien eta abarren arabera: teleliburutegia, mailegu kolektiboak...

3. Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak Nafarroako liburutegi publikoen sistemako edozein liburutegiren menpe egon daitezke, baina, betiere, eskualdeko liburutegiak koordinaturik beteko dira.

**Funtzionamendurako oinarriak**

Liburutegi-zabalkunderako zerbitzua ematean erabiltzen diren giza baliabideak eta baliabide materialak efizientziaz kudeatzea.

Zerbitzua, hasteko eta behin, eskualdeko liburutegiaren bitartez koordinatuko da.

**Lehenespenerako irizpideak**

Liburutegi-zabalkunderako zerbitzua eman behar dela lehenesteko, honako faktore hauek kontuan hartu eta aztertuko dira:

1. Zerbitzua hartu behar duen herriaren biztanle kopurua.

2. Zerbitzua hartu behar duten herriak elkartzeko formulen aplikazioa; mankomunitatea, esate baterako.

3. Zerbitzu-zirkuitu edo ibilbide batean txertatzeko aukera, horrela zerbitzua hobetu eta ematea errazten bada.

4. Diskriminazio kultural edo sozialeko faktoreak.

**Oinarrizko zerbitzuak**

Dokumentuen mailegu pertsonala eta kolektiboa.

Informazio zerbitzua (lokala eta komunitarioa).

Erabiltzaileari arreta egitea.

Katalogoak.

Erabiltzaileen prestakuntza.

Irakurketaren eta informazioaren teknologia berrien sustapena.

Ikus-entzunezkoak eta multimedia.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eskura izatea.

Irakurketaren sustapena.

Liburutegi-zabalkunderako zerbitzuak askotarikoa eta malgua izan behar du; beraz, ez da komeni manu tekniko murriztaileak finkatzea, denborarekin desegokiak bilaka daitezkeelako. Foru administrazioan eta udaletan liburutegien gaineko plangintzaz eta kudeaketaz arduratzen direnek beren gain hartu beharko dute baliabide egokiak eta bideragarriak diren baliabideak eta zerbitzu-motak definitzeko zeregina.

## Zerbitzu eta ekipamendu moduluak

Atal honetan proposatzen diren modulu edo oinarrizko baldintzak bide-erakusle gisara ematen dira, eta gaur egun dauden gune eta liburutegien errealitatearen arabera egokitu beharko dira.

Era horretan, ez dira baliorik gabe gelditu epe laburrean gerta daitezkeen eskualdeen eta herrien bilakaera sozial eta ekonomikoengatik edo aldaketa teknologikoengatik.

### Jendearentzako orduak

Garrantzitsua da erabakitzea liburutegi publikoak jendearentzat zer ordutan egon behar duen zabalik, gizarteari ematen dion zerbitzua eta funtzionamendua bermatzeko funtsezkoa. Eguneko ordutegia zabala bada, eta asteko egun gehienetan eta urte osoan irekitzen bada, erabiltzaile asko eta erabiltzaile horiek maiz joatea bermatuko da. Horretarako, Kultura Ministerioaren jarraibideek proposatzen dutenaren arabera, *"jendearentzako ordutegiaren plangintza zehazteko orduan, beharrezkoa da tokian tokiko herritarren bizimodua kontuan hartzea eta ateak ahalik eta denbora gehien egon daitezen zabalik saiatzea, gehiengo baten beharrei erantzuteko"*[13]. Beraz, Nafarroako liburutegientzat ordutegi hauek proposatzen dira:

### Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka

Astelehenetik ostiralera, goizez eta arratsaldez.
Larunbatetan, goizez.
Udan, astelehenetik ostiralera, goizez bakarrik.

---

[13] *Pautas sobre los servicios de las bibliotecas públicas*. Madril, Kultura Ministerioa, 2002. 2.5. Hemen: www.travesia.mcu.es/documentos

**Eskualdeko liburutegia**

Astelehenetik ostiralera, goizez eta arratsaldez.
Udan, astelehenetik ostiralera, goizez bakarrik.

**Hiri-liburutegi zentralak eta udal liburutegiak**

Astelehenetik ostiralera, arratsaldez.
Udan, astelehenetik ostiralera, goizez bakarrik.

**Irakurketa-agentzia**

Astelehenetik ostiralera, lau orduz gutxienez, arratsaldez. Udan, goizez.

Larunbatetan ere irekitzeko aukera izanen da, baldin eta kasuan kasuko udalarekin akordioa lortzen bada, eta langileen plantilla osatuz, beharrezkoa bada.

**Langileak**

Liburutegiei buruzko Foru Legearen 15. artikuluan ezarritakoaren arabera:

Nafarroako liburutegi publikoetako sistemako zentroek eta liburutegiek behar adina langile izan beharko dituzte, bai kopuruan, bai lanpostuak eskatzen duen kalifikazio teknikoan.

Liburutegietako langileak dagozkien lanpostuei atxikiko zaizkie (nor bere mailan eta nork bere eginkizunak dituela), tokiko entitateak eta Nafarroako Gobernuak liburutegia kudeatzeko sinatzen duten hitzarmenean (Liburutegiei buruzko Foru Legearen 4.2 artikulua) ezartzen denaren arabera.

Kultura Ministerioaren jarraibideek proposatzen dutenaren arabera: *"liburutegi guztietan liburuzaintzan espezializatutako langileek ari beharko lukete lanean. Dena dela, liburutegia zer sare edo sistematan txertatuta dagoen, liburutegietako laguntzaileak ere ari daitezke haietakoren batean zerbitzua ematen. Nolanahi ere, liburutegi horiek liburuzaintzako langile teknikoen aholkua eta sostengua izan beharko dute"*[14]. Irizpide horretan oinarrituta, Irakurketaren Mapak liburuzaintzako langile teknikoak proposatzen ditu (B edo C mailakoak) eskualdeko liburutegietarako, eta udal liburutegietan eta irakurketa-agentzietan liburutegietako langile laguntzaileak ari daitezkeela uste du (C edo D mailakoak), betiere eskualdeko liburutegietatik eta hiri-liburutegi zentraletatik emanen litzaiekeen aholkuarekin.

Jarraian zehazten dira liburutegietan ari behar duten langileen kopurua eta haien titulazioa, zeinak finkatuko baitira liburutegi bakoitzaren berariazko alderdiak kontuan hartuta: instalazioen kokapena eta hedadura, ordutegia, eskaintzen diren zerbitzuak, etab.

**Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka**

Liburuzaintzako goi mailako teknikariak, A mailakoak
Liburuzaintzako erdi mailako teknikariak, B mailakoak
Liburutegiko arduradunak, C mailakoak
Liburutegiko laguntzaileak, D mailakoak

**Eskualdeko liburutegia**

Liburuzaintzako teknikari bat, B mailakoa, edo liburutegiko arduradun bat, C mailakoa.

Liburutegiko arduradun bat, C mailakoa

[14] *Pautas sobre los servicios de las bibliotecas públicas*. Madril, Kultura Ministerioa, 2002, 5.2. Hemen: www.travesia.mcu.es/documentos

Liburutegiko arduradun bat, C mailakoa, 10.000 biztanletik gorako herrietan.

**Hiri-liburutegi zentrala**

2 liburutegiko arduradun, C mailakoak

**Udal liburutegia.**

5.000 – 15.000 biztanle:

Liburutegiko arduradun bat, C mailakoa, lanaldi osoan

> 15.000 biztanle

2/3 liburutegiko arduradun, C mailakoak

**Irakurketa-agentzia**

Liburutegiko arduraduna, C mailakoa, lanaldi laburrean aritzeko aukerarekin.

**Titulazioa, maila eta oinarrizko eginkizunak**

A maila, unibertsitateko lizentziaduna edo baliokidea: Liburutegi Zerbitzuaren zuzendaritza, atalburutzak.

B maila, unibertsitateko diplomaduna: bulegoburutzak, eskualdeko liburutegiaren eta hiri-liburutegiaren arduraduna.

C maila, batxilergoa, lanbide heziketa edo baliokidea: bulegoburutzak, liburutegiko arduraduna

D maila, lehen mailako ikasketak: liburutegiko laguntzailea

**Azalera**

Liburutegi publikoaren zerbitzuetarako ez beste deusetarako erabiltzen dena, eta, beraz, beste jarduera batzuekin partekatzen ez dena.

Jarraian datorren taulan zehazten da liburutegi publiko baten instalazioek behar luketen gutxieneko azalera eraikia, zerbitzua hartu behar duten biztanleen kopuruaren arabera.

| Irakurketaren Mapa<br>Liburutegiaren gutxieneko azalera | |
|---|---|
| **Biztanle kopurua** | **$m^2$** |
| < 1.500 | >100 |
| 1.500-3.000 | >200 |
| 3.000-5.000 | >400 |
| 5.000-15.000 | >600 |
| >15.000 | >900 |

## Liburutegiaren funtsa

Hemen liburutegiaren funtsak gutxienez beharko lukeen tamaina aipatzen da, zenbaki absolutuetan adierazia. Horrekin batera, beste zifra adierazgarriago bat ematen da: titulu kopuruaren eta biztanleriaren arteko proportzioa. Gai honi buruz IFLA/UNESCOren zuzentarauek gutxienez 2.500 obra proposatzen dute, eta Nafarroan zenbateko hori handiagoa da, 3.500 hain zuzen ere.

Titulu kopuruaren eta biztanleriaren arteko proportzioari dagokionez, zuzentarau horiek 1,5etik 2,5era bitarteko tarte bat proposatzen badute ere, Irakurketaren Mapak 3,5 ezartzen du herri txikientzat, eta herri handietan, aldiz, titulu bat pertsona bakoitzeko, uste izanik liburutegi batean gutxienez 15.000 obra baldin badira zerbitzu egokia bermatua dagoela, betiere eguneratua baldin badago eta informazioaren teknologia berrien sostengua baldin badu[15]. Honi dagokionez, Kultura Ministerioaren *Jarraibideek* baieztapen hau egiten dute: *"bilduma handia izateak ez du bilduma ona denik esan nahi; tamaina baino garrantzitsuagoak dira kalitatea eta eguneratze-maila. Liburutegi publikoen bildumetan, garrantzitsuagoa da eskurapen berrien kopurua bildumaren kopuru osoa baino"*[16]. Arrazoibide horrekin bat eginik, Irakurketaren Maparentzat ere hobe da liburutegiaren funtsa tokiko eskaerari egokitua izatea eta

[15] *Directrices IFLA/UNESCO para el desarrollo del servicio de bibliotecas públicas*. Madril, Kultura Ministerioa, 2002, 4.6.
[16] *Pautas sobre los servicios de las bibliotecas públicas*. Madril, Kultura Ministerioa, 2002, 3.4. Hemen: www.travesia.mcu.es/documentos

eguneratua egotea, eta behar bezala mantentzea, aleak eskuratu zein xahutzeko politika zorrotzaren bidez, ezen ez liburutegirako ahalik eta dokumentu gehien lortzen saiatzea.

| Liburutegien funtsen oinarrizko kopurua | | |
|---|---|---|
| **Biztanle kopurua** | **Titulu kopurua/biztanle bakoitza** | **Titulu kopuru gutxienekoa** |
| < 1.500 | 3,5 | 3.500 |
| 1.500-3.000 | 3,3 | 5.000 |
| 3.000-5.000 | 2,5 | 7.000 |
| 5.000-15.000 | 1,5 | 7.500 |
| >15.000 | 1,0 | 15.000 |

## Liburutegiaren funtsa euskarrien arabera banaturik

Jarraian heldu den taulan funts bibliografikoa euskarrien arabera banatzeko jarraibide batzuk ematen dira.

| Liburutegiaren funtsak euskarrien arabera banaturik | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Biztanleria** | **Dokumentazio funtsa ehunekotan** | | | |
| | **Liburuak** | **Ikus-entzunezkoak** | **Aldizkariak** | **Guztira** |
| < 1.500 | 85 | 14,7 | 0,3 | 100 |
| 1.500-3.000 | 85 | 14,6 | 0,4 | 100 |
| 3.000-5.000 | 80 | 19,5 | 0.5 | 100 |
| 5.000-15.000 | 80 | 19,5 | 0,5 | 100 |
| >15.000 | 80 | 19,3 | 0,7 | 100 |

## Baliabide informatikoak

Liburutegiak eta irakurketa-agentziak Nafarroako Gobernuak sustatzen duen sistema informatikoan txertatuko dira gai hauetarako gutxienez: katalogo kolektiboa, Internet, Intranet eta posta elektronikoa.

Katalogoa automatizatu beharko da interesekotzat jotzen diren 5.000 titulu baino gehiago dituzten liburutegi eta irakurketa-agentzietan; nolanahi ere, behar den xahupena egin ondotik kontatuko dira dokumentuak.

| Ekipo informatikoen oinarrizko kopurua | | | |
|---|---|---|---|
| **Biztanleria** | **Internet** | **OPAC** | **Barne lanetarako PCa** |
| >1.500 | 1 | 1 | 1 |
| 1.500-3.000 | 2 | 1 | 1 |
| 3.000-5.000 | 1/.2000 bizt.[17]. | 1 | 1 |
| 5.000-10.000 | 1/.2000 bizt. | 1 | 1/ 2 langile |
| >10.000 | 6 | 1/10.000 titulu | 1/ 2 langile |

[17] *Pautas para el acceso a Internet en las bibliotecas públicas*. Madril, Kultura Ministerioa, 2005, 3.2.

## Zerbitzuaren ebaluazioa

Ebaluazio irizpide baliagarriak eta, aldi berean, prestatzen errazak direnak ezartzeko, hiru aztergai proposatzen dira: lehena funts bibliografikoari buruzkoa da, liburutegiak herritarrei egiten dien eskaintzaren muina den aldetik; bigarrena, xahupenari buruzkoa, funtsa eguneraturik eta eskuragarri egoteko bermea den aldetik; hirugarrenak eskaintzaren emaitzak ditu jomuga, erabiltzaileen erantzuna, zeina, lehenik eta behin, egindako maileguetan ageri baita.

Azkenik, kudeaketa-hitzarmena sistematikoki berraztertzeko premia ezartzen da, era horretan areagotu nahi baita liburutegi publikoen funtzionamenduaren, garapenaren eta ebaluazioaren erantzule diren administrazio publikoen partaidetza.

### Funts bibliografikoa berretzea

Jarraian datorren taulan ageri da nola berretu behar den urtero liburutegiaren funtsa zerbitzua har dezaketen biztanleen kopuruaren arabera; gutxienekoak dira, proposamen errealista eginez. Nahitaezkoa da funtsen kopurua etengabe berretzea, erabiltzaileei informazio eguneratua eta kalitatezkoa bermatzeko; horregatik, datu hau adierazgarriagoa da funts bibliografikoaren tamaina zehazten duena baino[18].

| Liburutegiaren funtsaren urteko gutxieneko berretura | |
|---|---|
| **Biztanle kopurua** | **%** |
| < 1.500 | 5 |
| 1.500-3.000 | 4,5 |
| 3.000-5.000 | 4 |
| 5.000-15.000 | 3,5 |
| >15.000 | 3 |

[18] *Directrices IFLA/UNESCO para el desarrollo del servicio de bibliotecas públicas*. Madril, Kultura Ministerioa, 2002, 4.5.1.

## Xahupena

Xahutze lanak funts bibliografikoa berretzearekin batera joan behar du, liburutegiaren eskaintza eguneratuta egoteko, eta instalazioen tamainaren araberako funts kopurua edukitzeko, bai eta haren hazkunde etengabea eta orekatua lortzeko ere.

Horregatik guztiagatik, xahupena liburutegi automatizatuetan eginen da, Nafarroako liburutegi publikoen sistemako katalogo kolektiboan sartzen aukera duten haietan, urtean behin eta jarraian datorren taulan zehazten den moduan.

| **Liburutegiaren funtsen xahupena** | | |
|---|---|---|
| **Biztanleria** | **Funtseko tituluen kopurua** | **Xahututako tituluen %** |
| < 1.500 | >8.000 | 1 |
| 1.500-3.000 | >10.000 | 1,3 |
| 3.000-5.000 | >12.000 | 1,5 |
| 5.000-15.000 | >22.000 | 1,7 |
| >15.000 | >25.000 | 2 |

## Mailegu kopurua bizilagun bakoitzeko

Mailegu kopuruaren datuak ebaluatzen du hobekien liburutegiak egiten duen eskaintza eta erabiltzaileen artean lortzen den harrera. Jarraian datorren taulako datuek erakusten dute herri bateko zentsuaren arabera zenbat titulu mailegatzen diren biztanle bakoitzeko, urtean; gutxienekoak dira, ikuspegi errealista erabilita.

| **Urteko gutxieneko mailegu kopurua biztanle bakoitzeko** | |
|---|---|
| **Biztanleria** | **Titulu kopurua** |
| < 1.500 | 2 |
| 1.500-3.000 | 2 |
| 3.000-5.000 | 1,5 |
| 5.000-15.000 | 1,7 |
| >15.000 | 1,7 |

**Udalarekiko hitzarmena**

Tokian tokiko liburutegia kudeatzeko bertako entitatearekin sinatzen diren hitzarmenek sei urterako indarra izanen dute. Epe hori bururatzen denean, hitzarmenak aztertu eginen dira, liburutegiaren jarduera ebaluatzeko eta beste helburu nahiz zerbitzu batzuk planteatzeko, eta berriz ere sinatuko dira, bi aldeak ados badaude; hori dena, Liburutegiei buruzko Foru Legearen 4.2. artikuluan xedatutakoaren arabera.

# Aurkibidea

**Definizioa** Or.: **4**

**Xedea.** Or.: **5**

**Oinarriak (legezkoak eta teknikoak)** Or.: **6**

- **Aurrekariak.**
- **Lege esparrua.**
- **Ikuspegia.**
- **Balioak.**
- **Eskumenak eta Administrazioa.**

**Liburutegien arloko plangintzarako jarraibideak.** Or.: **10**

- **Abiapuntuko egoeraren azterketa.**

**Eskualdekako antolaketa.** Or.: **11**

- **Altsasuko liburutegi-eskualdea.**
- **Kantauriar ibarretako liburutegi-eskualdea**
- **Lizarrako liburutegi-eskualdea**
- **Iruñeko liburutegi-eskualdea**
- **Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdea**
- **Tafallako liburutegi-eskualdea**
- **Tuterako liburutegi-eskualdea**

**Liburutegi publikoen tipologia** Or.: **51**

- **Ikuspegi orokorra: irakurketa mapa eta liburutegi motak.**
- **Ikuspegi orokorra: liburutegiak eta populazioa.**

**Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka** Or.: **58**

**Funtzionamendurako oinarriak.**

**Oinarrizko zerbitzuak.**

**Moduluak.**

**Liburutegi sistema.** Or.: **60**

**Eskualdeko liburutegia.**

**Hirietako liburutegi zentralak.**

**Udal liburutegia.**

**Irakurketa-agentzia publikoa.**

**Liburutegi-zabalkunderako zerbitzua.**

**Zerbitzu eta ekipamendu moduluak.** **Or. : 69**

**Jendearentzako ordua.**

**Langileak.**

**Azalera.**

**Liburutegiaren funtsa.**

**Liburutegiaren funtsa euskarrien arabera banaturik.**

**Baliabide informatikoak.**

**Zerbitzuaren ebaluazioa.** **Or. : 76**

**Funts bibliografikoa handitzea.**

**Garbiketa.**

**Mailegu kopurua bizilagun bakoitzeko.**

**Udalarekiko hitzarmena.**

## Definizioa

Azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legeak, Nafarroako liburutegien sistema arautzen duenak[1] (hemendik aurrera Liburutegiei buruzko Foru Legea), bere 13.1. artikuluan, honela definitzen du Irakurketa Publikoaren Mapa: liburutegiko plangintzarako tresna bat da; bertan jasotzen dira Nafarroako liburutegien sistemako liburutegiak, irakurketa publikoaren premiak eta populazio guneei dagozkien zerbitzu moduluak.

Agiri honetan, Irakurketa Publikoaren Mapa osatu behar duten elementuei beste batzuk gehitzen zaizkie, hain zuzen ere liburutegi publikoen funtzionamenduaren ebaluaziorako adierazleak; horren helburua maparen errentagarritasun soziala eta kulturala ezagutzea da, eta, beste aldetik, hura hobetzeko jomuga kuantifikagarriak ezartzea.

[1] Nafarroako Aldizkari Ofiziala (NAO), 142. zk., 2002-XI-25.

## Xedea

Nafarroako Irakurketa Publikoaren Maparen xedea Nafarroako Foru Komunitatean liburutegi publikoaren zerbitzuaren plangintza estrategikoa egitea da, liburutegi publikoen sistema bat eraiki eta mantentzeko, honako ezaugarri hauekin: herritarren eskurakoa, eraginkorra, eta behar diren baliabideez hornitua, bere garapena eta modernizazioa modu orekatu eta iraunkorrean bermatu ahal izateko.

Horretarako, Liburutegien Zerbitzuko 2003-2007 memorietan bildutako ebaluazioak hartzen ditu abiapuntu gisara, alegia, liburutegien sistemarena eta liburutegi bakoitzarena, eskura dauden baliabideena eta emandako zerbitzuarena; horietan oinarrituta, liburutegien sistema eskualdean artikulatzen da, eta, ondoren, populazioaren eta eskaeraren arabera hierarkizatzen da, liburutegi publikoaren tipologiaren arabera.

Irakurketaren Mapan liburutegi zerbitzuaren oinarrizko zerbitzuak ezartzen dira, bai eta liburutegi publikoaren zerbitzuak eskatzen dituen baldintza teknikoak ere, eta, azkenik, liburutegiek emandako zerbitzua ebaluatzeko irizpideak finkatzen dira. Hortik ateratzen den diagnostikoak balio beharko du zerbitzuaren tipologia aldatzeko, beharrezkoa bada, eta behar diren baliabideez hornitzeko.

Nolanahi ere, Irakurketaren Maparen proposamenak egokitu beharko dira, Nafarroako Gobernuaren eta kasuan kasuko toki entitateen aurrekontu-ahalmenaren arabera.

## Oinarriak (legezkoak eta teknikoak)

### Aurrekariak

Nafarroako liburutegi publikoen antolaketarako eta hierarkizaziorako proiektua[2].

Liburutegi arloan erakunde publiko edo pribatuekin sinatutako lankidetza eta laguntza-hitzarmenak, haiekin batera, elkarlanean, liburua eta irakurketa sustatzeko[3].

Nafarroako Liburutegi Publikoen eredua, Azterketa eta ekiteko proposamenak[4].

### Lege esparrua.

32/2002 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako liburutegi sistema arautzen duena[5].

---

[2] Iruña, Hezkuntza eta Kultura Departamentua, 1984 Barneko agiria.

[3] Nafarroako Aldizkari Ofiziala (NAO), 127. zk., 1985-X-21.

[4] Iruña, Kultura Zuzendaritza Nagusia eta Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusia, 1999. Barneko agiria.

[5] Nafarroako Aldizkari Ofiziala (NAO), 142. zk., 2002-XI-25.

## Eginkizuna

Liburutegi publikoak bitarteko bat dira, zeinaren bidez botere publikoek aukera ematen baitiete herritar guztiei informazioa eskuratzeko, hezkuntzarako eta kulturarako eskubidea egiazki gauzatzeko, Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartearen testuinguruan[6].

Edozein herritarrek erabiltzen ahalko du liburutegi publikoaren zerbitzua, nongoa den edo non bizi den kontuan hartu gabe, eta langile espezializatuek atendituko dute, herritarren beharretarako egokiak diren zerbitzu-orduetan.

## Ikuspegia

Nafarroako liburutegi publikoek begiz joa dute kulturaren eskurapenaren demokratizazioa, prestakuntza, informazioa, ezagutza eta aisialdi sortzailea bermatzea herriz herri, kasuan kasuko udalak eta Foru Administrazioak eman behar dituzten baliabide egokiak erabiliz, bi-biena baita betebehar honen gaineko erantzukizuna.

[6] 10/2007 Legea, ekainaren 22koa, irakurketari, liburuari eta liburutegiei buruzkoa, 13.1 artikulua.

**Balioak**

Irakurketari, liburuari eta liburutegiei buruzko ekainaren 22ko 10/2007 Legean zehaztutakoan oinarrituz, honako hauek dira Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren printzipioak eta balioak:

a) Askatasun intelektuala, informazioa eskura izatea eta jabetza intelektualeko eskubideak errespetatzea.

b) Erabiltzaile guztien berdintasuna liburutegiko materialak, instalazioak eta zerbitzuak eskura izateko, inor baztertu gabe bere jatorri, etnia, erlijio, ideologia, sexu-genero edo joera, adin edo desgaitasunagatik, bere baliabide ekonomikoengatik, edo beste edozein gorabehera pertsonal edo sozialengatik.

c) Aniztasuna, zeinaren izenean liburutegira ekarri, zaindu eta jendearen eskura jarri beharko baita ahalik eta dokumentu gehien, gizartearen dibertsitatea eta hizkuntz aberastasuna islatuko dutenak.

d) Herritarrek bilatzen edo hartzen duten informazioa pribatua eta isilpekoa izateko duten eskubidea errespetatzea, haien datu pertsonalak babestuz legeetan ezartzen den moduan. Gauza bera kontsultatzen edo maileguan hartzen dituzten baliabideei buruz, baita eskuratu edo eskualdatzen dituztenei buruz ere.

**Eskumenak eta Administrazioa**

Liburutegi publikoa sustatu, mantendu eta garatu behar da, oinarrizko zerbitzu kultural eta soziala den aldetik, toki eta foru administrazioen baterako ekinbidearen bitartez. Baterako ekinbide horrek erantzunkidetasuna eta elkarrekiko finantzaketarako konpromisoa ditu oinarri.

Horri dagokionez, Liburutegien gaineko Foru Legearen Zioen Azalpenean garbi gelditzen da liburutegi publikoaren gaineko erantzukizuna tokiko administrazioena dela, berariazko legeria baten euskarria eduki behar duela eta funts publikoen bidez finantzatu behar dela.

Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenak aipatutako foru legearen 3. artikuluan ezartzen dira, eta 4. artikuluan toki entitateei dagozkienak. Azken artikulu horretan, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legera bidaltzen gaituzte, eta jartzen du eskumenak Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan erabiliko direla, koordinazioan, eraginkortasunean eta ezartzen diren eskumen esparruen errespetuan oinarrituta.

Foru eta udal administrazioek beren gain daukaten erantzukizuna deusetan ukatu gabe, entitate pribatuek ere sortu eta mantentzen ahalko dituzte liburutegiak, zeinak Nafarroako Liburutegi Sisteman txertatzen ahalko baitira, liburutegiaren titularraren eta Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren arteko hitzarmenaren bidez.

## Liburutegien arloko plangintzarako jarraibideak

### Abiapuntuko egoeraren azterketa

Irakurketaren Maparen jatorria Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemaren antolaketa eta funtzionamenduaren azterketan aurkituko dugu, 2003. eta 2007. urteen artean egin baitzen, xede horretarako egokitutako metodologia baliatuz, urtez urteko memorietan jasotzen den bezala.

Horretarako, Nafarroako Foru Komunitateko liburutegi publiko guztien jardueraren berri ematen duten adierazle aipagarrienak bildu eta aztertu dira, datu fidagarri eta kontrastatuak lortzeko eta, haietatik abiatuta, guztiaren diagnostikoa egiteko.

Gero, antolaketa eta koordinaziorako irizpideak finkatu dira, bai eta zerbitzu, hobekuntza eta ebaluazio-moduluak ere, horiek zehazten baitute Irakurketaren Mapa[7].

[7] Nafarroako Liburutegi Publikoak. 2003ko oroitidazkia. Iruña, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua, 2004, 136 orrialde, mapa, taula eta grafikoekin.
Nafarroako Liburutegi Publikoak. 2004ko oroitidazkia. Iruña, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua, 2005, 136 orrialde, mapa, taula eta grafikoekin.
Nafarroako Liburutegi Publikoak. 2005ko oroitidazkia. Iruña, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua, 2006, 175 orrialde, mapa, taula eta grafikoekin.
Nafarroako Liburutegi Publikoak. 2006ko oroitidazkia. Iruña, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua, 2008, kontsultagai www.navarra.es mapa, taula eta grafikoekin.
Nafarroako Liburutegi Publikoak. 2007ko oroitidazkia. Iruña, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua, 2008, kontsultagai www.navarra.es mapa, taula eta grafikoekin.

## Eskualdekako antolaketa


Nafarroako liburutegi publikoak eskualdeei atxikitzen zaizkie haien jarduera koordinatzeko eta baliabideak efizientzia handiagoz erabiltzeko, hori dena Liburutegiei buruzko Foru Legearen 10.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Nafarroako Liburutegi Publikoen Sistemaren kudeaketarako irizpide nagusi hauek finkatu dira: kudeaketa eskualdeka deszentralizatzea, liburutegiaren eta bere zerbitzuen kudeaketa parte-hartzailea izatea eta ebaluazioa kontuan hartzea.

Xede hori kontuan hartuta, Foru Legearen 17. artikuluak udal eta eskualdeko liburutegiak izateko aukera aipatzen du. Horregatik, Irakurketaren Mapak liburutegi-eskualdea terminoa erabiltzen du.

Beraz, Nafarroako Foru Komunitateko liburutegi-antolaketan "eskualdea" terminoa finkatuta izanik, lurraldearen ikuspegitik haren definizioa egiteko, abiapuntu hartu dira haien antolaketa geografikoa eta historikoa, lehendik dauden liburutegien kokapena eta, azkenik, Nafarroako Gobernuak lurralde antolamendurako ezarritako irizpideak.

Irakurketaren Mapak proposatzen duen liburutegien kudeaketarako sisteman zazpi eskualde bereizten dira, ekonomia eta efizientzia irizpideetan oinarrituta. Nolanahi ere, eskualde bateko garapenak hala eskatzen badu, azter daiteke komeni ote den zati bat banantzea eskualde berri bat sortzeko.



N

**Altsasuko liburutegi-eskualdea**

Eskualde honetan bi eremu desberdin bereizten ahal ditugu. Batean, Gasteizera eta Donostiara doazen autobien bazterretan kokaturik, hazten ari den hirigune gero eta handiagoa dugu; eta bestean, bakarka eta sakabanaturik dauden mendialdeko herri txikiek osatzen dutena. Eskualde honetan, Altsasun biltzen da udalez gaindiko zerbitzuen multzo handi bat, eta hor pilatuko dira, liburutegi publikoan, liburutegi-koordinazioko zerbitzuak.

Hurrengo taulan ageri da zein herri sartzen diren eskualde honetan, 2008ko zentsuaren arabera bakoitzak duen biztanle kopurua[8], gaur egun bertan dagoen liburutegi mota eta Irakurketaren Mapak proposatzen duena, eta aipatutako zentsuan herriari esleitutako kodea, informazioa bilatu eta kontrolatzeko.

[8] Nafarroako udalerri eta kontzejuen populazioa 2008/1/1ean. Iruña, Nafarroako Estatistika Institutua, 2009.



**Altsasuko liburutegi-eskualdea**

## Gaur egungo egoera eta bertan gauzatzeko proposamena

| Altsasuko liburutegi-eskualdea<br>Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Altsasu | 7.571 | AA | EL | 010 |
| Arakil | 946 | | LZA | 025 |
| Arbizu | 1.074 | | LZA | 027 |
| Arruazu | 104 | | LZA | 037 |
| Bakaiku | 338 | | LZA | 044 |
| Ergoiena | 417 | | LZA | 091 |
| Etxarri Aranatz | 2.458 | B | UL | 084 |
| Irañeta | 161 | | LZA | 127 |
| Iturmendi | 388 | | LZA | 130 |
| Lakuntza | 1.168 | C | IA | 138 |
| Olatzagutia | 1.687 | B | UL | 189 |
| Uharte Arakil | 790 | | LZA | 123 |

| Altsasuko liburutegi-eskualdea<br>Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Urdiain | 693 | C | IA | 240 |
| Ziordia | 404 | C | IA | 073 |
| **Guztira** | **18.199** | | | |

Arestian esana dago Altsasuko eskualdearen ezaugarri bat dela bi eremu desberdin izatea banaketa demografikoari dagokionez. Haietako lehenbizikoan nolabaiteko kontzentrazioa dugu, eta Sakanako industrian oinarritutako ekonomia da nagusi, Arabarekin nahiz Gipuzkoarekin harremanetan. Bigarrenean, mendialdean bakarka eta sakabanaturik hedatzen diren herri txikiak ditugu. Horien erdiak ez dira 500 biztanlera iristen.

| Altsasuko liburutegi-eskualdea<br>Biztanle kopurua eta herriak | |
|---|---|
| **Biztanleak** | **Biztanleria** |
| > 1.500 | 3 |
| 1.500-1.000 | 2 |
| 1.000/-500 | 3 |
| < 500 | 6 |
| **Guztira** | **14** |

Gaur egun martxan dauden sei liburutegiek biztanleriaren ehuneko 76,8 zerbitzatzen dute; 8 herri gelditzen dira liburutegi zerbitzu egonkorrik gabe, haien biztanle kopurua, batez beste, 527 da.

| Altsasuko liburutegi-eskualdea<br>Herriak eta liburutegi egonkorrak | | | |
|---|---|---|---|
| | **Liburutegiarekin** | **Liburutegirik gabe** | **Guztira** |
| **Herriak** | 6 | 8 | 14 |
| **Biztanleria** | 13.981 | 4.218 | 18.199 |
| **%** | 76,8 | 23,2 | 100,0 |

Abiapuntu gisara, eskualdeko liburutegi bat dugu, Altsasun, eta bost liburutegi egonkor, zeinetatik hiru 1.500 biztanletik beherako herrietan baitaude, Lakuntzan, Urdiainen eta Ziordian.

| **Altsasuko liburutegi-eskualdea**<br>**Liburutegi motak Egungo egoera** | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| AA | 1 |
| B | 2 |
| C | 3 |
| **Guztira** | **6** |

Irakuketaren Mapan Altsasukoa eskualdeko liburutegia izatea proposatzen da, eta udal liburutegitzat hartzea 1.500 biztanletik gora duten bi herrietakoak; horretaz gainera, Lakuntzan, Urdiainen eta Ziordian daudenak irakurketa-agentzia bezala gelditzea.


Sakabanaturik dauden zortzi herri txikietan egokiena liburutegi-zabalkunderako zerbitzuak ezartzea da, liburutegi publiko egonkorraren ordezkoak; mailegu kolektiboa, esate baterako.

| **Altsasuko liburutegi-eskualdea**<br>**Liburutegi motak Irakurketa Maparen proposamena** | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| EL | 1 |
| UL | 2 |
| IA | 3 |
| LZA | 8 |
| **Guztira** | **14** |

| Altsasuko liburutegi-eskualdea<br>Herriak eta liburutegi egonkorrak (motak) | | |
|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** |
| Altsasu | 7.571 | EL |
| Etxarri Aranatz | 2.458 | UL |
| Lakuntza | 1.168 | IA |
| Olatzagutia | 1.687 | UL |
| Urdiain | 693 | IA |
| Ziordia | 404 | IA |

## Kantauriar ibarretako liburutegi-eskualdea

Kantauriar ibarretako eskualdean, jendearen nolabaiteko kontzentrazioa dugu Bidasoaldean, bertako ekonomiaren euskarri industria eta nekazaritza izanik, eta, bestalde, sakabaneta handia Baztanen eta Bortzirietan.



**Kantauriar ibarretako liburutegi-eskualdea**

## Gaur egungo egoera eta bertan gauzatzeko proposamena

| Kantauriar ibarretako liburutegi-eskualdea<br>Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Araitz | 586 | | LZA | 020 |
| Arano | 136 | | LZA | 024 |
| Arantza | 640 | | LZA | 022 |
| Areso | 282 | | LZA | 031 |
| Basaburua | 841 | | LZA | 049 |
| **Kantauriar ibarretako liburutegi-eskualdea** | | | | |

| Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Baztan | 7.982 | A | EL | 050 |
| Bertizarana | 653 | | LZA | 054 |
| Betelu | 346 | | LZA | 055 |
| Donamaria | 429 | | LZA | 081 |
| Elgorriaga | 231 | | LZA | 087 |
| Eratsun | 165 | | LZA | 090 |
| Etxalar | 823 | | LZA | 082 |
| Ezkurra | 176 | | LZA | 102 |
| Goizueta | 800 | | LZA | 117 |
| Igantzi | 614 | | LZA | 259 |
| Imotz | 439 | | LZA | 126 |
| Ituren | 481 | | LZA | 129 |
| Beintza-Labaien | 258 | | LZA | 137 |
| Larraun | 1.027 | | LZA | 144 |
| Leitza | 2.876 | A | UL | 149 |
| Lekunberri | 1.295 | C | IA | 908 |
| Lesaka | 2.779 | A | UL | 153 |
| Oitz | 157 | | LZA | 187 |
| Saldias | 120 | | LZA | 213 |
| Doneztebe | 1.601 | C | UL | 221 |
| Sunbilla | 647 | | LZA | 226 |
| Urdazubi | 380 | | LZA | 239 |
| Urrotz | 193 | | LZA | 244 |
| Bera | 3.680 | A | UL | 250 |
| Zubieta | 314 | | LZA | 263 |
| Zugarramurdi | 225 | | LZA | 264 |
| **Guztira** | **31.176** | | | |

| Kantauriar ibarretako liburutegi-eskualdea<br>Biztanle kopurua eta herriak | |
|---|---|
| **Biztanleak** | **Biztanleria** |
| > 1.500 | 5 |
| 1.500-1.000 | 2 |
| 1.000/-500 | 8 |
| < 500 | 16 |
| **Guztira** | **31** |

Gaur egun martxan dauden sei liburutegiek biztanleriaren ehuneko 64,8 zerbitzatzen dute; 25 herri gelditzen dira liburutegi zerbitzu egonkorrik gabe, haien biztanle kopurua, batez beste, 438 da.

| Kantauriar ibarretako liburutegi-eskualdea<br>Herriak eta liburutegi egonkorrak | | | |
|---|---|---|---|
| | **Liburutegiarekin** | **Liburutegirik gabe** | **Guztira** |
| **Herriak** | 6 | 25 | 31 |
| **Biztanleria** | 20.213 | 10.963 | 31.176 |
| **%** | 64,8 | 35,2 | 100,0 |

Abiapuntu gisara, eskualdeko liburutegi bat dugu, Baztanen, eta bost liburutegi egonkor, zeinetatik bat 1.500 biztanletik beherako herri batean baitago, Lekunberrin.

| Kantauriar ibarretako liburutegi-eskualdea<br>Liburutegi motak. Egungo egoera | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| A | 4 |
| C | 2 |
| **Guztira** | **6** |

Irakuketaren Mapan Baztangoa eskualdeko liburutegia izatea proposatzen da, eta udal liburutegitzat hartzea 1.500 biztanletik gora duten lau herrietakoak; horretaz gainera, Lekunberrin dagoena irakurketa-agentzia bezala gelditzea.

Sakabanaturik dauden hogeita bost herri txikitan egokiena liburutegi-zabalkunderako zerbitzuak ezartzea da, liburutegi publiko egonkorraren ordezkoak; mailegu kolektiboa, esate baterako.

| **Kantauriar ibarretako liburutegi-eskualdea**<br>**Liburutegi motak. Irakurketa Maparen proposamena** | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| EL | 1 |
| UL | 4 |
| IA | 1 |
| LZA | 25 |
| **Guztira** | **31** |


| **Kantauriar ibarretako liburutegi-eskualdea**<br>**Herriak eta liburutegi egonkorrak (motak)** | | |
|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** |
| Baztan | 7.982 | EL |
| Leitza | 2.876 | UL |
| Lekunberri | 1.295 | IA |
| Lesaka | 2.779 | UL |
| Doneztebe | 1.601 | UL |
| Bera | 3.680 | UL |

## Lizarrako liburutegi-eskualdea

Eskualde honetan Lizarra dugu herri guztien buru eta zerbitzu-hiri, beraz, eskualdeko koordinazioak nahitaez bertako liburutegi publikoan egon behar du.

Liburutegi publiko egonkorren kopurua nahikoa da Ebro aldean, non herririk handienak biltzen baitira, bai eta ekialdeko zerrendan ere, nahiz eta bertako herriak txikiagoak izan.

Iparraldeko mendialdean eta mendebaldeko ibarretan jendegune sakabanatuak ditugu, eta zaila da bertan udal liburutegi publikoak sortzea eta martxan jartzea; beraz, inguru horietan liburutegi-zabalkunderako zerbitzuez baliatuz bermatuko da eskaintza.



**Lizarrako liburutegi-eskualdea**

## Gaur egungo egoera eta bertan gauzatzeko proposamena

| Lizarrako liburutegi-eskualdea<br>Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Abaigar | 103 | | LZA | 001 |
| Abartzuza | 584 | | LZA | 002 |
| Aberin | 351 | | LZA | 005 |
| Aguilar Kodeskoa | 108 | | LZA | 008 |
| Allin | 819 | | LZA | 011 |
| Allo | 1.075 | B | IA | 012 |
| Ameskoabarrena | 816 | | LZA | 013 |
| Antzin | 375 | | LZA | 014 |
| Andosilla | 2.899 | B | UL | 015 |
| Aranaratxe | 81 | | LZA | 021 |
| Aras | 200 | | LZA | 026 |
| Arellano | 206 | | LZA | 030 |
| Armañantzas | 66 | | LZA | 035 |
| Arroitz | 1.144 | C | IA | 036 |
| Artazu | 111 | | LZA | 039 |
| Aiegi | 1.673 | | IA | 041 |
| Azagra | 3.746 | A | UL | 042 |
| Azuelo | 48 | | LZA | 043 |
| Barbarin | 78 | | LZA | 046 |
| Bargota | 340 | | LZA | 047 |
| Cabredo | 105 | | LZA | 063 |
| Cárcar | 1.185 | | LZA | 066 |
| Zirauki | 482 | | LZA | 074 |
| Desoio | 111 | | LZA | 079 |
| Deikaztelu | 704 | | LZA | 80 |
| Busto (El) | 82 | | LZA | 061 |
| Esprontzeda | 140 | | LZA | 096 |
| Lizarra | 14.049 | AA | EL | 097 |
| Etaiu | 87 | | LZA | 099 |
| Eulate | 351 | | LZA | 100 |
| Genevilla | 97 | | LZA | 116 |
| **Lizarrako liburutegi-eskualdea** | | | | |

| Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Gesalatz | 455 | | LZA | 120 |
| Girgillao | 87 | | LZA | 121 |
| Iguzkitza | 346 | | LZA | 125 |
| Lana | 198 | | LZA | 139 |
| Lapoblación | 153 | | LZA | 141 |
| Larragoa | 117 | | LZA | 143 |
| Elizagorria | 201 | | LZA | 145 |
| Legaria | 117 | | LZA | 148 |
| Lerin | 1.877 | B | UL | 152 |
| Lezaun | 266 | | LZA | 154 |
| Lodosa | 4.878 | A | UL | 157 |
| Los Arcos | 1.294 | B | IA | 029 |
| Lukin | 142 | | LZA | 160 |
| Mañeru | 388 | C | IA | 161 |
| Marañón | 57 | | LZA | 162 |
| Mendabia | 3.840 | A | UL | 165 |
| Mendaza | 318 | | LZA | 166 |
| Metauten | 275 | | LZA | 168 |
| Mirafuentes | 48 | | LZA | 170 |
| Morentin | 142 | | LZA | 174 |
| Mues | 100 | | LZA | 175 |
| Murieta | 361 | | LZA | 177 |
| Nazar | 48 | | LZA | 182 |
| Oko | 75 | | LZA | 184 |
| Olexoa | 53 | | LZA | 190 |
| Oteitza | 969 | C | IA | 200 |
| Piedramillera | 56 | | LZA | 204 |
| Gares | 2.777 | B | UL | 206 |
| Jaitz | 114 | | LZA | 214 |
| San Adrián | 6.072 | A | UL | 215 |
| Santsol | 113 | | LZA | 219 |
| Sartaguda | 1.421 | C | IA | 223 |
| Sesma | 1.304 | C | IA | 224 |
| Sorlada | 60 | | LZA | 225 |
| **Lizarrako liburutegi-eskualdea** | | | | |

| Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Torralba del Río | 141 | | LZA | 230 |
| Torres del Río | 153 | | LZA | 231 |
| Viana | 3.759 | A | UL | 251 |
| Villamayor de Monjardín | 137 | | LZA | 255 |
| Villatuerta | 1.050 | | LZA | 257 |
| Deierri | 1.572 | | LZA | 260 |
| Zuñiga | 135 | | LZA | 265 |
| **Guztira** | **67.885** | | | |

Banaketa demografikoari dagokionez, azpimarratzekoa da Lizarrako eskualdean herrien kopurua oso handia dela, baina jende gutxi bizi dela. Izan ere, badira 1.500 biztanle baino gehiago dituzten hamaika herri (hamar gehi bat), baina ehuneko 70etan biztanleen kopurua ez da 500 lagunera iristen. Aipagarria da Deierrin gertatzen dena. Guztira 1.572 biztanle dira, 20 herritan banaturik; batez beste, 78 biztanle herri bakoitzeko.

| Lizarrako liburutegi-eskualdea<br>Biztanle kopurua eta herriak | |
|---|---|
| **Biztanleak** | **Biztanleria** |
| > 1.500 | 11 |
| 1.500-1.000 | 7 |
| 1.000-500 | 5 |
| < 500 | 49 |
| **Guztira** | **72** |

Martxan dauden 16 liburutegiek eskualdeko biztanleriaren hiru laurdenei ematen diete zerbitzua. Beraz, populazioaren ehuneko 24,1 liburutegi iraunkorrik gabe gelditzen da; hor 56 herri ditugu, eta horietan, batez beste, 293 biztanle herri bakoitzeko.

| Lizarrako liburutegi-eskualdea<br>Herriak eta liburutegi egonkorrak | | | |
|---|---|---|---|
| | **Liburutegiarekin** | **Liburutegirik gabe** | **Guztira** |
| **Herriak** | 16 | 56 | 72 |
| **Biztanleria** | 51.492 | 16.393 | 67.885 |
| **%** | 75,9 | 24,1 | 100 |

Abiapuntu gisara eskualdeko liburutegi bat dugu Lizarran, eta 1.500 biztanletik gorako zortzi herrik liburutegi iraunkor bana dute. Horietaz gainera, Allon, Arroitzen, Los Arcosen, Mañerun, Sartagudan, Sesman eta Oteitzan ere badago liburutegia; herri horiek guztiak 1.500 biztanletik beherakoak dira.

| Lizarrako liburutegi-eskualdea<br>Liburutegi motak. Egungo egoera | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| AA | 1 |
| A | 5 |
| B | 5 |
| C | 5 |
| **Guztira** | **16** |

Irakurketaren Mapak Lizarran ezartzen du eskualdeko liburutegia, eta udal liburutegi gisara uzten ditu 1.500 biztanletik gorako zortzi herrietan daudenak. Zortzi irakurketa-agentzia proposatzen ditu (horietatik zazpi lehendik badaude), eta gainerako herrientzat liburutegi-zabalkunderako sistemak ezartzen ditu.

Sistema honek abantailak ekar ditzake, badirelako nabarmen hazteko esperantza handirik gabeko herri txiki anitz, ibarretan banatuak, eta haiei zerbitzu ematea errazago izanen delako; esate baterako, horra hor Ameskoabarrena eta Ameskoagoiena, Berrotza, Kodes aldea, Allin edo Deierri.

| Lizarrako liburutegi-eskualdea<br>Liburutegi motak. Irakurketa Maparen proposamena | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| EL | 1 |
| UL | 8 |
| IA | 8 |
| LZA | 55 |
| **Guztira** | **72** |

| Lizarrako liburutegi-eskualdea<br>Herriak eta liburutegi egonkorrak (motak) | | |
|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** |
| Allo | 1.075 | IA |
| Andosilla | 2.899 | UL |
| Arroitz | 1.144 | IA |
| Aiegi | 1.673 | IA |
| Azagra | 3.746 | UL |
| Lizarra | 14.049 | EL |
| Lerin | 1.877 | UL |
| Lodosa | 4.878 | UL |
| Los Arcos | 1.294 | IA |
| Mañeru | 388 | IA |
| Mendabia | 3.840 | UL |
| Oteitza | 969 | IA |
| Gares | 2.777 | UL |
| San Adrián | 6.072 | UL |
| Sartaguda | 1.421 | IA |
| Sesma | 1.304 | IA |
| Viana | 3.759 | UL |


**Iruñeko liburutegi-eskualdea**

Hiriburuan eta bera inguratzen duten hiriguneetan biltzen dira Foru Komunitateko biztanleen erdiak. Eta egoera horrek iraunkortzeko bidea darama, hirian auzo berriak sortzen ari baitira (horra hor Buztintxuri edo Lezkairu), eta, aldi berean, XX. mendearen bukaera arte apenas jenderik bizi ez zen zenbait nekazari-herri txiki hazi baitira, bizitegi-eremu, merkataritzagune, zerbitzugune edo industrialde bihurtzeko. Bilakaera horren adibide ditugu Antsoain, Artika, Barañain, Beriain, Berriozar, Burlata, Uharte, Noain, Orkoien, Eguesibar (Altzuza, Gorraitz, Olatz), Atarrabia eta Zizur Nagusia.

Bestalde, Iruñeko hiri-sarea erabat berritu da azken urteotan, eta liburutegi berriak ireki dira San Pedron (2001ean), Yamaguchin (2002), Civicanen (2003), Txantrean (2005), Arrosadian (2005ean berritua), Sanduzelain (2006), Mendillorrin (2006) eta Iturraman (2007).

Hiriburuko liburutegi-horniduren gailurra Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka martxan jartzearekin lortuko da. Zentro horrek sistema osoa koordinatuko du, baina, horretaz gainera, liburutegi publikoaren zerbitzua ere eskainiko du, bereziki Iruñeko Mendebaldea auzoari eta Barañaini begira. Horretarako, 3.000 metro karratutik gorako azalera izanen du, eta bertan mailegurako liburutegia eta mediateka, hemeroteka, haur liburutegia, erakusketa aretoa eta ekitaldi aretoa aurkituko ditugu.

Eskualdeko liburutegien koordinazioa, eraginkortasuna kontuan hartuz, "Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka" zentroan eginen da. Bertan bilduko dira Foru Administrazioak eginkizun horretarako dituen zerbitzu guztiak.



**Iruñeko liburutegi-eskualdea**

## Gaur egungo egoera eta bertan gauzatzeko proposamena

| Iruñeko liburutegi-eskualdea<br>Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Adios | 176 | | LZA | 007 |
| Antsoain | 10.340 | A | UL | 016 |
| Anue | 374 | | LZA | 017 |
| Añorbe | 508 | C | IA | 018 |
| Aranguren | 6.820 | | | 023 |
| Mutiloagoiti (Aranguren) | | A | UL | 023 |
| Atetz | 249 | | LZA | 040 |
| Barañain | 22.193 | AA | HLZ | 901 |
| Beraskoain | 121 | | LZA | 052 |
| Beriain | 3.536 | B | UL | 905 |
| **Iruñeko liburutegi-eskualdea** | | | | |

| Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Berriobeiti | 3.615 | | | 902 |
| Artika (Berriobeiti) | | C | UL | 902 |
| Berriozar | 8.899 | A | UL | 903 |
| Bidaurreta | 135 | | LZA | 253 |
| Biurrun-Olkotz | 209 | | LZA | 056 |
| Burlata | 18.504 | AA | UL | 060 |
| Zizur | 2.838 | | | 076 |
| Zizur Txikia (Zizur) | | | UL | 076 |
| Ziritza | 112 | | LZA | 075 |
| Etxarri | 68 | | LZA | 083 |
| Eguesibar | 9.137 | | | 086 |
| Olatz (Eguesibar) | | C | UL | 086 |
| Sarriguren (Eguesibar) | | | UL | 086 |
| Eneritz | 295 | | LZA | 089 |
| Esteribar | 2.017 | | LZA | 098 |
| Etxauri | 567 | | LZA | 085 |
| Ezkabarte | 1.637 | | | 101 |
| Arre (Ezkabarte) | | | UL | 101 |
| Galar | 1.568 | | LZA | 109 |
| Goñerri | 185 | | LZA | 118 |
| Uharte | 5.505 | A | UL | 122 |
| Ibargoiti | 249 | | LZA | 124 |
| Irurtzun | 2.248 | B | UL | 904 |
| Itza | 910 | | LZA | 131 |
| Itzagaondoa | 179 | | LZA | 132 |
| Txulapain | 543 | | LZA | 136 |
| Lantz | 112 | | LZA | 140 |
| Legarda | 106 | | LZA | 147 |
| Elo | 469 | | LZA | 172 |
| Muruzabal | 295 | | LZA | 180 |
| Noain Elortzibar | 6.222 | A | UL | 088 |
| Obanos | 937 | C | IA | 183 |
| Odieta | 352 | | LZA | 186 |
| **Iruñeko liburutegi-eskualdea**<br>**Irakurketaren Mapa** | | | | |

| Herria | Biztanleria | Liburutegi mota | Proposamena | Kodea |
|---|---|---|---|---|
| Olaibar | 220 | | LZA | 188 |
| Ollaran | 276 | | LZA | 194 |
| Oltza Zendea | 1.543 | | LZA | 193 |
| Orkoien | 2.947 | | UL | 906 |
| Iruña | 197.275 | | | 201 |
| Iruña-Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka | | | EL | 201 |
| Iruña-Nafarroako Liburutegi Nagusia | | EL | | 201 |
| Iruña-Alde Zaharra | | | HLZ | 201 |
| Iruña-Txantrea | | AA | UL | 201 |
| Iruña-Civican | | C | UL | 201 |
| Iruña-Etxabakoitz | | A | UL | 201 |
| Iruña-Zabalgunea | | | UL | 201 |
| Iruña-Iturrama | | AA | UL | 201 |
| Iruña-Lezkairu | | | UL | 201 |
| Iruña-Mendillorri | | AA | UL | 201 |
| Iruña-Arrosadia | | AA | UL | 201 |
| Iruña-Sanduzelai | | AA | UL | 201 |
| Iruña-San Pedro | | AA | UL | 201 |
| Iruña-Yamaguchi | | AA | UL | 201 |
| Tebas-Muru Artederreta | 616 | | LZA | 228 |
| Tirapu | 57 | | LZA | 229 |
| Ukar | 150 | | LZA | 234 |
| Ultzama | 1.651 | | IA | 236 |
| Untziti | 221 | | LZA | 237 |
| Uterga | 199 | | LZA | 246 |
| Atarrabia | 10.462 | A | UL | 258 |
| Zabaltza | 212 | | LZA | 262 |
| Zizur Nagusia | 13.312 | AA | UL | 907 |
| **Guztira** | **341.371** | | | |

Alde batetik Iruña eta inguruko hiriguneak ditugu, demografikoki nagusi, eta, bestetik, eskualdeko landa-eremua, zeinean aipagarria baita bigarren bizitoki diren bizitegien bidezko urbanizazioa. Eskualdeko udal franko konposatuak dira, eta

gehienbat horrek eragiten du zentsuaren atomizazioa, eta hortik datoz liburutegi zerbitzua finkatzeko zailtasun gehigarri batzuk, baina, bestalde, ez dirudi zerbitzu-eskaintza hori lehentasunezkoa denik, herri horietako biztanleek harreman estua baitute hiriburuarekin, hartara maiz joaten baitira, eta asko han ari baitira lanean, eta han egiten baitituzte erosketak edo denbora pasatzen.

| **Iruñeko liburutegi-eskualdea**<br>**Biztanle kopurua eta herriak** | |
|---|---|
| **Biztanleak** | **Herriak** |
| > 1.500 | 21 |
| 1.500-1.000 | 0 |
| 1.000-500 | 6 |
| < 500 | 24 |
| **Guztira** | **51** |

16 herritan martxan dauden liburutegiek (Iruñekoak barne) zentsu ia osoari ematen diote zerbitzua, ehuneko 93,6ri zehazki. 35 herri gelditzen dira liburutegi egonkorraren zerbitzurik gabe; horietan, batez beste, 624 biztanle ditugu herri bakoitzeko.

| **Iruñeko liburutegi-eskualdea**<br>**Herriak eta liburutegi egonkorrak** | | | |
|---|---|---|---|
| | **Liburutegiarekin** | **Liburutegirik gabe** | **Guztira** |
| **Herriak** | 16 | 35 | 51 |
| **Biztanleria** | 319.513 | 21.858 | 341.371 |
| **%** | 93,6 | 6,4 | 100,0 |

Abiapuntu gisara, Iruñeko hiri-sistema dugu, hamar liburutegi hartzen dituena. Horietan, guztien buru Nafarroako Liburutegi Nagusia ageri da, gero badira AA motako zazpi, A motako bat —Etxabakoizkoa, jende gutxiago bizi den eremuan dagoelako— eta C motako bat, Iruña-Civicangoa, Nafarroako Kutxak kudeatzen duena hitzarmen bidez, hark sustatu eta mantentzen baitu.

Haiei guztiei inguruko beste 12 gehitu behar zaizkie, metropolia osatzen duten udalerrietan zerbitzua ematen dutenak, eta horrela zabalduko dugu Iruñeko liburutegien sistema.

Azkenik beste hiru liburutegi gelditzen dira Iruñetik aparteko herrietan. Mailaz apalagoak dira, zentsua ere txikiagoa delako: Irurtzun (B mota), Añorbe (C) eta Obanos (C).

| **Iruñeko liburutegi-eskualdea**<br>**Liburutegi motak. Egungo egoera** | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| AA | 10 |
| A | 7 |
| B | 2 |
| G | 5 |
| **Guztira** | **24** |

Irakurketaren Mapak Nafarroako Liburutegi Nagusia hautatu du eskualdeko eta Iruñeko liburutegi-sistemako liburutegi zentrala izateko. Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka martxan hasten denean, gune horrek hartuko du burutza, eta Liburutegi Nagusia desagertuko da.

Iruñeko liburutegi-sistemaren garapenean, beharrezkoa baldin bada, Alde Zaharreko liburutegiak bere gain har ditzake hiriko liburutegi zentralaren eginkizunak, eta orduan sistemaren koordinazioaz ere arduratuko da. Hori dena horrela da, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka eraikitzeko 2005eko irailaren 15ean sinatutako protokoloan ezarritakoaren arabera.

Nafar hiriburuaren garapenak gainditu egiten ditu udalerriaren mugak eta metropolia eratzen du, eta herritarrek bertan eskaintzen diren zerbitzuak erabiltzen dituzte, kontuan hartu gabe nongoak diren eta zein udalerrik eskaintzen dituen. Horixe gertatzen da liburutegi publikoen zerbitzuarekin ere; eta Irakurketa Maparen

proposamenean Iruñeko liburutegi-eskualdea ageri da udalez gaindiko eremua hartzen duen hiri-multzo bat bezala.

Baldintza horietan oinarriturik, Irakurketaren Mapak 11 udal liburutegi aurreikusten ditu Iruñean, eskualdeko liburutegiaz eta Iruñeko nahiz Barañaingo balizko hiri-liburutegi zentralez gainera, Liburutegiei buruzko Legearen 17.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Abiapuntu gisara, Iruñean lehendik dauden bederatziak hartzen dira, eta horiei beste bi gehitzen zaizkie, sortu beharrekoak: Zabalgunekoa, zeinarentzat egokia izan baitaiteke Musika Kontserbatorioaren eraikina, Agoitz kalean, hustu gogo baita Mendebaldean harentzat zentro berria egin eta gero; eta Lezkairukoa, Iruñeko auzo berri horretan aurreikusita dagoen garapenak eskatzen duenean. Gisa horretan, liburutegi bakoitzeko irakurlegaien kopurua maila egokira eraman daiteke, 20.000 biztanle baino gutxiago liburutegi bakoitzeko.

Horretaz gainera, 16 udal liburutegi proposatzen dira. Lau berri sortu beharko lirateke, hiri-garapenak eskatu ahala, Zizur Txikian, Sarrigurenen (Eguesibar), Arren (Ezkabarte) eta Orkoienen.

Udal liburutegi guztiak, Irurtzungoa barne (urrunena), Iruñaren eragin-eremuaren barrenean daude, eta, beraz, haren liburutegi-sisteman txertatuak.

Irakurketa-agentziei dagokienez, Añorbekoa eta Obanoskoa dauden bezala uzten dira, eta Larraintzarren (Ultzama) beste bat egitea proposatzen da.

Gainerako 24 herrietan, berriz, kontuan hartuz eskualdean garrantzi apala dutela eta hiriburuarekin harreman estua, aipatu dugun bezala, liburutegi zerbitzua hedatzeko ordezko beste konponbide batzuk proposatzen dira.

| **Iruñeko liburutegi-eskualdea**<br>**Liburutegi motak. Irakurketa Maparen proposamena** | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |

| | |
|---|---|
| EL | 1 |
| HLZ | 2 |
| UL | 27 |
| IA | 3 |
| LZA | 31 |
| **Guztira** | **64** |

| **Iruñeko liburutegi-eskualdea**<br>**Herriak eta liburutegi egonkorrak (motak)** | | |
|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** |
| Antsoain | 10.340 | UL |
| Añorbe | 508 | IA |
| Mutiloagoiti (Aranguren) | | UL |
| Barañain | 22.193 | HLZ |
| Beriain | 3.536 | UL |
| Artika (Berriobeiti) | | UL |
| Berriozar | 8.899 | UL |
| Burlata | 18.504 | UL |
| Zizur Txikia (Zizur) | | UL |
| Olatz (Eguesibar) | | UL |
| Sarriguren (Eguesibar) | | UL |
| Arre (Ezkabarte) | | UL |
| Uharte | 5.505 | UL |
| Irurtzun | 2.248 | UL |
| Noain Elortzibar | 6.222 | UL |
| Obanos | 937 | IA |
| Orkoien | 2.947 | UL |
| Iruña-Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka | | EL |
| Iruña-Alde Zaharra | | HLZ |
| Iruña-Txantrea | | UL |
| Iruña-Civican | | UL |
| Iruña-Etxabakoitz | | UL |
| Iruña-Zabalgunea | | UL |
| **Iruñeko liburutegi-eskualdea**<br>**Herriak eta liburutegi egonkorrak (motak)** | | |


| Herria | Biztanleria | Liburutegi mota |
|---|---|---|
| Iruña-Iturrama | | UL |
| Iruña-Lezkairu | | UL |
| Iruña-Mendillorri | | UL |
| Iruña-Arrosadia | | UL |
| Iruña-Sanduzelai | | UL |
| Iruña-San Pedro | | UL |
| Iruña-Yamaguchi | | UL |
| Ultzama | 1.651 | IA |
| Atarrabia | 10.462 | UL |
| Zizur Nagusia | 13.312 | UL |

## Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdea

Eskualdea Zangozaren inguruan artikulatzen da, eta bertan dago koordinaziogunea, hiriburu historikoa eta zerbitzu-hiriburua delako.

XX. mendearen erdialdean jendez husten joan zen, baina fenomeno hori nolabait orekatu da berrikiago, berrurbanizazioa gertatu baita, asteburuetan eta oporraldian etortzen den jendeari esker.

Demografikoki sakabanaketa aurkitzen dugu hemen, eta biztanle kopurua txikia da. Hori dela eta, koordinazio zentroa Zangozan ezarri da, eta, gainerakoei zerbitzua emateko, liburutegi-zabalkunderako sistemez baliatu beharra dago.



**Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdea**

## Gaur egungo egoera eta bertan gauzatzeko proposamena

| Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdea<br>Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Abaurregaina | 141 | | LZA | 003 |
| Abaurrepea | 41 | | LZA | 004 |
| Oibar | 920 | B | IA | 009 |
| Agoitz | 2.354 | B | UL | 019 |
| Artzibar | 256 | | LZA | 028 |
| Aria | 61 | | LZA | 033 |
| Aribe | 52 | | LZA | 034 |
| Auritz | 308 | | LZA | 058 |
| Burgi | 227 | | LZA | 059 |
| Kaseda | 1.059 | B | IA | 069 |
| Gazteluberri | 19 | | LZA | 071 |
| Erroibar | | | LZA | 092 |
| Aurizberri (Erroibar) | 762 | A | IA | 092 |
| Eslaba | 142 | | LZA | 094 |
| Espartza Zaraitzu | 104 | | LZA | 095 |
| Ezkaroze | 356 | | LZA | 093 |
| Ezporogi | 56 | | LZA | 103 |
| Galipentzu | 124 | | LZA | 110 |
| Galoze | 104 | | LZA | 111 |
| Garaioa | 113 | | LZA | 112 |
| Garde | 179 | | LZA | 113 |
| Garralda | 201 | | LZA | 115 |
| Gorza | 57 | | LZA | 119 |
| Izaba | 487 | | LZA | 128 |
| Itzaltzu | 50 | | LZA | 133 |
| Jaurrieta | 214 | | LZA | 134 |
| Xabier | 112 | | LZA | 135 |
| Leatxe | 54 | | LZA | 146 |
| Lerga | 65 | | LZA | 151 |
| Ledea | 329 | | LZA | 155 |
| Lizoainibar | 293 | | LZA | 156 |
| **Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdea<br>Irakurketaren Mapa** | | | | |
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Longida | 306 | | LZA | 158 |
| Irunberri | 1.386 | B | IA | 159 |
| Nabaskoze | 195 | | LZA | 181 |
| Otsagabia | 617 | | LZA | 185 |
| Orbaizeta | 222 | | LZA | 195 |
| Orbara | 46 | | LZA | 196 |
| Orontze | 50 | | LZA | 198 |
| Orotz-Betelu | 179 | | LZA | 199 |
| Petilla Aragoi | 29 | | LZA | 203 |
| Erromantzatua | 168 | | LZA | 209 |
| Erronkari | 271 | B | IA | 210 |
| Orreaga | 26 | | LZA | 211 |
| Zare | 193 | | LZA | 212 |
| Zangoza | 5.130 | AA | EL | 216 |
| Sartze | 68 | | LZA | 222 |
| Urraulgoiti | 168 | | LZA | 241 |
| Urraulbeiti | 281 | | LZA | 242 |
| Urrotz-Hiria | 390 | | LZA | 243 |
| Urzainki | 97 | | LZA | 245 |
| Uztarroze | 199 | | LZA | 247 |
| Luzaide | 431 | | LZA | 248 |
| Bidankoze | 108 | | LZA | 252 |
| Hiriberri Aezkoa | 129 | | LZA | 256 |
| Esa | 259 | | LZA | 261 |
| **Guztira** | **20.188** | | | |

Banaketa demografikoari dagokionez, azpimarratzekoa da Zangozako eskualdean jende gutxiko herri ugari dagoela. Izan ere, haietako ehuneko 87tan biztanleen kopurua ez da 500 lagunera iristen. 1.500 biztanletik gorako bi herri besterik ez dago.

| **Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdea**<br>**Biztanle kopurua eta herriak** | |
|---|---|
| **Biztanleak** | **Herriak** |

| | |
|---|---|
| > 1.500 | 2 |
| 1.500-1.000 | 2 |
| 1.000-500 | 3 |
| < 500 | 47 |
| **Guztira** | **54** |

Gaur egun martxan dauden zazpi liburutegiek biztanleriaren ia ehuneko 60 zerbitzatzen dute; 47 herri gelditzen dira zerbitzurik gabe, haien biztanle kopurua, batez beste, 177 da.

| **Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdea**<br>**Herriak eta liburutegi egonkorrak** | | | |
|---|---|---|---|
| | **Liburutegiarekin** | **Liburutegirik gabe** | **Guztira** |
| **Herriak** | 7 | 47 | 54 |
| **Biztanleria** | 11.882 | 8.306 | 20.188 |
| **%** | 58,9 | 41,1 | 100 |

Abiapuntu gisara eskualdeko liburutegi bat dugu Zangozan, eta liburutegi iraunkorrak beste sei herritan, zeinetatik batek bakarrik baititu 1.500 biztanle baino gehiago, Agoitzek.

| **Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdea**<br>**Liburutegi motak. Egungo egoera** | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| AA | 1 |
| A | 1 |
| B | 5 |
| **Guztira** | **7** |

Irakurketaren Mapak Zangozan jartzen du eskualdeko liburutegia, Agoizkoa udal liburutegi gisara uzten du, 1.500 biztanletik gorako herria baita, eta irakurketa-agentziak proposatzen ditu gaur egun liburutegi iraunkorra duten beste bost herrientzat.

Eskualde honetan jendea izugarri sakabanaturik bizi denez, liburutegi-zabalkunderako prozedurez baliatu beharra dago nahitaez. Mailegu kolektiboa da

horietako bat, baina era mankomunatuan erabili beharko da herritarren eskaera bermatu ahal izateko.


| Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdea<br>Liburutegi motak. Irakurketa Maparen proposamena | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| EL | 1 |
| UL | 1 |
| IA | 5 |
| LZA | 47 |
| **Guztira** | **54** |

| Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdea<br>Herriak eta liburutegi egonkorrak (motak) | | |
|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Proposamena** |
| Oibar | 920 | IA |
| Agoitz | 2.354 | UL |
| Kaseda | 1.059 | IA |
| Aurizberri (Erroibar) | 762 | IA |
| Irunberri | 1.386 | IA |
| Erronkari | 271 | IA |
| Zangoza | 5.130 | EL |

## Tafallako liburutegi-eskualdea

Erdialdeko Nafarroaren erdialdean, Tafalla dugu bilgune, eta bertako liburutegiak jokatzen du eskualdeko zentro koordinatzailearen papera, bere kokapen estrategikoarengatik eta dituen azpiegiturengatik.

Eskualde txikia da, azalera aldetik, eta liburutegi egonkorrak daude herri handienetan, baina Orbaibarko mendialdean urrunen dauden herri txiki batzuetan ez dago halakorik, nahiz eta asteburuetan haietan biltzen diren biztanleen kopurua gorantz doan.



**Tafallako liburutegi-eskualdea**

## Gaur egungo egoera eta bertan gauzatzeko proposamena

| Tafallako liburutegi-eskualdea<br>Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Artaxoa | 1.721 | B | UL | 038 |
| Barasoain | 602 | | LZA | 045 |
| Beire | 322 | | LZA | 051 |
| Berbintzana | 693 | | LZA | 053 |
| Caparroso | 2.685 | B | UL | 065 |
| Zarrakaztelu | 2.606 | A | UL | 067 |
| Garinoain | 480 | | LZA | 114 |
| Larraga | 2.097 | C | UL | 142 |
| Leotz | 269 | | LZA | 150 |
| Mélida | 786 | B | IA | 164 |
| Mendigorria | 1.056 | B | IA | 167 |
| Miranda-Arga | 957 | B | IA | 171 |
| Murillo el Cuende | 643 | | LZA | 178 |
| Murillo el Fruto | 744 | | LZA | 179 |
| Erriberri | 3.607 | A | UL | 191 |
| Oloritz | 176 | | LZA | 192 |
| Orisoain | 80 | | LZA | 197 |
| Pitillas | 567 | | LZA | 205 |
| Puiu | 318 | | LZA | 207 |
| San Martin Unx | 459 | | LZA | 217 |
| Santakara | 965 | | LZA | 220 |
| Tafalla | 11.296 | AA | EL | 227 |
| Uxue | 230 | | LZA | 235 |
| Untzue | 133 | | LZA | 238 |
| **Guztira** | **33.492** | | | |

Tafallako eskualdean, badira sei herri 1.500 biztanle baino gehiago dituztenak, eta gainerako 18ek, ehuneko 75ak alegia, zentsu apalagoa dute, eta haietako bederatzik, zehazki, 500 biztanle baino gutxiago.

| Tafallako liburutegi-eskualdea<br>Biztanle kopurua eta herriak |
|---|

| Biztanleak | Herriak |
|---|---|
| > 1.500 | 6 |
| 1.500-1.000 | 1 |
| 1.000-500 | 8 |
| < 500 | 9 |
| **Guztira** | **24** |

Martxan dauden bederatzi liburutegiek biztanleriaren lau bosteni ematen diote zerbitzua; beraz, ehuneko 20 zerbitzurik gabe gelditzen dira, guztira 6.681 biztanle.

| **Tafallako liburutegi-eskualdea**<br>**Herriak eta liburutegi egonkorrak** | | | |
|---|---|---|---|
| | **Liburutegiarekin** | **Liburutegirik gabe** | **Guztira** |
| **Herriak** | 9 | 15 | 24 |
| **Biztanleria** | 26.811 | 6.681 | 33.492 |
| **%** | 80,0 | 20,0 | 100 |

Abiapuntu gisara, Tafallan eskualdeko liburutegia dugu, eta 1.500 biztanletik gorakoak diren gainerako bost herrietan liburutegi egonkorrak daude, bai eta Melidan, Mendigorrian eta Miranda-Argan ere, nahiz eta hiru horietako zentsua txikiagoa izan.

| **Tafallako liburutegi-eskualdea**<br>**Liburutegi motak. Egungo egoera** | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| AA | 1 |
| A | 2 |
| B | 5 |
| C | 1 |
| **Guztira** | **9** |

Liburutegiak antolatzeko proposamenean, Tafallan uzten da eskualdeko liburutegia, udal liburutegiak ezartzen dira 1.500 biztanletik gorako herrietan, eta irakurketa-agentziak kopuru horretatik beherako hiru herritan. Gainerako 15 herrietan liburutegi-zabalkunderako zerbitzua proposatzen da.

| Tafallako liburutegi-eskualdea<br>Liburutegi motak. Irakurketa Maparen proposamena | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| EL | 1 |
| UL | 5 |
| IA | 3 |
| LZA | 15 |
| **Guztira** | **24** |

| Tafallako liburutegi-eskualdea<br>Herriak eta liburutegi egonkorrak (motak) | | |
|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** |
| Artaxoa | 1.721 | UL |
| Caparroso | 2.685 | UL |
| Zarrakaztelu | 2.606 | UL |
| Larraga | 2.097 | UL |
| Mélida | 786 | IA |
| Mendigorria | 1.056 | IA |
| Miranda-Arga | 957 | IA |
| Erriberri | 3.607 | UL |
| Tafalla | 11.296 | EL |


**Tuterako liburutegi-eskualdea**

Eskualde honetan biztanleriaren kontzentrazioa handia da. Foru Komunitateko gainerako eskualdeekin alderatuta, hemengo herrietan jende asko bizi da. Tutera da eskualdeko hiriburu historikoa, eta gaur egun ere halaxe da; zerbitzu gehienak bertan biltzen dira, eta bertara iristea erraza da, erdialdean gelditzen delako eta komunikazio-bide ugari eta onak dituelako.

Hori dela eta, herri gehienek badute beren liburutegi publikoa, zeina oso errotua baitago herrietan eta bertako kultur giroan.

Tutera Nafarroako bigarren hiria da, biztanle kopuruaren ordenaren arabera, eta funtsez ongi hornitutako liburutegia dago bertan, oso leku egokian kokatua; ordea, hiria hazten ari da, hala fisikoki nola jende aldetik, eta beharrezkoa da beste liburutegi bat irekitzea, lekua nahikoa eduki eta jendearen eskura egonen dena, gaur egungoak dituen arazoak gainditzeko. Izan ere, oraingoa balio arkitektoniko berezia duen eraikin batean kokatua dago, eta horrek bere funtzionaltasuna baldintzatzen du.

Nolanahi ere, buru den herrian eginen da eskualdeko liburutegien koordinazioa, Tuterako liburutegian, oraingo egoitzan edo egokiagoa den beste batean.



**Tuterako liburutegi-eskualdea**

## Gaur egungo egoera eta bertan gauzatzeko proposamena

| Tuterako liburutegi-eskualdea<br>Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Ablitas | 2.559 | B | UL | 006 |
| Arguedas | 2.381 | B | UL | 032 |
| Barillas | 189 | | LZA | 048 |
| Buñuel | 2.403 | B | UL | 057 |
| Cabanillas | 1.477 | C | UL | 062 |
| Cadreita | 2.037 | C | UL | 064 |
| Cascante | 3.975 | A | UL | 068 |
| Castejón | 4.115 | A | UL | 070 |
| Cintruénigo | 7.332 | A | UL | 072 |
| Corella | 7.898 | A | UL | 077 |
| Cortes | 3.370 | A | UL | 078 |

| Tuterako liburutegi-eskualdea<br>Irakurketaren Mapa | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Liburutegi mota** | **Proposamena** | **Kodea** |
| Faltzes | 2.601 | B | UL | 104 |
| Fitero | 2.236 | B | UL | 105 |
| Fontellas | 903 | C | IA | 106 |
| Funes | 2.361 | B | UL | 107 |
| Fustiñana | 2.594 | B | UL | 108 |
| Martzilla | 2.762 | B | UL | 163 |
| Milagro | 3.236 | B | UL | 169 |
| Monteagudo | 1.151 | B | IA | 173 |
| Murchante | 3.549 | A | UL | 176 |
| Azkoien | 5.808 | A | UL | 202 |
| Ribaforada | 3.552 | A | UL | 208 |
| Tutera / Eskualdeko liburutegia | 33.910 | AA | EL | 232 |
| Tutera / Hiri-liburutegi zentrala | | | HLZ | 232 |
| Tulebras | 137 | | LZA | 233 |
| Valtierra | 2.542 | B | UL | 249 |
| Alesbes | 2.988 | B | UL | 254 |
| **Guztira** | **108.066** | | | |

Tuterako eskualdean 26 herri sartzen dira, eta haietatik 21ek 1.500 biztanle baino gehiago dituzte, eta guztira 24 liburutegi publiko daude.

| Tuterako liburutegi-eskualdea<br>Biztanle kopurua eta herriak | |
|---|---|
| **Biztanleak** | **Herriak** |
| > 1.500 | 21 |
| 1.500-1.000 | 2 |
| 1.000-500 | 1 |
| < 500 | 2 |
| **Guztira** | **26** |

Martxan dauden 24 liburutegiek ia populazio osoari ematen diote zerbitzua. Bi herri besterik ez dago liburutegi egonkorrik gabe: Barillas (189 biztanle) eta Tulebras (137).

| Tuterako liburutegi-eskualdea<br>Herriak eta liburutegi egonkorrak | | | |
|---|---|---|---|
| | **Liburutegiarekin** | **Liburutegirik gabe** | **Guztira** |
| **Herriak** | 24 | 2 | 26 |
| **Biztanleria** | 107.740 | 326 | 108.066 |
| **%** | 99,7 | 0,3 | 100 |

Abiapuntu gisara, Tuterako AA motako liburutegia eta 23 liburutegi egonkor ditugu; azken horietan, B motakoak nagusitzen dira (12) A motakoen aldean (8).

| Tuterako liburutegi-eskualdea<br>Liburutegi motak. Egungo egoera | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| AA | 1 |
| A | 8 |
| B | 12 |
| C | 3 |
| **Guztira** | **24** |

Liburutegiak antolatzeko proposamenean, Tuteran jartzen da eskualdeko liburutegia, baina, aldi berean, hiri-liburutegi zentral bat sortzea proposatzen da, hiriko liburutegien sarea garatzen denerako. 21 udal liburutegi uzten dira. Zentsu txikiagoko bi herrirentzat irakurketa-agentziak jartzea proposatzen da, eta beste birentzat liburutegi-zabalkunderako zerbitzuak.

| Tuterako liburutegi-eskualdea<br>Liburutegi motak. Irakurketa Maparen proposamena | |
|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Guztira** |
| EL | 1 |
| HLZ | 1 |
| UL | 21 |
| IA | 2 |
| LZA | 2 |
| **Guztira** | **27** |

| Tuterako liburutegi-eskualdea<br>Herriak eta liburutegi egonkorrak (motak) | | |
|---|---|---|
| **Herria** | **Biztanleria** | **Proposamena** |
| Ablitas | 2.559 | UL |
| Arguedas | 2.381 | UL |
| Buñuel | 2.403 | UL |
| Cabanillas | 1.477 | UL |
| Cadreita | 2.037 | UL |
| Cascante | 3.975 | UL |
| Castejón | 4.115 | UL |
| Cintruénigo | 7.332 | UL |
| Corella | 7.898 | UL |
| Cortes | 3.370 | UL |
| Faltzes | 2.601 | UL |
| Fitero | 2.236 | UL |
| Fontellas | 903 | IA |
| Funes | 2.361 | UL |
| Fustiñana | 2.594 | UL |
| Martzilla | 2.762 | UL |
| Milagro | 3.236 | UL |
| Monteagudo | 1.151 | IA |
| Murchante | 3.549 | UL |
| Azkoien | 5.808 | UL |
| Ribaforada | 3.552 | UL |
| Tutera / Eskualdeko liburutegia | 33.910 | EL |
| Tutera / Hiri-liburutegi zentrala | | HLZ |
| Valtierra | 2.542 | UL |
| Alesbes | 2.988 | UL |

## Liburutegi publikoen tipologia

### Ikuspegi orokorra: Irakurketa mapa eta liburutegi motak

Jarraian datorren taulan zazpi liburutegi-eskualdeentzat proposatzen diren liburutegi-motak erakusten dira. Bertan, laburbildurik ageri da Nafarroako Foru Komunitatearentzat proposatzen den liburutegi-mapa. Bost zerbitzu-mailatan oinarrituta, hor ikusiko dugu eskualde bakoitzerako eta Nafarroa osorako aurreikusten diren zerbitzuguneak.

Horren arabera, Lizarrako eskualdean (LIZ) biltzen da zerbitzuguneen kopururik handiena, 72, zeinetatik hiru laurdenak herri txikietan baitaude eta, beraz, liburutegi-zabalkunderako sistemen bidez emanen baitzaie zerbitzua. Bigarren lekuan Iruñekoa dugu (IRU), non 64 zerbitzugune kokatzen baitira, haietako franko udal eta hiri-liburutegiak. Jarraian, Zangozako eskualdea (ZAN) dator, 54 gunerekin, eta haietatik ia ehuneko 90 zentsu txikiko herrietan, zeinentzat liburutegi-zabalkunderako zerbitzua proposatzen baita. Gero Kantauriar ibarretakoa dugu (KAN), 6 liburutegi egonkor dituena 31 herrirentzat. Tuterakoa eskualdearen egoera (TUT) bestelakoa da, 24 liburutegi egonkor proposatzen baitira, 26 herri izanik. Tafallakoan (TAF) berriz, 24 zerbitzugune aurreikusten dira, haietatik 15 biztanleria txiki egonkorreko herrietan kokatuak. Azkenik, Altsasuko eskualdeko 14 herrientzat (ALT) 6 liburutegi egonkor proposatzen dira, biztanleriaren ia ehuneko 70i zerbitzu emateko.

Zazpi lurraldeetako bakoitzean eskualdeko liburutegi bat (EL) proposatzen da, kontuan hartu gabe bertan guztira dauden liburutegien kopurua, eskualde horretan zerbitzua antolatu eta modu egokian funtzionatzen duela bermatzeko.

Hiri-liburutegi zentralen kasuan (HLZ), Liburutegiei buruzko Legearen 17.2 artikuluan ezartzen denez, 20.000 biztanletik gorako herrietan hiri-liburutegi zentral bat izanen da, eta horrek koordinatuko ditu Irakurketa Publikoaren Mapan sartzen diren

gainerako zerbitzugune edo liburutegiak. Horren haritik, arrazoi demografikoetan oinarrituta, halako bat Barañainen kokatuko da, beste bat Iruñean, eta hirugarrena Tuteran. Iruñekoaren kasuan, Alde Zaharrean liburutegirik sortuko balitz, hark baldintzatuko luke HLZ, eta Barañainen eta Tuteran, berriz, sortzeke dagoen liburutegien sareak.

68 udal liburutegiek (UL) 1.500 biztanletik gorako herriei ematen diete zerbitzua. Biztanle kopuru hori finkatu da, uste izanik horrek eskaera sozial nahikoa sortuko duela, liburutegi publiko batek normal funtzionatzeko. Hori horrela, Tuterako eskualdeko ia herri guztietan izanen lukete zerbitzua, 21 udal liburutegi proposatzen baitira; eta Iruñekoan, aldiz, 27 udal liburutegi izanik, hiriburuaren eraginpeko herri guztietan izanen lukete.

25 irakurketa-agentzia proposatzen dira (IA), haietatik 8 Lizarrako eskualdean, non gehienak gaur egun martxan dauden.

Herri txiki ugari diren lekuan liburutegi zerbitzua egokitu behar izaten da, liburutegi-zabalkunderako formulak erabiliz (mailegu kolektiboa, esate baterako). Horrelako herri franko daude Lizarrako eskualdean (55), Zangozakoan (47), Kantauriar ibarretakoan (25), Altsasukoan (8) eta Iruñekoan (31).

Liburutegiei buruzko Foru Legearen 11.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, liburutegi publikoak zerbitzu bereiziak eskainiko dizkie helduei eta haurrei, eta kontuan hartuko du Nafarroako Foru Komunitateko errealitate soziolinguistikoa, "eta zerbitzuak euskaraz eta gaztelaniaz emanen ditu, Euskararen Legeak, abenduaren 15eko 18/1986 Legeak alegia, araututakoarekin bat"

| Irakurketaren Mapa<br>Liburutegien tipologia | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Mota** | **Liburutegi-eskualdeak** | | | | | | | **Guztira** |
| | **ALT** | **KAN** | **LIZ** | **IRU** | **ZAN** | **TAF** | **TUT** | |
| **EL** | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 7 |
| **HLZ** | | | | 2 | | | 1 | 3 |
| **UL** | 2 | 4 | 8 | 27 | 1 | 5 | 21 | 68 |
| **IA** | 3 | 1 | 8 | 3 | 5 | 3 | 2 | 25 |
| **LZA** | 8 | 25 | 55 | 31 | 47 | 15 | 2 | 183 |
| **Guztira** | **14** | **31** | **72** | **64** | **54** | **24** | **27** | **286** |

## Ikuspegi orokorra: liburutegiak eta populazioa

Altsasuko eskualderako 6 liburutegi eta irakurketa-agentzia egonkor proposatzen dira Irakurketaren Mapan. Horien bidez zerbitzua biztanleriaren ehuneko 77ri iritsiko zaio. Falta den jendea batez beste 527 biztanle dituzten 8 herritan banatzen da, eta horietan liburutegi-zabalkunderako baliabideak erabili beharko dira.

| Irakurketaren Mapa<br>Altsasuko eskualdea<br>Liburutegi motak eta biztanle kopurua | | | |
|---|---|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Kopurua** | **Zerbitzu hartzaileen kopurua** | **Biztanleriaren %** |
| EL | 1 | 7.571 | 41,6 |
| UL | 2 | 4.145 | 22,8 |
| IA | 3 | 2.265 | 12,4 |
| LZA | 8 | 4.218 | 23,2 |
| **Guztira** | **14** | **18.199** | **100,0** |

Kantauriar ibarretako eskualderako 6 liburutegi eta irakurketa-agentzia egonkor proposatzen dira. Horien bidez zerbitzua biztanleriaren ehuneko 65i iritsiko zaio. Falta den jendea (ehuneko 35a) batez beste 438 biztanle dituzten 25 herritan banatzen da, eta horietan liburutegi-zabalkunderako baliabideak erabili beharko dira.

| Irakurketaren Mapa<br>Kantauriar ibarretako eskualdea<br>Liburutegi motak eta biztanle kopurua | | | |
|---|---|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Kopurua** | **Zerbitzu hartzaileen kopurua** | **Biztanleriaren %** |
| EL | 1 | 7.982 | 25,6 |
| UL | 4 | 10.936 | 35,1 |
| IA | 1 | 1.295 | 4,1 |
| LZA | 25 | 10.963 | 35,2 |
| **Guztira** | **31** | **31.176** | **100,0** |

Lizarrako eskualderako 17 liburutegi eta irakurketa-agentzia egonkor proposatzen dira. Horien bidez zerbitzua biztanleriaren ehuneko 80ri iritsiko zaio. Falta den jendea (ehuneko 20a) batez beste 267 biztanle dituzten 55 herritan banatzen da, eta horietan liburutegi-zabalkunderako baliabideak erabili beharko dira.

| Irakurketaren Mapa<br>Lizarrako eskualdea<br>Liburutegi motak eta biztanle kopurua | | | |
|---|---|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Kopurua** | **Zerbitzu hartzaileen kopurua** | **Biztanleriaren %** |
| EL | 1 | 14.049 | 20,7 |
| UL | 8 | 29.848 | 44,0 |
| IA | 8 | 9.268 | 13,6 |
| LZA | 55 | 14.720 | 21,7 |
| **Guztira** | **72** | **67.885** | **100,0** |

Iruñeko eskualdean, funtsean hiriburua dugu, non zerbitzua hamaika udal liburutegiren bidez eman behar baita, eta haiek koordinatzeko hiri-liburutegi zentral bat izanen da eskualdeko liburutegiaz gainera, haren egoitza Nafarroako Liburutegia eta Zinematekan izanik; era horretan, biztanleriaren ehuneko 60ri emanen zaio liburutegi-zerbitzua. Biztanleriaren beste heren bat Iruñaren hiri-ingurunean banatzen da, eta haientzat badira 16 udal liburutegi. Ehuneko 4 gelditzen da bestela zerbitzatzeko; hor batez beste 412 biztanle dituzten 31 herri sartzen dira, eta liburutegi-zabalkunderako prozeduren bidez emanen zaie zerbitzua.

| Irakurketaren Mapa<br>Iruñeko eskualdea<br>Liburutegi motak eta biztanle kopurua | | | |
|---|---|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Kopurua** | **Zerbitzu hartzaileen kopurua** | **Biztanleriaren %** |
| EL | 1 | | |
| HLZ | 2 | 219.468 | 64,3 |
| UL | 27 | 106.022 | 31,1 |
| IA | 3 | 3.096 | 0,9 |
| LZA | 31 | 12.785 | 3,7 |
| **Guztira** | **64** | **341.371** | **100,0** |

Zangozako eta piriniotar ibarretako liburutegi-eskualdean, Irakurketaren Mapak biztanle gutxiko eremu zabalari egin behar dio aurre. 20.000 biztanle baino gutxi gehiago dira guztira, eta horien erdiak batez beste 177 biztanle dituzten 47 herritan banatzen dira. Horientzat liburutegi-zabalkunderako zerbitzuak proposatzen dira. Zangozan egonen da eskualdeko liburutegia (EL), eta bertatik zerbitzua emanen zaio biztanleriaren laurdenari; falta den laurdenerako udal liburutegi bat eta bost irakurketa-agentzia aurreikusi dira.

| Irakurketaren Mapa<br>Zangozako eta piriniotar ibarretako eskualdea<br>Liburutegi motak eta biztanle kopurua | | | |
|---|---|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Kopurua** | **Zerbitzu hartzaileen kopurua** | **Biztanleriaren %** |
| EL | 1 | 5.130 | 25,4 |
| UL | 1 | 2.354 | 11,7 |
| IA | 5 | 4.398 | 21,8 |
| LZA | 47 | 8.306 | 41,1 |
| **Guztira** | **54** | **20.188** | **100,0** |

Tafallako eskualdeari izena ematen dion herria gailentzen da; bertan, eskualdeko liburutegi batek zentsuaren herena hartuko du. Zortzi udal liburutegi eta irakurketa-agentziek biztanleriaren ehuneko 46 zerbitzatuko dute; beraz, biztanleriaren bosten bat gelditukо da, batez beste 445 biztanle dituzten 15 herritan banaturik, eta horientzat liburutegi-zabalkunderako zerbitzua izanen da.

| Irakurketaren Mapa<br>Tafallako eskualdea<br>Liburutegi motak eta biztanle kopurua | | | |
|---|---|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Kopurua** | **Zerbitzu hartzaileen kopurua** | **Biztanleriaren %** |
| EL | 1 | 11.296 | 33,7 |
| UL | 5 | 12.716 | 38,0 |
| IA | 3 | 2.799 | 8,4 |
| LZA | 15 | 6.681 | 19,9 |
| **Guztira** | **24** | **33.492** | **100,0** |

Irakurketaren Mapak Tuteran liburutegi berri bat sortzea proposatzen du, aurreikusten den hiri-liburutegi zentralaren eginkizunak bere gain hartzeko. Horrela egiten bada, hiriko bi liburutegien artean eskualdeko populazioaren heren bati emanen zaio zerbitzua. Bestalde, 21 udal liburutegik eta bi irakurketa-agentziak falta den populazioaren ia guztiari ematen diote zerbitzua; liburutegi egonkorrik ez duten bi herritan liburutegi-zabalkunderako baliabideak ezarri beharko dira.

| Irakurketaren Mapa<br>Tuterako eskualdea<br>Liburutegi motak eta biztanle kopurua | | | |
|---|---|---|---|
| **Liburutegi mota** | **Kopurua** | **Zerbitzu hartzaileen kopurua** | **Biztanleriaren %** |
| EL | 1 | 33.910 | 31,4 |
| HLZ | 1 | | |
| UL | 21 | 71.776 | 66,4 |
| IA | 2 | 2.054 | 1,9 |
| LZA | 2 | 326 | 0,3 |
| **Guztira** | **27** | **108.066** | **100,0** |

Zazpi eskualdeetako datuak bilduta. jarraian datorren taula osatu da Nafarroako Irakurketaren Maparen sintesi modura. Liburutegiak eta bakoitzeko zerbitzua hartzen duten biztanleen kopuruak batu, eta datu absolutuak eta erlatiboak atera dira.

Hiri-liburutegi zentralek biztanleriaren heren batetik gorako portzentajeari ematen diote zerbitzua; udal liburutegiak 1.500 biztanletik gorako herrietan kokatzen dira, eta, guztiak batuta, biztanleriaren 38,3 hartzen dute, eta horri gehitzen badiogu eskualdeko liburutegiek hartzen dutena (ehuneko 7,4), guztira Nafarroako Foru Komunitateko zentsuaren ia erdia ateratzen zaigu.

25 irakurketa-agentzia proposatzen dira (aurrerago zehazten dira haien ezaugarriak, kapitulu honetan bertan), eta guztien artean biztanleriaren ehuneko 4ri ematen diote zerbitzua; lehendik dauden instalazioetan kokatzen dira, baina etorkizunean bideragarriak izateko baldintzak jarri behar dira: kalitatezko zerbitzua eskaini behar dute, liburutegi-zabalkundeari lotutako beste formulek eskaintzen dutena baino hobea.

Laburbilduz, Nafarroako Irakurketaren Mapak proposatzen du liburutegi egonkorrek eman behar diotela zerbitzua biztanleriaren ehuneko 90,6ri. Liburutegi egonkorren zerbitzua hartu gabe gelditzen direnak ez dira zentsuaren ehuneko 10era iristen, eta batez beste 317 biztanle dituzten 183 herritan banatzen dira, gehienbat Nafarroako Erdialdean eta Mendialdean; egoera horretan daudenentzat, egokiena liburutegi-zabalkunderako zerbitzuak eskaintzea da.

**Irakurketaren Mapa**
**Nafarroa**
**Liburutegi motak eta biztanle kopurua**

| Liburutegi mota | Guztira | Biztanleria | Biztanleriaren % |
|---|---|---|---|
| EL | 7 | 46.028 | 7,4 |
| HLZ | 3 | 253.378 | 40,9 |
| UL | 68 | 237.797 | 38,3 |
| IA | 25 | 25.175 | 4,0 |
| LZA | 183 | 57.999 | 9,4 |
| Guztira | **286** | **620.377** | **100,0** |

## Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka (NLZ)

### Funtzionamendurako oinarriak

Liburutegiei buruzko Foru Legeak bere 16. artikuluan Nafarroako Liburutegiaren betekizuna eta eginkizunak zehazten ditu, liburutegi publikoen sistemaren liburutegietan lehena eta Nafarroako ondare bibliografikoaren arduradun gorena den aldetik. Haren betekizuna Nafarroako ekoizpen bibliografikoa bildu, gorde eta zabaltzea da, idatzizko ekoizpena, ikusizkoa, soinuzkoa eta multimedia, inprimatua edo beste edozein euskarritan dagoena barne.

Nafarroako liburutegi publikoen sistemako liburutegia nagusia den aldetik, liburutegi publikoari dagozkion eginkizunak ez ezik, honako hauek ere beteko ditu:

a) Nafarroan argitaraturiko edo ekoiztutako obra guztiak bildu, gorde eta zabaltzea. Horretarako, lege gordailua jasotzen duena da.

b) Nafarroarekin zerikusia duten obra guztiak, Nafarroari buruzkoak edo nafar egileek idatziak baina lege gordailuaren bidez sartu ez direnak, eskuratu, gorde eta zabaltzea.

c) Nafarroako bibliografia egitea.

d) Nafarroako ondare bibliografikoaren kontserbazioaz arduratu eta ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa Nafarroan prestatzeko lanak koordinatzea.

e) Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren ordezkari izatea Espainiako liburutegien sisteman eta beste liburutegi sistema batzuetan.

f) Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren funtzionamendua egokiagoa izan dadin haren esku utzitako gainerakoak.

### Oinarrizko zerbitzuak

Liburutegiei buruzko Foru Legean ezarritakoari jarraituz, zerbitzu hauek eman behar ditu, lehentasun ordena honetan:

1. Nafarroako Foru Komunitateko ondare bibliografikoa eta ikus-entzunezkoa gorde, ikertu eta zabaltzeko liburutegi eta zinematekarena.

2. Lege-gordailuarena.

3. Nafarroako liburutegi publikoen sistemako lankidetzako eta erreferentziako liburutegiarena.

4. Liburutegi publikoarena.

**Moduluak**

"Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka" zentroari buruzko proiektu betearazlean Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka ekimenean sartzen diren arloak eta zerbitzuak zehazten dira.

## Liburutegi sistema

### Eskualdeko liburutegia (EL)

Irakurketaren Mapak zazpi eskualdeetako bakoitzean eskualdeko liburutegi bat sortzea proposatzen du. Halako liburutegiak eginkizun hauek izanen ditu:

- Herriko liburutegia izatea.
- Eskualdeko liburutegiak koordinatzeko zentroa izatea.

### Funtzionamendurako oinarriak

Eskualdeko liburutegiei eta liburutegi-zabalkunderako zerbitzuei aholku eta sostengu ematea, eta haiek koordinatzea.

Nafarroako liburutegi publikoen sistemarekin koordinatzea.

Liburutegien Zerbitzuarekin koordinatzea.

Eskualdeko liburutegien jarduerak koordinatzeko zereginetan, giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketan efizientzia lortzea.

Eskualdeko erabiltzaileen beharrei erantzutea.

### Oinarrizko zerbitzuak

Eskualdeko udal liburutegiei aholku eta sostengu ematea, eta haiek koordinatzea.

Eskualdeko irakurketa-agentziei aholku eta sostengu ematea, eta haiek koordinatzea.

Eskualdeko liburutegi-zabalkunderako zerbitzuak koordinatzea.

"Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka" zentroari eskatzen zaizkion zerbitzuak kudeatzea; alegia, hala banakako erabiltzaileek nola udal liburutegiek, irakurketa-agentziek eta liburutegi-zabalkunderako zerbitzuek eskatzen dituztenak.

Udal liburutegiak ordezkatzea Liburutegien Zerbitzuaren aurrean.

Dokumentuen mailegu pertsonala eta kolektiboa.

Dokumentuak eskura jartzea.

Informazio zerbitzua (lokala eta komunitarioa).

Erabiltzaileari arreta egitea.

Katalogoak.

Ikasteko eremua.

Irakurtzeko eremua.

Hemeroteka.

Haurren eremua.

Erabiltzaileen prestakuntza.

Bertako gaien eta eskualdekoen bilduma.

Irakurketaren eta informazioaren teknologia berrien sustapena.

Liburutegien arteko mailegua.

Ikus-entzunezkoak eta multimedia.

Internet.

Kopiagintza.

**Hirietako liburutegi zentralak (HLZ)**

Liburutegien hiri-sistema[9] bat koordinatzen dute, 20.000 biztanletik gorako herrietan[10], eta, aldi berean, auzoko edo barrutiko hiri-liburutegia ere badira.

Irakurketaren Mapak horrelakoak proposatzen ditu Iruñean, Barañainen eta Tuteran. Iruñaren kasuan, baliabideak eraginkortasunez erabili behar baitira, Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka zentroa Iruñeko hiri-liburutegi zentrala ere bada, nahiz eta horretarako beste bat sortzeko aukera ere badagoen, hiriburuaren garapenarengatik (liburutegi eskaerei dagokienez) beharrezkotzat jotzen bada. Barañainen eta Tuteran hiri-liburutegi zentral bana izatea aurreikusten da, betiere bi herrietan gaur egun daukaten liburutegi sarea zabaltzen bada.

---

[9] *Sistemas urbanos de bibliotecas*. Madril, Kultura Ministerioa, 2006. Hemen: www.travesia.mcu.es/documentos

[10] 32/2002 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako liburutegi sistema arautzen duena, 17.2 artikulua

**Funtzionamendurako oinarriak**

Hiriko hiri-liburutegiei, irakurketa-agentziei eta liburutegi-zabalkunderako zerbitzuei aholku eta sostengu ematea, eta haiek koordinatzea.

Nafarroako liburutegi publikoen sistemarekin koordinatzea.

Liburutegien Zerbitzuarekin koordinatzea.

Hiriko liburutegien jarduerak koordinatzeko zereginetan, giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketan efizientzia lortzea.

**Oinarrizko zerbitzuak**

Hiriko hiri-liburutegiei eta irakurketa-agentziei aholku eta sostengu ematea, eta haiek koordinatzea.

Hiriko liburutegi-zabalkunderako zerbitzuei aholku eta sostengu ematea, eta haiek koordinatzea.

Hiriko liburutegiak ordezkatzea Liburutegien Zerbitzuaren aurrean.

Dokumentuen mailegu pertsonala eta kolektiboa.

Dokumentuak eskura jartzea.

Informazio zerbitzua (lokala eta komunitarioa).

Erabiltzaileari arreta egitea.

Katalogoak.

Ikasteko eremua.

Irakurtzeko eremua.

Hemeroteka.

Haurren eremua.

Erabiltzaileen prestakuntza.

Bertako gaien bilduma.

Irakurketaren eta informazioaren teknologia berrien sustapena.

Liburutegien arteko mailegua.

Ikus-entzunezkoak eta multimedia.

Internet.

Kopiagintza.

**Udal liburutegia (UL)**

Liburutegiei buruzko Foru Legearen 17.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, "udal liburutegiak dira tokian tokiko udalerrian edo eskualdean irakurketa publikoaren mapari jarraikiz liburutegiko gutxieneko zerbitzuak ematen dituztenak".

Behar den eskaera bermatzen duen oinarri demografikoa dute, eta erabilgarri dituzten baliabideak eta ematen dituzten zerbitzuak errentagarriak dira, hala gizartearen nola kulturaren ikuspegitik.

Udal liburutegiak herritarraren eskura egotea lortu behar du, hurbileko zerbitzu kulturala izateko, eta kalitatezko zerbitzua ematea, haren esku utzitako eginkizunetarako egokiak diren baliabideak edukitzeko; bi alderdi horien arteko oreka izan behar du.

Eskualdeko liburutegiak udalekoari sostengua ematen dio eta koordinatzen du.

Nafarroaren kasuan, jotzen da udal liburutegi baten funtzionamendu iraunkor eta eraginkorra bermaturik dagoela herri batek gutxienez 1.500 biztanle izan baldin baditu[11].

Udal liburutegiaren zerbitzua sakabanaturik dauden hainbat herriren multzo batentzat ere ezar daiteke, baldin eta guztien artean gutxienez 1.500 biztanlera iristen badira; horretarako, mankomunitate moduko kudeaketa sistemaren bat erabili, eta liburutegi zerbitzu egonkorra, kalitatezkoa eta bideragarria bermatu beharko da.

[11] Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legean, apirilaren 2koan, finkatzen du 5.000 biztanle behar direla gutxienez liburutegi publiko bat jartzeko. Gutxieneko kopuru hori ez da berdina autonomia erkidego guztietan, baina 1.000 biztanletik 5.000rako tartean dago.

**Funtzionamendurako oinarriak**

Jendeari zerbitzua ematean erabiltzen diren giza baliabideak eta baliabide materialak efizientziaz kudeatzea.

Zerbitzua eskualdeko gainerako udal liburutegiekin koordinatuko da eskualdeko liburutegiaren bitartez.

"Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka" zentroaren funtsak eskuratzeko aukera izanen da eskualdeko liburutegiaren bitartez.

Zerbitzua toki entitateekin koordinatuko da kultura sustatzeko.

**Oinarrizko zerbitzuak**

Dokumentuen mailegu pertsonala eta kolektiboa.

Dokumentuak eskura jartzea.

Informazio zerbitzua (lokala eta komunitarioa).

Erabiltzaileari arreta egitea.

Katalogoak.

Ikasteko eremua.

Irakurtzeko eremua.

Hemeroteka.

Haurren eremua.

Erabiltzaileen prestakuntza.

Bertako gaien bilduma.

Irakurketaren eta informazioaren teknologia berrien sustapena.

Liburutegien arteko mailegua.

Ikus-entzunezkoak eta multimedia.

Internet.

Kopiagintza.

Eskualdeko liburutegi zentralean eta Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka zentroan udal liburutegiko erabiltzaileentzat eskuragarri dauden baliabideak kudeatzea.

**Aukerako zerbitzuak**

Turismoko informazioa ematea. Interes berezia duten herrietan dauden liburutegientzako esperientzia pilotu bat da, bertan turismo bulegorik ez badago. Nafarroako turismo eskaintza erakusten duten argitalpenak, erabiltzaile eta bisitariei zuzendutako informazioa dakartenak, ikusgai jartzen dira. Liburutegiko langileek informazioa ematen dute, eta erakustokiko argitalpenak eguneratzeaz arduratzen dira.

Udal liburutegi guztien egoera ez da berdina, erabiltzaile kopurua aldatzen baita toki batetik bestera; ondorioz, jendearen eskaera ere aldatzen da. Hori dela eta, aurreikusten den jardunaren intentsitatearen arabera, lau zerbitzu edo hornidura-maila zehaztu dira:

1.500 biztanletik 3.000ra bitarte dituzten herrietako udal liburutegiak.
3.000 biztanletik 5.000ra bitarte dituzten herrietako udal liburutegiak.
5.000 biztanletik 15.000ra bitarte dituzten herrietako udal liburutegiak.
15.000 biztanletik gorako udal liburutegiak.

**Irakurketa-agentzia publikoa**

Liburutegi egonkorra den aldetik, bertan funts orokorra dago, kultura, hezkuntza, josteta eta gizarte maileta ko informazio zerbitzuak (baita kontsulta eta mailegukoak ere) eskaintzen dira, eta herritar guztien eskura dago, adina, arraza, sexua, erlijioa, nazionalitatea edo gizarte maila kontuan hartu gabe[12].

Koordinazioa eta sostengua jasotzen ditu eskualdeko liburutegiaren eskutik eta, haren bitartez, Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka zentrotik.

[12] 32/2002 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako liburutegi sistema arautzen duena, 11.1 artikulua

**Funtzionamendurako oinarriak**

Jendeari zerbitzua ematean erabiltzen diren giza baliabideak eta baliabide materialak efizientziaz kudeatzea.

Zerbitzua eskualdeko gainerako udal liburutegi eta irakurketa-agentziekin koordinatuko da eskualdeko liburutegiaren bitartez.

"Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka" zentroaren funtsak eskuratzeko aukera izanen da eskualdeko liburutegiaren bitartez.

**Oinarrizko zerbitzuak**

Dokumentuen mailegu pertsonala eta kolektiboa.

Dokumentuak eskura jartzea.

Informazio zerbitzua (lokala eta komunitarioa).

Erabiltzaileari arreta egitea.

Katalogoak.

Ikasteko eremua.

Irakurtzeko eremua.

Hemeroteka.

Haurren eremua.

Erabiltzaileen prestakuntza.

Bertako gaien bilduma.

Irakurketaren eta informazioaren teknologia berrien sustapena.

Liburutegien arteko mailegua.

Ikus-entzunezkoak eta multimedia.

Internet.

Hiri-liburutegi zentralean eta Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka zentroan irakurketa-agentziako erabiltzaileentzat eskuragarri dauden baliabideak kudeatzea.

Turismoko informazioa ematea.

**Liburutegi-zabalkunderako zerbitzua (LZA)**

Baliabide hau 1.000 biztanletik behera eta liburutegi iraunkorrik ez duten herriei esleitzen zaie. Liburutegiei buruzko Foru Legean honela definitzen dira liburutegi-zabalkunderako zerbitzuak.

1. Liburutegi egonkorrik ez dagoen tokietan edo zailtasunak dituzten pertsona edo taldeentzat irakurketa publikoaren zerbitzua eskaintzen dutenak dira.

2. Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak mota askotakoak izan daitezke, premien, erabiltzaileen ezaugarrien eta abarren arabera: teleliburutegia, mailegu kolektiboak...

3. Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak Nafarroako liburutegi publikoen sistemako edozein liburutegiren menpe egon daitezke, baina, betiere, eskualdeko liburutegiak koordinaturik beteko dira.

**Funtzionamendurako oinarriak**

Liburutegi-zabalkunderako zerbitzua ematean erabiltzen diren giza baliabideak eta baliabide materialak efizientziaz kudeatzea.

Zerbitzua, hasteko eta behin, eskualdeko liburutegiaren bitartez koordinatuko da.

**Lehenespenerako irizpideak**

Liburutegi-zabalkunderako zerbitzua eman behar dela lehenesteko, honako faktore hauek kontuan hartu eta aztertuko dira:

1. Zerbitzua hartu behar duen herriaren biztanle kopurua.

2. Zerbitzua hartu behar duten herriak elkartzeko formulen aplikazioa; mankomunitatea, esate baterako.

3. Zerbitzu-zirkuitu edo ibilbide batean txertatzeko aukera, horrela zerbitzua hobetu eta ematea errazten bada.

4. Diskriminazio kultural edo sozialeko faktoreak.

**Oinarrizko zerbitzuak**

Dokumentuen mailegu pertsonala eta kolektiboa.

Informazio zerbitzua (lokala eta komunitarioa).

Erabiltzaileari arreta egitea.

Katalogoak.

Erabiltzaileen prestakuntza.

Irakurketaren eta informazioaren teknologia berrien sustapena.

Ikus-entzunezkoak eta multimedia.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eskura izatea.

Irakurketaren sustapena.

Liburutegi-zabalkunderako zerbitzuak askotarikoa eta malgua izan behar du; beraz, ez da komeni manu tekniko murriztaileak finkatzea, denborarekin desegokiak bilaka daitezkeelako. Foru administrazioan eta udaletan liburutegien gaineko plangintzaz eta kudeaketaz arduratzen direnek beren gain hartu beharko dute baliabide egokiak eta bideragarriak diren baliabideak eta zerbitzu-motak definitzeko zeregina.

## Zerbitzu eta ekipamendu moduluak

Atal honetan proposatzen diren modulu edo oinarrizko baldintzak bide-erakusle gisara ematen dira, eta gaur egun dauden gune eta liburutegien errealitatearen arabera egokitu beharko dira.

Era horretan, ez dira baliorik gabe gelditu epe laburrean gerta daitezkeen eskualdeen eta herrien bilakaera sozial eta ekonomikoengatik edo aldaketa teknologikoengatik.

### Jendearentzako orduak

Garrantzitsua da erabakitzea liburutegi publikoak jendearentzat zer ordutan egon behar duen zabalik, gizarteari ematen dion zerbitzua eta funtzionamendua bermatzeko funtsezkoa. Eguneko ordutegia zabala bada, eta asteko egun gehienetan eta urte osoan irekitzen bada, erabiltzaile asko eta erabiltzaile horiek maiz joatea bermatuko da. Horretarako, Kultura Ministerioaren jarraibideek proposatzen dutenaren arabera, *"jendearentzako ordutegiaren plangintza zehazteko orduan, beharrezkoa da tokian tokiko herritarren bizimodua kontuan hartzea eta ateak ahalik eta denbora gehien egon daitezen zabalik saiatzea, gehiengo baten beharrei erantzuteko"*[13]. Beraz, Nafarroako liburutegientzat ordutegi hauek proposatzen dira:

### Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka

Astelehenetik ostiralera, goizez eta arratsaldez.
Larunbatetan, goizez.
Udan, astelehenetik ostiralera, goizez bakarrik.

---

[13] *Pautas sobre los servicios de las bibliotecas públicas*. Madril, Kultura Ministerioa, 2002. 2.5. Hemen: www.travesia.mcu.es/documentos

**Eskualdeko liburutegia**

Astelehenetik ostiralera, goizez eta arratsaldez.
Udan, astelehenetik ostiralera, goizez bakarrik.

**Hiri-liburutegi zentralak eta udal liburutegiak**

Astelehenetik ostiralera, arratsaldez.
Udan, astelehenetik ostiralera, goizez bakarrik.

**Irakurketa-agentzia**

Astelehenetik ostiralera, lau orduz gutxienez, arratsaldez. Udan, goizez.

Larunbatetan ere irekitzeko aukera izanen da, baldin eta kasuan kasuko udalarekin akordioa lortzen bada, eta langileen plantilla osatuz, beharrezkoa bada.

**Langileak**

Liburutegiei buruzko Foru Legearen 15. artikuluan ezarritakoaren arabera:

Nafarroako liburutegi publikoetako sistemako zentroek eta liburutegiek behar adina langile izan beharko dituzte, bai kopuruan, bai lanpostuak eskatzen duen kalifikazio teknikoan.

Liburutegietako langileak dagozkien lanpostuei atxikiko zaizkie (nor bere mailan eta nork bere eginkizunak dituela), tokiko entitateak eta Nafarroako Gobernuak liburutegia kudeatzeko sinatzen duten hitzarmenean (Liburutegiei buruzko Foru Legearen 4.2 artikulua) ezartzen denaren arabera.

Kultura Ministerioaren jarraibideek proposatzen dutenaren arabera: *"liburutegi guztietan liburuzaintzan espezializatutako langileek ari beharko lukete lanean. Dena dela, liburutegia zer sare edo sistematan txertatuta dagoen, liburutegietako laguntzaileak ere ari daitezke haietakoren batean zerbitzua ematen. Nolanahi ere, liburutegi horiek liburuzaintzako langile teknikoen aholkua eta sostengua izan beharko dute"*[14]. Irizpide horretan oinarrituta, Irakurketaren Mapak liburuzaintzako langile teknikoak proposatzen ditu (B edo C mailakoak) eskualdeko liburutegietarako, eta udal liburutegietan eta irakurketa-agentzietan liburutegietako langile laguntzaileak ari daitezkeela uste du (C edo D mailakoak), betiere eskualdeko liburutegietatik eta hiri-liburutegi zentraletatik emanen litzaiekeen aholkuarekin.

Jarraian zehazten dira liburutegietan ari behar duten langileen kopurua eta haien titulazioa, zeinak finkatuko baitira liburutegi bakoitzaren berariazko alderdiak kontuan hartuta: instalazioen kokapena eta hedadura, ordutegia, eskaintzen diren zerbitzuak, etab.

**Nafarroako Liburutegia eta Zinemateka**

Liburuzaintzako goi mailako teknikariak, A mailakoak
Liburuzaintzako erdi mailako teknikariak, B mailakoak
Liburutegiko arduradunak, C mailakoak
Liburutegiko laguntzaileak, D mailakoak

**Eskualdeko liburutegia**

Liburuzaintzako teknikari bat, B mailakoa, edo liburutegiko arduradun bat, C mailakoa.

Liburutegiko arduradun bat, C mailakoa

[14] *Pautas sobre los servicios de las bibliotecas públicas*. Madril, Kultura Ministerioa, 2002, 5.2. Hemen: www.travesia.mcu.es/documentos

Liburutegiko arduradun bat, C mailakoa, 10.000 biztanletik gorako herrietan.

**Hiri-liburutegi zentrala**

2 liburutegiko arduradun, C mailakoak

**Udal liburutegia.**

5.000 – 15.000 biztanle:

Liburutegiko arduradun bat, C mailakoa, lanaldi osoan

> 15.000 biztanle

2/3 liburutegiko arduradun, C mailakoak

**Irakurketa-agentzia**

Liburutegiko arduraduna, C mailakoa, lanaldi laburrean aritzeko aukerarekin.

**Titulazioa, maila eta oinarrizko eginkizunak**

A maila, unibertsitateko lizentziaduna edo baliokidea: Liburutegi Zerbitzuaren zuzendaritza, atalburutzak.

B maila, unibertsitateko diplomaduna: bulegoburutzak, eskualdeko liburutegiaren eta hiri-liburutegiaren arduraduna.

C maila, batxilergoa, lanbide heziketa edo baliokidea: bulegoburutzak, liburutegiko arduraduna

D maila, lehen mailako ikasketak: liburutegiko laguntzailea

**Azalera**

Liburutegi publikoaren zerbitzuetarako ez beste deusetarako erabiltzen dena, eta, beraz, beste jarduera batzuekin partekatzen ez dena.

Jarraian datorren taulan zehazten da liburutegi publiko baten instalazioek behar luketen gutxieneko azalera eraikia, zerbitzua hartu behar duten biztanleen kopuruaren arabera.

| Irakurketaren Mapa<br>Liburutegiaren gutxieneko azalera | |
|---|---|
| **Biztanle kopurua** | **$m^2$** |
| < 1.500 | >100 |
| 1.500-3.000 | >200 |
| 3.000-5.000 | >400 |
| 5.000-15.000 | >600 |
| >15.000 | >900 |

## Liburutegiaren funtsa

Hemen liburutegiaren funtsak gutxienez beharko lukeen tamaina aipatzen da, zenbaki absolutuetan adierazia. Horrekin batera, beste zifra adierazgarriago bat ematen da: titulu kopuruaren eta biztanleriaren arteko proportzioa. Gai honi buruz IFLA/UNESCOren zuzentarauek gutxienez 2.500 obra proposatzen dute, eta Nafarroan zenbateko hori handiagoa da, 3.500 hain zuzen ere.

Titulu kopuruaren eta biztanleriaren arteko proportzioari dagokionez, zuzentarau horiek 1,5etik 2,5era bitarteko tarte bat proposatzen badute ere, Irakurketaren Mapak 3,5 ezartzen du herri txikientzat, eta herri handietan, aldiz, titulu bat pertsona bakoitzeko, uste izanik liburutegi batean gutxienez 15.000 obra baldin badira zerbitzu egokia bermatua dagoela, betiere eguneratua baldin badago eta informazioaren teknologia berrien sostengua baldin badu[15]. Honi dagokionez, Kultura Ministerioaren *Jarraibideek* baieztapen hau egiten dute: *"bilduma handia izateak ez du bilduma ona denik esan nahi; tamaina baino garrantzitsuagoak dira kalitatea eta eguneratze-maila. Liburutegi publikoen bildumetan, garrantzitsuagoa da eskurapen berrien kopurua bildumaren kopuru osoa baino"*[16]. Arrazoibide horrekin bat eginik, Irakurketaren Maparentzat ere hobe da liburutegiaren funtsa tokiko eskaerari egokitua izatea eta

[15] *Directrices IFLA/UNESCO para el desarrollo del servicio de bibliotecas públicas*. Madril, Kultura Ministerioa, 2002, 4.6.
[16] *Pautas sobre los servicios de las bibliotecas públicas*. Madril, Kultura Ministerioa, 2002, 3.4. Hemen: www.travesia.mcu.es/documentos

eguneratua egotea, eta behar bezala mantentzea, aleak eskuratu zein xahutzeko politika zorrotzaren bidez, ezen ez liburutegirako ahalik eta dokumentu gehien lortzen saiatzea.

| Liburutegien funtsen oinarrizko kopurua | | |
|---|---|---|
| **Biztanle kopurua** | **Titulu kopurua/biztanle bakoitza** | **Titulu kopuru gutxienekoa** |
| < 1.500 | 3,5 | 3.500 |
| 1.500-3.000 | 3,3 | 5.000 |
| 3.000-5.000 | 2,5 | 7.000 |
| 5.000-15.000 | 1,5 | 7.500 |
| >15.000 | 1,0 | 15.000 |

## Liburutegiaren funtsa euskarrien arabera banaturik

Jarraian heldu den taulan funts bibliografikoa euskarrien arabera banatzeko jarraibide batzuk ematen dira.

| Liburutegiaren funtsak euskarrien arabera banaturik | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Biztanleria** | **Dokumentazio funtsa ehunekotan** | | | |
| | **Liburuak** | **Ikus-entzunezkoak** | **Aldizkariak** | **Guztira** |
| < 1.500 | 85 | 14,7 | 0,3 | 100 |
| 1.500-3.000 | 85 | 14,6 | 0,4 | 100 |
| 3.000-5.000 | 80 | 19,5 | 0.5 | 100 |
| 5.000-15.000 | 80 | 19,5 | 0,5 | 100 |
| >15.000 | 80 | 19,3 | 0,7 | 100 |

## Baliabide informatikoak

Liburutegiak eta irakurketa-agentziak Nafarroako Gobernuak sustatzen duen sistema informatikoan txertatuko dira gai hauetarako gutxienez: katalogo kolektiboa, Internet, Intranet eta posta elektronikoa.

Katalogoa automatizatu beharko da interesekotzat jotzen diren 5.000 titulu baino gehiago dituzten liburutegi eta irakurketa-agentzietan; nolanahi ere, behar den xahupena egin ondotik kontatuko dira dokumentuak.

| Ekipo informatikoen oinarrizko kopurua | | | |
|---|---|---|---|
| **Biztanleria** | **Internet** | **OPAC** | **Barne lanetarako PCa** |
| >1.500 | 1 | 1 | 1 |
| 1.500-3.000 | 2 | 1 | 1 |
| 3.000-5.000 | 1/.2000 bizt.[17]. | 1 | 1 |
| 5.000-10.000 | 1/.2000 bizt. | 1 | 1/ 2 langile |
| >10.000 | 6 | 1/10.000 titulu | 1/ 2 langile |

[17] *Pautas para el acceso a Internet en las bibliotecas públicas*. Madril, Kultura Ministerioa, 2005, 3.2.

## Zerbitzuaren ebaluazioa

Ebaluazio irizpide baliagarriak eta, aldi berean, prestatzen errazak direnak ezartzeko, hiru aztergai proposatzen dira: lehena funts bibliografikoari buruzkoa da, liburutegiak herritarrei egiten dien eskaintzaren muina den aldetik; bigarrena, xahupenari buruzkoa, funtsa eguneraturik eta eskuragarri egoteko bermea den aldetik; hirugarrenak eskaintzaren emaitzak ditu jomuga, erabiltzaileen erantzuna, zeina, lehenik eta behin, egindako maileguetan ageri baita.

Azkenik, kudeaketa-hitzarmena sistematikoki berraztertzeko premia ezartzen da, era horretan areagotu nahi baita liburutegi publikoen funtzionamenduaren, garapenaren eta ebaluazioaren erantzule diren administrazio publikoen partaidetza.

### Funts bibliografikoa berretzea

Jarraian datorren taulan ageri da nola berretu behar den urtero liburutegiaren funtsa zerbitzua har dezaketen biztanleen kopuruaren arabera; gutxienekoak dira, proposamen errealista eginez. Nahitaezkoa da funtsen kopurua etengabe berretzea, erabiltzaileei informazio eguneratua eta kalitatezkoa bermatzeko; horregatik, datu hau adierazgarriagoa da funts bibliografikoaren tamaina zehazten duena baino[18].

| Liburutegiaren funtsaren urteko gutxieneko berretura | |
|---|---|
| **Biztanle kopurua** | **%** |
| < 1.500 | 5 |
| 1.500-3.000 | 4,5 |
| 3.000-5.000 | 4 |
| 5.000-15.000 | 3,5 |
| >15.000 | 3 |

[18] *Directrices IFLA/UNESCO para el desarrollo del servicio de bibliotecas públicas*. Madril, Kultura Ministerioa, 2002, 4.5.1.

## Xahupena

Xahutze lanak funts bibliografikoa berretzearekin batera joan behar du, liburutegiaren eskaintza eguneratuta egoteko, eta instalazioen tamainaren araberako funts kopurua edukitzeko, bai eta haren hazkunde etengabea eta orekatua lortzeko ere.

Horregatik guztiagatik, xahupena liburutegi automatizatuetan eginen da, Nafarroako liburutegi publikoen sistemako katalogo kolektiboan sartzen aukera duten haietan, urtean behin eta jarraian datorren taulan zehazten den moduan.

| **Liburutegiaren funtsen xahupena** | | |
|---|---|---|
| **Biztanleria** | **Funtseko tituluen kopurua** | **Xahututako tituluen %** |
| < 1.500 | >8.000 | 1 |
| 1.500-3.000 | >10.000 | 1,3 |
| 3.000-5.000 | >12.000 | 1,5 |
| 5.000-15.000 | >22.000 | 1,7 |
| >15.000 | >25.000 | 2 |

## Mailegu kopurua bizilagun bakoitzeko

Mailegu kopuruaren datuak ebaluatzen du hobekien liburutegiak egiten duen eskaintza eta erabiltzaileen artean lortzen den harrera. Jarraian datorren taulako datuek erakusten dute herri bateko zentsuaren arabera zenbat titulu mailegatzen diren biztanle bakoitzeko, urtean; gutxienekoak dira, ikuspegi errealista erabilita.

| **Urteko gutxieneko mailegu kopurua biztanle bakoitzeko** | |
|---|---|
| **Biztanleria** | **Titulu kopurua** |
| < 1.500 | 2 |
| 1.500-3.000 | 2 |
| 3.000-5.000 | 1,5 |
| 5.000-15.000 | 1,7 |
| >15.000 | 1,7 |

**Udalarekiko hitzarmena**

Tokian tokiko liburutegia kudeatzeko bertako entitatearekin sinatzen diren hitzarmenek sei urterako indarra izanen dute. Epe hori bururatzen denean, hitzarmenak aztertu eginen dira, liburutegiaren jarduera ebaluatzeko eta beste helburu nahiz zerbitzu batzuk planteatzeko, eta berriz ere sinatuko dira, bi aldeak ados badaude; hori dena, Liburutegiei buruzko Foru Legearen 4.2. artikuluan xedatutakoaren arabera.